

Xabier
Amuriza

Xabier Amuriza

- | | |
|--|--------------------------------|
| LEA IBARRA 1978. Iraila . 24 | LARRAURI 1980. Iraila, 26 |
| HERNANI 1978. Azaroa . 11 | LAURO 1980. Iraila . 29 |
| ZUMAIA 1978. Azaroa . 25 | URRETxu 1981. Apirila . 26 |
| ELORRIO 1978. Abendua . 6 | AMARA BERRI 1981. Maiatza . 14 |
| LEKEITIO 1978. Abendua . 30 | FIKA 1981. Maiatza . 30 |
| GIPUZKOAKO GOIHERRI 1979. Urtarrila . 26 | BEDIA 1981. Ekaina . 23 |
| BUSTURIA 1979. otsaila . 3 | BERRIATU 1981. Ekaina . 28 |
| DURANGO 1979. otsaila . 26 | BERGARA 1981. Urtaila . 10 |
| BILBO - DEUSTU 1979. Martxo . 30 | ANORGA 1981. Urtaila . 11 |
| GERNIKAKO BONBAKETA 1979. Apirila . 27 | ARRIANDI 1981. Urtaila . 18 |
| BEASAIN 1979. Maiatza . 25 | LARRABETZU 1981. Abuztua . 22 |
| URNIETA 1979. Maiatza . 26 | EZOZI 1981. Abuztua . 23 |
| ARRASATE 1979. Ekaina . 1 | ELIZONDO 1981. Abuztua . 30 |
| BOLIBAR 1979. Ekaina . 24 | HONDARRIBIA 1981. Iraila . 10 |
| DONOSTIA 1980. Ekaina . 14 | ZIZURKIL 1981. Iraila . 12 |
| TOLOSA 1980. Ekaina . 21 | IZURTZA 1981. Iraila . 13 |
| ZEANURI 1980. Abuztua . 15 | |

**LAUREHUN
HERRI,
MILA
BERTSO
BERRI.**

elkar s.a.

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S. A.

Esterlines, 10
Tf. 426319
Donostia

Pannecau, 52
Tf. 254390
64100 Baiona

LAUREHUN HERRI, MILA BERTSO BERRI

ELKAR

æk



ELKAR — æk

KIRIKÑO

EUSKAL KUTXA
GALERIA VASCA

Colón de Larreategui, 11
(Galerías Bilbao)

Urrut. 424 11 74 Teléf.
BILBAO - I

Ataria: Bittor Allende

© ELKAR, S. A., Donostia

Depósito Legal: NA. 972-1982

ISBN 84-7529-040-X

Irarkola: Gráficas Lizarra, S. L., Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

**EUSKARAREN IRAKASKUN-
TZAN PREMIAZKO DITUGUN
LAN HAUEK, POZARREN BA-
BESTEN DITU EUSKAL HE-
RRIKO ALFABETATZE EUS-
KALDUNTZE KOORDINAKUN-
DEAK, HERRIARENGANDIK
SORTUTAKO IRAKASKUN-
TZAREN FRUITUA HERRIA-
RENGANATZEN BAIT DUTE.**



**EUSKAL HERRIKO
ALFABETATZE EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA**

HERRIAK

HITZAUREA

Hitzaurrerik maite ez badut ere, pare bat hitz beharrezko ikusten ditut, pare bat argitasun emateko.

Lehenengo, hemen bildu ditudan jaialdiak 1978tik gorakoak dira. Bizkaiko Aulestian izan zen lehenengoa, urte horretako irailaren 24an. Hasieratik gerora, jaialdien egitura aldatuz joan ginela aisa igar daiteke. Eman beharreko argitasuna bestea da, ordea: jaialdiek lekuan lekuko gaiak zeramatzatela oinarritzat. Eguneko gaiak, beraz. Baina egun hura gaur atzeraturik gelditua da. Herri batean eta bestean orduan bistaraturiko hutsak eta akatsak baliteke gaur gezurrak izatea. Orditik hona zenbait gauza konponduak baldin badira, hainbat hobeki. Bertso sorta hauek lekuko izan litezke, gauzak zertan aldatu diren eta zertan lehenean dirauten ikusteko.

Bigarren argitasunari garrantzitsuago deritzat. Bertso hauen ortografia, alegia. Alde bateko eta besteko eragozpen guztiei bueltak emanik, azkenean arau hauxe hartu dut: silaba bakarra kantatzen den lekuan, bakarra idatzi, nahiz eta ortógrafi arauak bi eskatu, hatxe bitartean dela. Honela neurriari buruz nahastea uxatzen da. «Nai» edo «zarra» kantatu delarik, «nahi» edo «zaharra» idazteak, gaizki neurturik dagoela eman lezake eta, beraz, gaizki irakurri edo kantatu.

Bestalde, bertsoak irakurtzean, irudimen bisualak eragin haundia dauka. Bertsoak irakurtzea mentalki kantatzea bezala da. Ez da, beraz, irakurtzea bakarrik. Horretarako ortografiak irudimen bisualari behar bezala neurtzen lagundu behar dio. Edo behintzat hori hobe dela iruditu zait. Kasu askotan gainera, era batera kantatua beste era batera idazten baldin bada, oso idazkera desorekatua agertzen da. Demagun adibidez hauxe kantatzen dugula:

*Lenbaitlen nai dut euneko zarra
kendu aurretik gastatu.*

Idatz dezagun orain ortografia osoz:

*Lehenbaitleben nahi dut ehuneko zabarra
kendu aurretik gastatu.*

Pentsa lerro hori noraino luzatzen den eta bertsoaren idazkerak zer neurgaitz eta trakets emango lukkeen.

Badira hitzak euskalki batzutan beti silaba bakarrez esaten direnak: *Len, nai, eun*, eta abar. Bertsotan, bat batean batez ere, hitz horiek horrela edo bi silabaz (*lehen, nahi, ehun*) kantatzeko aukera aprobetxatzea ez dago gaizki. Ez dira hitz asko, baina bai maiz agertzen direnak. Bat bateko bertsoetan batez ere, hori eta askoz gehiago onartzen da, eta ongi onartua gainera, laburduren sailean. Norbaitek honela kantatu badu:

*Ederki eingoiozu
hori eitekotan*

ez dago osori idazterik, gaizki neurtua gelditzen baita:

*Ederki egingo diozu
hori egitekotan*


Ez naiz laburdura zalea bertso jarrietan. Hitz batzuk, hala ere, euskalki batzutan beti laburturik erabiltzen baditugu, jarrietan ere hala erabiltzea ez dut gaizki ikusten. Baina, hala nahiz hola, bertsoa kantatu behar den moduan idazteari alde on gehiago ikusten diot. Neurririk konpromizozan jartzen ez duenean, ortografia batuaren alde nago noski. Baina neurri aldakuntzarik dakarren kasuan, neurria da lehenbizi errespetatu beharrekoa.

Azkenez kontutan izan liburu honetako bertso gehienak, jarriak badira ere, herri bati zuzenki kantatzeko eginak izan zirela. Ez dira bat batekoak, baina bai bat batekoen giroan kantatuak. Beraz, laburdurak eta beste lizentziak bertso jarrietan baino lasaitxoago erabiltzen ditut. Ez asko, denak jorik ere.

Azkenez, badira herriak trataera luzeagoa dutenak eta beste batzuk oso labur geratzen direnak. Baziren jaialdi osoak herri edo eskualde bati bereziki eskainiak. Beste batzutan, herri bati dagokion zer berezia ez zen hain luzea, gainerakoa gai orokorragoz osaturik. Horixe da hemen herri batetik bestera, luze laburrean, ageri diren alde haundien arrazoia. Badira beste hainbat herri, jaialdiak bertan egin arren, hemen agertzen ere ez direnak. Horrek esan nahi du ez niela gauza berezirik eskaini. Hauetan gai orokorrez osatu nuen jaialdi osoa. Gai orokorrako horiek liburu honen bigarren zatian datoz.

ABADIÑO

1978. Otsaila. 3



Abadiño San Blasetan, elurra mendi goietan.

ABADIÑO

1)

Abadiñon San Blasetan
urteroko ferietan
milaka jente, landare eta
animali bertan.
Edurra mendi goietan
beko tximiniak ketan
baserritarren bizitza hona
bertso barrietan.

2)

Baserritarren karrera
lana goizetik gauera
gaur arte halan izan da hori
gitxi gora bera.
Eta hemendik aurrera
zerbait batzen ez bagera
euririk ere ez da debalde
jausiko lurrera.

3)

Lurra ez gaur ez lenago
ez legoke hain esklabo
egiten dogun erdia inork
ez baleusku jango.
Laguntzarik ez badago
jo beharko da hordago
batasuna da arma bakarra
bestela akabo.

4)

Ministro ta politiko
hitz politak eta kito
hioen kontura balitz gureak
egin dau betiko.
Ez bagara belauniko
jaio, bizi eta hilko
geu batu ezik goitik ez jaku
ezer etorriko.

5)

Baserritarrak gara gu
eta lurra gure kargu
danok goseak hil behar horrek
emoten ez badu.
Geuk egina merke saldu
erosteko dana karu
baserriari eusteko martxa
ederra daukagu.

6)

Baserriak lautik bira
husturik dagoz erdira
geratzen diren apurrak ere
kalera begira.
Nai bada aurrera tira
negarrak alperrik dira
batasunean dago indarra
bidea hori da.



Milaka jende, landare eta animali bertan.

BATASUNA: Bertso hauek eskaturik eginak izan ziren eta eskaria batez ere baserritarren batasunari ekiteko zen. Ez zen jaialdia izan, bialduriko bertsoak baizik.

LEA IBARRA

1978. Iraila. 24

1)

Itxas ertzean Lekeitio ta
Oiz azpian Munitibar
Aulestin zehar Gizaburura
Ispaster aitatu behar.
Amoroto ta Mendexa goian
zazpiak bat Lea Ibar
lurralde honi kantari nator
eta hilgo banintz bihar
gaurko bertsoak kanta eizuez
errekalde hontan zehar.

2)

Buelta osoa emon ondoren
Euskal Herriko mapatik
sentimenduak agintzen eustan
hasteko ibar hontatik.
Ez dago zertan esanik baina
azalduko dot zergatik
inguru honi dautsodan zorra
kantuz ordaintzeagatik
borondatea badaukat baina
beteko dodan ez dakit.

3)
Destinoaren suertez heldu
nintzen **Lea Ibarra**
Gizaburutik hasita zenbat
buelta gora eta bera!
Hemen hasten da nire bigarren
bertso laneko karrera
herriak ontzat hartuko baleu
pozik joko dot aurrera
bestela, jaunak, burua gorde
eta isilik etxera.

4)
Modu barri hau izan leiteke
zor den bidetik urtena
edo iturri zarretik doan
ur barrien erretena.
Holan balitza hauxe da nonai
harro esango neukena
Lea Ibarren egin nuela
nire lehen aurkezpena
urteak joanda hementxe emon
nai neuke baita azkena.

5)
Arbola zutik egonagatik
izan leiteke igarra
dena galduta berdin jat baina
ez maitatzeko indarra.
Gizona nazen moduan banintz
kukua edo oilarra
kantu berean batuko neukez
Hegoa eta Iparra
lenengo neure etxea eta
hurrengo **Lea Ibarra**.

LEA: Ibar honi izena damaion ibaia, Oiz mendian sortu eta Lekeition itxasoratzen dena.

ZAZPI HERRIAK

1)
Kantatu behar ditut
orain zazpi herri
badakienak bata
bestearen barri.
Euririk ez denean
seguru aterri
sinisten ez dauena
bertara etorri.

2)
Oizko mendi azpian
dago **Munitibar**
oilo baten atzetik
dozena bat oilar.
Fama dauka badela
diru hainbat indar
gaur irabazten dena
gastatzeko bihar.

3)
Bigarrena Aulesti
edo **Murelaga**
ama ederrak bere
antzeko alaba.
Zeinai atetan jotzen
dauenak aldaba
aukera ona dauka
atrebitzen bada.

4)
Goian **Urrexola** ta
bean **Gizaburu**
batez beste badago
lagun hainbat buru.
Diru solterik bada
pattar eta puru
etxean ez dagona
tabernan seguru.



Bigarrena Aulesti edo **Murelaga**
ama ederrak bere antzeko alaba.



Oizko mendi azpian dago **Munitibar** fama dauka badela diru hainbat indar.

5)
Oletan gora hartu
eta **Amoroto**
haragia maiteta
baraua gorroto.
Orain egin al denik
ez itxi geroko
geiegi edan arren
ez dira itoko.


6)
Itxasotik mendira
han dago **Mendexa**
ikusi ez dauenak
badu zertaz kexa.
Udan hainbat kanpotar
txoriren amesa
politagorik ez da
topatzen erreza.



Bost herrien egunean, mendexa-
rrak euskal ezkontzan.

7)
Gernikara bidean
seigarren **Ispaster**
agur **Mari Gorringo**
eta paternoster.
Defuntuen arimak
bazterrikan bazter
deabrua alkate
ei dakarre laster.

8)
Txaputxeruak nausi
ziren **Lekeition**
pixkaren bat hezita
dagoz aspaldion.
Hara islako akerrak
mundura zer dion
herri ederragorik
ez dagola inon



Amorotoko «ezkontza», gurdi gainean **Santi** ezkon
berri dutela.

9)
Zazpi dira herriak
bat Lea Ibarra
zazpi probintzietan
Euskadi bakarra.
Hil arte bizitzeko
zerbait jan beharra
umore ona ez da
bizigarri txarra.




Gizaburuagan bada etxe hau, etxe honetan bazen habia bat eta habia honetantxe aurkitu nuen usoa.

TXAPUTXERUAK: Lekeitiarren goitizena.

HERNANIKO GALARRETAN

1978. Azaroa. 11



Hernaniko Galarreta pelotalekuan egin genuen **Gi-puzkoako** lehen jaialdia.

1)

Ereñozutik Astigarraga
Urnieta ere hurbil
Hernanin zehar itxas aldera
Añorga eta Usurbil.
Bailara honi kantari gatoz
jaiki neska, gora mutil
gure arnasa zaharra bertso
berrietan dezagun bil
odol freskoa duen herririk
historiak ezin du hil.

2)

Bertsolaritzak sortze beretik
izan zituen bide bi
biak batera plazaratzea
izango al da zilegi.
Hernanin bazen Txirrita eta
Usurbilen Udarregi
haien ildotik golde berrian
nai dugu aurrera segi
gaurko saioa egunsentiko
irrintzia izan bedi.

3)

Jende geiena menderatzen du
lantegiko adar hotsak
zertan gara gu nora goaz gu
giza pizti hankamotzak?
Aurreratzeko ez dira naiko
ukabilak eta hortzak
bizitza kantuz lantzera gatoz
nola egurra harotzak
munduak dezan euskaraz izan
beste hitz eta abots bat.

4)

Aterpe hontan jokatzeko dira
hainbat pilota partidu
gaur Galarreta duzue beste
sesio baten testigu.
Kolpe guztiak txapa azpira
gertatzen ez bazaizkigu
tantu pila bat sartuko dugu
nori zenbat ez dakigu
pelotazorik hartzen duenak
barkatu beharko digu.

5)

Bein jaio ginen bein hilko gara
bein bakarrik behar bizi
aproba batzuk jo gabe nola
joan mundutik ihesi.
Era berri hau Gipuzkoan gaur
azaltzen dugu lenbizi
herririk herri goaz kantari
han barre hemen garrasi
Galarretatik mila goraintzi
Madrili eta Parisi.


HERNANIALDEA

1)
Bertso berritan egin behar dut
Hernanialdeko jira
gaizki azaldu ez badidate
sei herri beintzat badira.
Hegoaldetik Nafarroara
Iparretik Kantaurira
Donostiako jauntxoan jauna
danborra jotzen ari da.

2)
Ereñozutik hasten bagara
zerritegi bat daukate
usain ederra eta debalde
sudurrak aspertu arte.
Negozioa martxa onean
doala esan didate
konpletatzeko behar lukete
txerri bat jarri alkate.

3)
Zikuñagako Ama Hernanin
oso maitea herriak
papelerari saldu diona
eliza agurgarriak.
Miloien ordez indulgentziak
Erromatik ekarriak
horrelakoxe tratuak ditu
ebangelio berriak.

4)
Santa Barbara deritzan mendi
baten berria dut jakin
martxa darama harrobi batek
janda bistatik joan dadin.
Len ere bada naiko hauts eta
zertan geiago eragin?
Horra nolako disparteak
gertatzen diren **Hernanin**.



Zikuñagako Ama Hernanin, oso maitea herriak.

5)
Komisartegi berri bat ere
jartzeko plana baitago
bidean jakin dugun bezala
horra nola ta zertako.
Oria eta Urumeako
uren garbiketarako
horrela bada ongi etorri
ez zaie lanik faltako.

6)
Urrietako festak oraindik
zintzilik daude arbolan
herrian elkar bizirik uzten
ba omen zuten naiko lan.
Bailara hontan erdal orkestak
jartzen bazaizkigu modan
hurrengo bertso saioa egin
beharko dugu **Cordoban**.

7)
Hernanin bera Astigarraga
zerbait daukana festara
berehalaxe gaixotzen dira
sagardo onik ez bada.
Edanak gaitzik egin ez dezan
bota pentsua askara
asealdi bat behar duenak
probatu gabe ez laga.


8)
Bedeinkatua izan dadila
Añorga katolikoa
zementua du ogi santua
eta **Rezola Jainkoa**.
Karretera bat jendea hiltzen
marka guztien goikoa
añorgatarrek lasai bizitzen
badute lanik naikoa.

9)

Usurbil ez da nolana eta gutxi hazi aspaldian nork jakin zenbat poligono ta zenbat negozio dian. Pistoleroen batek ez banau asaltatzen gauerdian etxe berri bat egin behar dut Aginagako zubian.

10)

Alargun batek atean ditu negarrez zazpi senargai nik hamargarren bertsoan ez dut lagunik triste jarri nai. Hemen aspertzen ari bazara hor duzu *Young Play* edo plai akaso ez dizu minik kenduko baina sakelak hustu bai.




Santa Barbara mendia eta hainbeste esankizun sorrerazi zuen harrobia.


URNIETAKO FESTAK: Urte batez istilu gogorra izan zen festa batzordean, erdaldunek erdal orkesta jarri nahi baitzuten.

PISTOLEROREN BATEK: Aginagako zubiko urbanismoan eztabaida latzak izan ziren udaletxean. Norbait pistola eta guzti atera omen zitzaion kontrako eritzidun bati.

YOUNG PLAY: Galarretako pilotalekuaren aurrean dagoen dantzategia.



Astigarragan sagardotegitik atera, piz egiten hasi eta honelaxe geratu ziren bideak.



Gaur arte duzun baino suerte hobea
opa dizut, **Lasarte**, hain herri noblea.

1)
Bertso berri batzutan
noa **Lasartera**
ezjakinari hango
berri ematera.
Hogeita hamar mila
arima batera
gorputzak nola dauden
kontuak atera
deskalabru hoberik
munduan ote da?

2)
Etxe pilak elkarren
gainean eginak
eundik laurogei edo
dira etorkinak.
Berdin txantxangorriak
eta poxpolinak
bakarrik falta ditu
horko danbolinak
Cadizko auntzak eta
Bizkaiko sorginak

3)
Herri bihurtu nairik
ari da jo ta ke
udaletxea naita
kasurik ez bate.
Zozketa bat bezala
lau herriren arte
lau puska lotsagarri
egina daukate
holakoxe trantzean
bizi da **Lasarte**.

4)
Kontuak eskatzeko
ez dakite nori
sinesten ez baduzu
joan zaitez zerori.
Urnietan irtenda
Donostira etorri
Usurbilen mozkortu
Hernanin erori
Lasarten bertan egin
zenezake hori.


5)
Hiri honek dirudi
giza ikuilu bat
janda lo egiteko
sortua erabat.
Auzo eta kalek
nik al dakit zenbat
kontatzera joateko
gogoa badaukat
Michelinek moztutzen
ez badizkit hankak.

6)
Ifernua bertara
bailitz eroria
zikinaren txapeldun
hor doa Oria.
Berrogeita hamarren bat
urte edo dia
bertan bustirik jaten
zutela ogia
zapabururik ere
gaur ez dago ia.

7)
Hilek egina dute
betiko ohea
bizien esperantza
goizeko lorea.
Gaur arte duzun baino
suerte hobea
opa dizut, **Lasarte**,
hain izen noblea
Agur eta ez galdu
zure umorea.

ZUMAIA

1978. Azaroa. 26



Herri eder bat maite nai baduk, Zumaian gelditu
hadi.

1)
Estazioan trenetik jetxi
poligono hartan bera
Parolaldetik jira eginda
jo dut San Telmo kalera.
Gautxorin zehar zokondo batzuk
utzirik alde batera
Beko Kalean zazpi txikito
handik Arrua aldera
Beko Plazako musikaz gatoz
Zumaia dantzan jartzera.

2)
Hemen Itziar eta Arrua
han Zarautz eta Getari
autopistaren bi aldetara
Oikia eta Artadi.
Zestoan bera Urola eta
ipar aldetik Kantauri
itxaso horrek tristura ere
jarriko luke kantari
herri eder bat maite nai baduk
Zumaian gelditu hadi.

3)
Euskaldunari tokatu zaion
zortea latza izaki
hemen lau gara han hiru dira
muga bat eta bi zati.
Nola ezpata jarri erditik
len hain txikia zen bati?
Bertsolariak ezin isildu
naizta lepoa ebaki
herri bat ez da sekula hilko
kantatzen baldin badaki.

4)
Zazpi senide hoietarik bi
Gipuzkoa ta Bizkaia
han Bilbo eta hor Donostia
hemen gu eta Zumaia.
Lana da aita eta odola
izerdiaren anaia
jaiotza baldin bada hasera
eta hiltzea amaia
kanta dezagun bizia eta
herri honen bizi naia.

5)
Bean lantegi tximinituak
goian artzainen basoak
lurra izerdi gaziz bustia
utzi zuten gurasoak.
Baina jasorik duen freskura
haitzen kontra itxasoak
ilusioen egunsentira
luzatzen ditut besoak
bizitza kantuz gozatzen ikas
dezan Zumaia osoak.

ZUMAIAKO BERRI

1)
Kantatu behar dizut
Zumaiako berri
danbolina jotzera
ez bainaiz etorri.
Semaforo berdea
jarria da gorri
alto ihesi doan
atorrante horri!
Larrutik heldu eta
bistara ekarri

2)
Aizkorrin jαιο eta
hor dator Urola
ifernuko deabru
beltzaren odola.
Len hain garbi eta gaur
zikindurik hola
zuek badakizue
nondik eta nola
esanda ere ez zait
batere axola.

3)
Larrak arrain ustela
hori duk kiratsa
Txikerdik azidoen
beneno garratza.
Papelerak ederki
hornitzen du saltsa
bakarrik falta zaigu
defuntuen gatza
laster sudurrik ere
ez dezagun altxa.


4)
Zumaiako auzo bat
izenez *Gautxori*
gauzez bisitatzeko
hobea dirudi.
Hamaika negozio
zikin eta lodi
ez nuke nai holako
sarean erori
astindu ezazue
lapur jende hori.

5)
Mendian basurdea
Beduan *Probasa*
hor bai badabilela
potaje demasa.
Ibaiari milaka
metroko terraza
kendu eta golkora
nai dizute pasa
deskuidatzen bazara
baita ere arnasa.

6)
Estazio aldeko
bi torre itxusi
Arrua kale hortan
gauza garbi gutxi.
Urbanismoko planik
hor ez da ikusi
lotsarik gutxiena
daukana nagusi
zenbat lapur dabilen
gorbata ta guzi.

7)
Parolaldea nai dut
hurrengo zuzendu
Conde de Vallellano
izena omen du.
Frankoren ministro ta
lapurren zimendu
noiz behar dute plaka
hori hortik kendu?
Hobe gaur bertan joanda
erreko bagendu.

8)
Zikina eta hautsa
Amaiako Plazan
bankuak erorita
ruina baten gisan.
Berritzeko promesa
pikutara joan zan
desastre hutsa dela
bestarik zer esan
etxegile hoiekin
ez erruki izan.




Indamendi puntara botako balute. Ez al da leku ederregia?



Zumaian tradizio haundikoa da **San Telmo** kalea.

9)
 Goiko plazan mudantzak
 dira urtez urte
 len astoak lotuta
 gaur koartela dute.
 Auzoak kukurruku
 pozik joko luke
 teatro berde hori
 haizearen truke
Indamendi puntara
 botako balute.

10)
 Bukatzeko banoa
San Telmo kalera
 gure **Emeterio**
 zenakin batera.
 Naiz eguraldi txarra
 urtetik urtera
 hark bandera eraman
 nik salda atera
 hurren festetan bapo
 ibiliko gera.



Getariko saguak **Zumaitik** ihes egin omen zuen.

DIRUA SOBRA

- 1)
Aitareen Semearen
Zumaian hasperen
milagroa ez bada
nik ez dakit zer den.
Krisisean gaudela
ene Jesus! Amen!
Hainbeste miloi sobra
omen daude hemen.
- 2)
Jendea gosez eta
hirina errotan
zuen udaletxea
ez al dago lotan?
Inguruak pixka bat
itxuratzekotan
dirua non gastatu
bada herri hontan.
- 3)
Hor Plaibidea eta
Gautxori alde
miragarria sano
dagoen kalea.
Itxuran dagoena
argirik gabea
pentsatu eta hau duk
kalamidatea.
- 4)
Kale garbitzailerik
Zumaian inor ez
ea betetzen zaigun
herria satorrez.
Estudiante batzuk
erdi derrigorrez
zerbait nabartzen dute
mokau baten orde.

5)
Simaurren kamioiak
topera hor dia
hemen sartu eta han
erori erdia.
Zumaiarra ez balitz
berez hain garbia
zikinak jango luke
baita ilargia.

6)
Bada hor labe edo
krematorioa
martxan abitu gabe
hiltzeko jaioa.
Horrelakoa bada
purgatorioa
hantxe egin behar dut
hurrengo saioa.

7)
Urakin ere bada
egunero kezka
gutxi edo baterez
hau duk sorgin festa.
Naiz itxasoa ari
portuan gainezka
etxean itotzeko
arriskurik ezta.

8)
Len bi sereno eta
batere ez da gaur
dauden argi apurrak
hilda edo labur.
Laster dugu Zumaian
kale aina lapur
zerbait falta bazaizu
barka eta agur.

9)
Akabatzeko ere
ordua heldu da
hautsi aurretik zuen
pazientzi muga.
Ez badakite nora
bota diru hura
bidali bertso hauek
aiuntamentura.

KOMEDI BARREGARRIAK

1)
Eun mila buelta ematen ditu
munduko errotarriak
Zumaian ere gertatzen dira
komedi barregarriak.
Ustez gezurrik ez dut esango
baizik egia garbiak
zer entzun franko dute izango
sano dauden belarriak.

2)
Batek estutu eta besteak
lasatzen du gerrikoa
Zumaian hiru etxe famatu
eta bakarra Jainkoa.
Hemen *Hondartza* han *Txantxan-*
eta Estaziokoa [gorri
bero dagonak itzalpe hortan
badu freskura naikoa.

3)
Krisis garaian gaudela baina
hor sobra omen da lana
zailena txanda harrapatzea
ez bada bat erdi bana.
Akaso hala komeniko da
baina hau pena dudana
hainbeste neke kosta beharra
berez hain merkea dana.

4)
Zenbat diru duk? Zenbat behar dun?
Eta besarkatzen elkar
pentsatze hutsez ai zer tristura
dudan odoloren zehar.
Bizipidea ateratzeko
maitasuna saldu behar
inoiz barrea sortzen zait baina
egin behar nuke negar.



Zumaia gainean Artadi.

5)
Hitzaldi batzuk baziren hemen
seksua harturik gaitzat
zer soinu jo zen ez dakit baina
eskandalua bai beintzat.
Hain kontzientzi garbien esku
badaude Zumaiko giltzak
tresna maiteak ganbaran gorde
beharko ditu bakoitzak.

6)
Enmanuelen filmea justu
heldu zen handik segidan
banku pila bat sartuta ere
tokia hartzen hainbat lan.
Katolikorik finenak omen
zeuden aurrenengo mailan
norbaiten sudur markak ere han
gelditu ziren pantailan.

7)


Dotrina horrek izan behar du
Artadiko apaizena
hainbeste sermoi eder eginda
halako baten hil zena.
Nolakoa zen ezin dut esan
argala ala gizena
erderaz bapo zekien beintzat
eta Daniel izena.

8)

Manga motxeko emakumerik
ezin ikusi elizan
baserritarrak hartzen zituen
abere tentelen gisan.
Zeruan edo dagon lekuan
okerrik ez badu izan
haren arima gonbidatzen dut
bertso hauek entzun ditzan.

9)

Itxasuntzia portuan sartzen
izarrak goitik begira
akabatzer a noa herritik
kantuz egin dugun jira.
Bertso berriok zumaiatarren
pozgarri izan badira
pozik joango gara Bizkaira
baita ere ilargira.



Aizkorrin jaio eta hor dator Urola
ifernuko deabru beltzaren odola.

KONSTITUZIOA

1)

Konstituzio bat bada
bosteun aitaren alaba
nolakoa ta nondik datorren
ondo errepara.
Makurtzen baldin bagara
uztarri berri hortara
esan beharko Euskal Herria
joan zen bikutara.

2)

Horra euskara mirabe
sasikume baten pare
ez autonomi ez perretxiko
oraindik hor gaude.
Nora goaz gu bestalde
geure Nafarroa gabe?
Nik ez dut putzik ere emango
lege horren alde.

3)

Langilea dabil estu
hainbeste lantegi hustu
legeak dena uzten du lengo
tunanteen esku.
Greba egitea juxtu
bera ere gero moztu
lanetik jaten duenak hortik
alde onik eztu.

4)


Parlamentuko feria
lapurreta ageria
adarra eta larrua ere
jo digute ia.
Eman duten miseria
gogoaz kontra erdia
gezurra balitz hobe zen baina
hori duk egia.

5)
Carrillo eta Gonzalez
bat fraile bestea apez
hoiek emango dute botoa
beste denon partez.
Ezetzaz ez bada, batez!
Zaude egun hortan bakez
goizean ondo gosalduta eta
mendira joan zaitez.

KONSTITUZIOA: Jaialdi honen egunetan, konstituzioari buruzko erreferendunaren kanpaina ari zen.

ELORRIO

1978. Abendua. 6



Munduan ederrik bada, Elorrio du izena.

1)

Kanpazarrera gozelarik
Iguria ta Gazeta
gero Aldape eta Berrio
Zenitako Argiñeta.
Mendranken zehar Miota eta
han Berriozabaleta
San Agustingo elizapean
harturik honuntza buelta
Elorriora gatoz zorroa
notizi freskoz beteta.

2)

Hemen Atxondo han Arrasate
gailurretik Elgetara
Abadiñotik Berrizen zehar
Zaldibar eta Bergara.
Hoi en erdian herri eder bat
munduan ederrik bada
Elorrio dau, izena eta
kantari gatoz bertara
trumoia aita, tximista ama
gu haien semeak gara.

3)

Santamañatik Erdellan zehar
Besaidera igarota
Ibaizabalen sorburu biak
Udalaitz eta Intxorta.
Zenbat gudari hil ziren hemen
destinoari tiroka!
Hango odolak martxan darabil
gure ametsen errota
goiak harrika hasten badira
ez guri errutik bota.

4)

Historiaren testigu zorrotz
hara Anbotoko haitza
menderik mende begiratuaz
bere azpiko bizitza.
Haizeen eta mendiko uren
arimaz landurik hitza
herri bat hartu soinean eta
plazarik plaza gabiltza
askatasuna gure eguzki
eta gerizpe haritza.

5)

Udazkenean horriak jausten
arbolapean orbela
Euskal Herria bart amets egin
nuen hala zegoela.
Itzartu eta astindu nitun
ohea eta logela
Elorrioko Jolasleku hau
jarri nai neuke horrela
kantatu daigun bizitza eta
datorrena datorrela.

IBAIZABAL: Ibaiaren izena.

JOLASLEKU: Dantzalekuaren izena, jaialdi hau egin zena.

ABERATSAK EDERTO

1)
Bizkaiko probintzian
bada hainbat herri
kantatzeko gogoa
daukat baten barri.
Elorrio izena
kale ta baserri
aberatsak ederto
langileak larri
guzurrik esan badot
jueza ekarri.

2)
Lariz, Jara, Beraza,
Orbea ta abar
palazio galantak
zortzi edo hamar.
Ederrena erosteko
plana daukat bihar
urtean bein banator
ez ibili marmar
aberatsak ez al dau
atsedenik behar?

3)
Jauregi hoietako
konde edo markes
zona berde guztiak
heurentzako daukez.
Etxerik nai badozu
eta dirurik ez
Opusek daukan hortan
lasai sartu zaitetz
eta mila goraintzi
errentaren partetz.

4)
Elorrio hain leku
noblea baitzen len
turisterri oraintsu
deklaratu eben.
Nork jakin hor azpitik
zer saltsa zebilen
urte hartan Beraza
zen alkate hemen
harek informatuko
zaitue ondoen.

5)
Ladrilu bat jartzeko
datorren nastea
hamalau baimen behar
hau dok desastrea.
Bata lapurra bada
laguna bestea
bakarik falta jake
txakurren hestea!
herria akotatu
ta eizan hastea.

6)
Parador nazional bat
ere hemen bada
ez dakiena zelan
ez zertan akaba.
Turismoko aitorde
guztien alaba
ostatu hortan pasa
nai dauenak gaba
hobe dau inpernuan
jotzea aldaba.

7)
Elorrion hamaika
kale zelebren da
General Mola edo
Primo de Rivera.
Plaza de España eta
hor *Franco* berbera
pozik botako neukez
guztiak batera
Intxortan gora edo
komunean bera.

8)
Herri honek badauka
fama pelotara
ganorazko frontoi bat
oraindik falta da.
Entrenatzera joan
behar Apatara
han lekurik ez bada
Anboto puntara
zer lotsagarria den
kontuak atara.

9)
Proiektu bat ba ei da
benetan braboa
frontoi, pizina eta
kirolerakoa.
Asmoa beintzat ez da
edozelakoa
horixe izango da
aurrera badoa
Berriotxoak falta
dauen milagroa.

10)
Doinu hontako jira
behar dot amaitu
nik maite dodan inor
ez daiten gogaitu.
Hasi nazen berbatik
nai neuke jarraitu
guzurrik esan badot
akerrari deitu
adardun baltza bada
konponduko zaitu.

AUZORIK AUZO

1)
Kantatu behar ditut
bederatzi auzo
Elorrion direnak
famatuak oso.
Goazen ene astotxo
arre eta iso
pentsu oña emongo
dauskue akaso.

2)
Arrasaterutz hartu
eta Iguria
arima latza baina
silbota guria.
Negua baltza bada
edurra zuria
han ere goitik bera
ei dator euria.

3)
Gazetako jentea
ez da ez oilanda
goizean txala hilda
iluntzean janda.
Gauerdian txanpana
dinbi eta danba
enteratu zaitze
bertara joanda.

4)
Intxortaren azpian
daukagu Aldape
gazteak futbolera
dabiltza jo ta ke.
Zarrei ere ibiltzea
gustatzen ei jake
hankamotzik ez hara
bialdu alkate.

5)
Berrion izaten da
barautea sarri
astean hiltzen dira
bederatzi txarri.
Hil eta jan ere bai
buru ta belarri
buztana ehortzeko
frailea ekarri.

6)
Erdella goian eta
azpian Mendraka
hango kalenturarik
ez eizu harrapa.
Jantzi eta erantzi
gona edo praka
andre-gizon beroak
gauero matraka.

7)
Zenitan Argiñeta
hainbat bolari da
tunba zar famatuak
albotik begira.
Abandonu tristean
etzunik han dira
ai zer lotsagarria
galduko balira.

8)
Berrizera bidean
goaz Miotara
komeni jakenean
hona eta hara.
Gizon famatuz jantzi
leiteke altara
San Pete biztutzea
bakarrik falta da.


9)
Neguak mustur baltza
Berriozabaletan
gizonak zurrutean
andrak barriketan.
Mozkortu eta jausten
bazara errekan
Herreritok eroango
zaitu bizikletan.

10)
San Agustin Bizkaiko
eliza zarrena
jenteak gurago dau
alboko taberna.
Izena ere Narru
edo Narruena
hamaika narrukada
partitzen dauena.



Elorrioko plazako ura. Edan eta zoratu.

11)
 Auzoak bederatzi
 dozenan hamabi
 jan eta edan dogu
 ondo ta ugari.
 Astoa ere jarri
 daustie ernari
 Elorrio aldean
 kontuz ibil hadi.



Tunba zar famatuak albotik begira
 ai zer lotsagarria galduko balira.

TUMBA FAMATUAK: Argiñeta auzunean diren antxinako tunba batzuk, bereziak eta historikoak.

SAN PETE: Pertsonaia famatu baten izengoitia.

HERRERITO: Noiznahi bizikletan pasatzen ikusten den gizon bat, bai eta eguraldirik txarretan ere.

AZKEN BARRIAK

1)
Elorrioko kontua ere
zelebrea da benetan
jainkoak daki zer jente klase
bizi den herri honetan.
Lenengo sartu naz Tetuanen
gero Tanger eta Ceutan
tximino batzuk bota ezker
Afrika guztia bertan.

2)
Elorrioko plazako ura
hain sana ezin izan
bein edan neuen eta ez dakit
burutik galdu ez naizan.
Iturri hori itxi ez balitz
zer pasako zan nork esan
turisterri hau zoro azoka
deklaratu beharko zan.

3)
Herri hontako jentea ei da
erlijio handikoa
Ultimo Tango heldu zenean
apurtu zen lapikoa.
Agur parroko jaunen sermoiak
parkatu, gure Jainkoa!
Takileruek ordena zaintzen
ba eben lanik naikoa.


4)
Sesio harek eiza txakurren
txapelketa zirudien
musturrak sartu pantailan eta
erbia nondik zebilen.
Katolikorik onenak bertan
luzitzen ei eben geien
egun haretan nork jakin zenbat
jarleku lokatu ziren.

5)
Berriotxoan debozioa
barriz indartzen ari da
Elorriotik Benidormera
erromesak noiznai dira.
Alikanterik erdia ia
daukagu geuri begira
neguan ere bardin egiten
dautzue udako jira.

6)
Herri honetan ba ei da gero
jente ilustre samarra
euskaraz ondo jakinda ere
erdaraz egin beharra.
Zorritzarrean ez izan arren
daukagun kasu bakarra
fama dau bera dela horretan
Euskal Herriko oilarra.

7)
Jente mordo kasino bila
doa Miarritzeraino
krisis gogorra gendulakoan
zerbait badago oindino.
Izenik ez dot esango baina
notiziak hori dino
seguru nago ez dela izango
Eloi edo Bernardino

8)
Elorriotik jira eginda
hauxe da azken hegada
gauzak geiegi luzatu barik
dagigun sasoiz akaba.
Bertso barrien saio hau zuen
gustokoa izan bada
etorri garen baino pozago
erretiratuko gara.




Bernardino. Laurogeita zenbat urte? Bizitzeko beste hainbeste.

TETUAN, TANGER, CEUTA: Taberna batzuren izenak.
ITURRI HORI: Ur hura edaten zuena zoratu egiten omen zen.
ELOI ETA BERNARDINO: Elorriotar famatuak eta adintsuak.

LEKEITIO

1978. Abendua. 30



Munduan herri politik bada, bat beintzat da
Lekeitio.

1)

Munduan herri politik bada
bat beintzat da Lekeitio
itxasoaren izpiritutik
izerdia datorkio.

Goitik Ispaster han Amoroto
Mendexatik Karraspio
isla bat aurrez eta soinean
Lumentxa eta Otoio
guzti hau zer den ezin antzeman
bertan ez ginenok jaio.

2)

Gardatan bera Kurlutxun gora
Arropaindik dinbi-danba
Eskolapetik harri batera
Santa Katalina han da.
Goiko Kaletik Beko Kalera
Talaian buelta emanda
portuan zehar elizapetik
Isuntzan eginik dzanga
kantari gatoz Arranegiko
ardao guztiak edanda.

3)

Aita Pielari aitaren eta
San Pedro Baltzari agur
Kaixo San Joan aspaldikoa!
Zer moduz Aitita Makur?
Islako akerrak adarrak luze
alperrak besoak labur
fraile buruak soinua jota
dantzau hamalau urtxakur
Lekeitiori astinaldi bat
eman behar dautsogu gaur.

4)
Oizen hasita Lekeition da
amaitzen Lea Ibarra
itxasoz harantz mundu zabala
mundutik honantz iparra.
Haize bizitan urak bitsetan
haitzetan duen indarra
halan da mendiz handik datorren
herri zar honen didarra
lumak tximistaz jantziko nitun
jaio banintza oilarra.

5)
Lekeitiarrak kantari onak
direla fama daukate
hemen haizeak ere txistua
jotzen dau aterik ate.
Urte zaharra badoa eta
barria ez da aparte
askatasunik ez bada ere
bizitzea dogu maite
alperrik joko gaitue hiltzat
kantatzen dakigun arte.

SAN PEDRO BALTZA: Edo Kai gaineko San Pedro. Kaleko orma batean dago.


AITA PIELA: Ermita bat eta Kristo bat, «Aita Piela» esaten diotena.

KARRASPIO: Lekeitio ondoko hondartza famatua, Mendexari dagokiona.

AITITA MAKURRA: Lekeitioko hondartzako haitz bat, aitona makur baten itxura duena.

ISLAKO AKERRA: Garai batean aker haundi bat bota omen zuten irlara, gero hainbat kondaira sorrerazirik.

FRAILE BURUA: Irlaren haitzezko punta bat, fraile burua dirudiena eta itxas aldera ematen duena.



78ko San Antolinetan umeen pintura leihaketa kalean.

BERRIAK

1)
Lekeitioko barri
emotera noa
baztarrak astintzeko
badaukat asmoa.
Kantuz azalduko dot
herriko plana
ataskatzen ez bajat
eskuko freno
atara behar dogu
kea ta lainoa.


2)
Lekeitio izanik
hain herri bikaina
zikina pilotzen da
itotzeko aina.
Alkantarilak ere
hortxe dagoz baina
udan denak gainezka,
hori dok azaina!
Ez da gozoa hortik
datorren usaina.

3)
Hirurogei urtetan
bardin dago ia
turistekin batera
hasten da emoaia.
Ur baltza eta beste
jenero marroia
arratoiekin egin
leike orfeoia
osasuna zaintzeko
hori dok sasoia.

4)
Portuan pote eta
ol zarrak ugari
ganora onik ez da
aspaldi agiri.
Furgoneta bat ere
gerrako martiri
abuztuan jausita
hor dabil igeri
koartelekoek ere
ez dabe nai hori.

5)
Alfa fabrikan ere
bada zer ikusi
arrain ustela eta
kiratsa nagusi.
Laster inguru hortan
nai dauenak bizi
sudurra beharko dau
hari doblez josi
bestela plastikuzko
hesteak erosi.

6)
Jentea bera ere
ez da hain garbia
patio edo pondak
testigu hor dia.
Han hemen satsez bete
leiteke burdia
arratoiek egiten
ei dabe goardia
dena egia ez bada
bai beintzat erdia.



Furgoneta bat ere gerrako martiri
abuztuan jausita hor dabil igeri.

7)
Simaur boltsak hor dabiz
kalean korrika
batzutan ostikoka
bestetan harrika.
Jente edo arratoi
portu naiz fabrika
penagarri litzake
pentsatzen jarrita
zikinak jan beharra
hain herri polita.

8)
Herri hontan plaza bat
eta udan bapez
beterik tiobiboz
autoz eta trastez.
Lekeitiar jentea
bizi daiten bakez
bai eta elizako
santu-santen partez
hurrengoan Kabauan
bera joan beitez.

9)
Kale izenak ere
Jesus ene Jainko!
Horra *Plaza España*
Mola eta *Franco*.
Conquista de Sevilla
Batalla de Otranto
bakarrik behar gendun
Navas de Lepanto
Lekeitio uzteko
esferatik kanpo.

10)
Munduan famatua
Hostal Emperatriz
hasita bertan bera
obrak hainbat aldiz.
Milioiak eroanda
planoak ekarriz
turismoko jantxakur
guztiak hor dabiz
geratuko litzakez
nire botoz balitz.

11)
Tabernak zientu erdi,
hori dok polbora!
Soziedadeak ere
dozenatik gora.
Txori txikirik bada
etxetik kanpora
demokrazi hau heltzen
bajaku inora
hemengo alkatea
ardoa izango da.

12)
Herri honek badauka
zurrutero fama
eztarri bakotxean
esponjatzar bana.
Itxaso zabaleko
ur gazia, ama,
gatz ordez balitz ardo
gustua daukana
Lekeition aspaldi
lehortu zen dana.

13)
Hamabi bertso barri
azkena hamairu
oraintxe jango neuke
pare bat bixigu.
San Silbestrek urtea
ia irauli du
non ostu leike hemen
kolko bete diru?
Dagoenean zelan
bizi badakigu.



Haitz honi *Aitita Makurra* deritza. Gero eta maku-
rrago omen doa.

KABAUA: Haitz bitarte edo leihoa bezalako bat, altura haunditik itxasora
- ematen duena. Trasteak eta zaborreriak handik botatzen dituzte. Esaera
zaharra: «Kabauan behera burua bota».

KOARTELEKOEK: Goardia zibilek, alegia, beste gauza batzutarako be-
rehalaxe mugitzen baziren ere.

TXORI TXIKIRIK: Txakur txikiari alderdi horretan «txori txikia» esaten
zaio.

7)

Sinagoga baltzak...
kalor...
batzutan...
laster munduko txapeldun.

BERRIAGOAK

1)

Inor balego Kirol Etxean
notizi freskoen lagun
Isuntza eta Karraspiotik
jiratxo bat egin daigun.
Futbola ei da jenterik geien
batzen dauena gaur egun
Ondarrutarririk etorri ezik
laster munduko txapeldun.

2)

Txiki ta handi zazpireun lagun
hogeita hamabost ekipo
batez bestean zazpireun buru
mila ta laureun ostiko.
Batzutan tente eta sarritan
hondarrean belauniko
noiz demonio dau Lekeitiok
futbol zelai bat eukiko?

3)

Izenak ere bein entzuteko
errespetokoak dagoz
hor dira *Aka* ta *Parabellum*
Nueve Largo ta *Goma-2*.
Bakarrik falta zen fitxatzea
inoiz honantza badatoz
Fraga ta Villa botilero ta
txilibitero Joan Karlos.

4)

Isuntza talde bat ere bada
kirolerako aukeran
eunetik gora lagun hor dabil
arraunez edo karreran.
Martxa horretan herri guztia
ea korrika hasten dan
atzo *Aitita Makurra* ere
saltoka ikusi neban.

5)

Niri arraunik eta futbolic
amak esetz esan eustan
datorren udan beste plantxo bat
daukat isileko listan.
Eguna Valdes jaunen yatean
eta gaua *Club de Pescan*
lagun batekin esaidazue
deporte polita eztan.

6)


Lekeitioko anbulantzia
ez ei da hain segurua
zertarako da nork erabili
ez daukan tramankulua?
Egia baden ez dakit baina
entzun dot zurrumurrua
txofer ipini behar dabela
islako fraile burua.

7)

Islako aker zaharrak eta
fraile buru alargunak
lengo untxien ordezt gaur daukez
heuren pareko lagunak.
Okabioren auntzak saltari
bibote ta adardunak
burua hutsik ez dauka hoiek
han gobernatzan ditunak.

8)

Egun batean herri guztia
joseuska hanka jokoan
marrazu zar bat itxas ertzean
tiburoia zelakoan.
Gazte denpora pasa ondoren
Itxaso Kantabrikoan
hementxe bota eban arima
atseden katolikoan.



Islako akerrak baleki ahuntz hauek bertan dituela.


9) Herri hau ei da medizinarik
geien gastatzen dauena
izan ezean antisorgailu
edo jenero horrena.
Asunto hortan firma ta guzti
dago botikan ordena
gero amamak hustu daiala
beterik badator trena.

10) Lekeitioko ezkontza askotan
ez da puntu hori falta
jentea asko bizkortu dela
badabil naiko zarata.
Sakristiara heltzen ei dira
firmak aurretik botata
ez egin barre zeu be akaso
deskoidatuko zara-ta.

11) Kanta zaharrak dinon moduan
bada kale bat Bergara
andrak errondan gauean eta
egunez mila algara.
Hasarratutzen diren orduan
balkoiek ere dardara
botilazo bat hartuko dozu
tar-tean sartzen bazara.

12) Batzuk uste dot hasi direla
erlojuari begira
denak aspertu baino lenago
amaitzea komeni da.
Bertso barriok lekeitiarren
pozgarri izan badira
gustora salto egingo dogu
urte zarretik barrira.

KIROL ETXEA: Lekeitioko pilotalekuaren izena, jaialdi hau egin zena.
ONDARRUTARRIK: Ondarrutarrek garai hartan egurra ematen omen
zieten lekeitiarrei futbolean.
ISUNTZA: Lekeitioko irlaren izena.
MARRAZUA: Tiburoia.
BOTIKAN ORDENA: Medikua-ren fir-marik gabe ez omen zuten ematen.



Lekeitioko kaia San Antolinetan.

ARRANTZALE BAT

1)

Pozez eta tristuraz
bihotza betea
kantari natorkizu
oi ene maitea.
Gau baterako beintzat
nai neuke bakea
ireki egidazu
etxeko atea.

2)


Ni naiz arrantzale bat
korri eta korri
buelta emon dautsona
Venezuela horri.
Larri joanda zorrez
beterik etorri
ez gara inoiz egon
aurten bezain gorri.

3)

Europar ginen oso
estimatuak len
orain barriz hor konpon
eta *Jesus Amen*.
Madrilen ez dakigu
zer egin behar den
esaidazu maitea
nora joango garen.

4)

Zelan ez naz egongo
maitea, hasarre?
Ez dakigu zer egin
negar ala barre.
Egiten ez badabe
iso edo arre
untziei su emonda
itxasoa erre.



Ni naiz arrantzale bat korri eta korri
buelta emon dautsona **Venezuela** horri.

5)

Ni naz lekeitiar bat
arrain biluzia
Kaxarrankan jαιο ta
uretan hazia.
Nire maitea barriz
marea bizia
kresal usaina eta
irrintzi gazia.

6)

Badoa urte zarra
badator barria
esperantzaren zaldi
gainean jarria.
Hobea bada bedi
ondo etorria
ur freskoa emongo
dauen iturria.

7)
Herri hau kanpotarrez
betetzen da udan
nor ta zer garen ere
egoten naiz dudan.
Negurik ez balego
urtearen mugan
ez dakit maitea non
maiteko zintudan.

8)
Idiak arnasa eta
astoak arrantza
euskaldunen dotea
beti esperantza.
Hilak lurpean eta
izarrak gorantza
noiz behar dogu libre
kanta eta dantza?

9)
Luzea da urteko
egun errezkada
nork esan dau guretzat
lekurik ez dala?
Lekeitioko islan
besterik ez bada
libre izango gara
gu eta euskara.

10)
Urte zarrak berrogei
eta hamabi aste
barriak izango dau
beste horrenbeste.
Bihar gauean libre
zagozela uste
eta lurra jo arte
diberti zaitetzte.

VENEZUELA: Urte hartan nahiko zeresan eman zuen Venezuelaldi hark.
Untzi batzuk hara joan ziren, ustez kontratu onez, baina ez zen kanpaina
ederra izan.

KAXARRANKA: Lekeitioko dantza famatua, bizkar gaineko kaxa gainean
egiten dena.

IDIAK ARNASA: Gabon eskeko koplaren hasiera.



Masta puntakoa. Erdiraino heltzea ere ez da gutxi
izaten.

GOIHERRI

1979. Urtarrila. 26



Lazkao. Ederraren aurrean isilik.

LAZKAOKO JAIALDIA

1)

Euskal Herrian famatua da
Gipuzkoako Goierri
Bilbotik eta Baionaraino
badakite zuen berri.
Bizkaiko haize berria kantuz
nai genizuen ekarri
zuek eta guk eta zazpiek
esku emanik elkarri
odeiak bota ditzagun eta
eguzkia libre jarri.

2)

Txindoki edo Nañarri goren
Usurbe ta Aizkoate
Esparruk eta Gazteluk ere
zer kontatu badaukate.
Murumendiko sorginkumeek
abisu eman didate
Bizkaiko Anboton dutela ama
nai banu atso bat maite
geroztik lorik ezin dut hartu
hura harrapatu arte.

3)

Oria ibaia Goherrin zehar
beti zahar beti gazte
Aizkorrin irten eta berakin
itxasoan sar zaitezte.
Gaur hain zikina baina lenago
horrela zenik ez uste
hainbeste mila poilizi dator
kontrolak ere hainbeste
hobe erreka hori garbitzen
ipiniko balituzte.

4)

Mendiak eta errekek ziren
Euskal Herriko bizitza
ibarraldean nekazaritza
eta goietan artzaintza.
Gaur hiri eta lantegietan
buruz bera hor gabiltza
makina handi baten pieza
txiki bat dela bakoitza
pieza hoietan bat falta zaigu
askatasunaren giltza.


5)

Molde berrian gatoz kantari
ilusioz alajaina
zuek gustora uztea da guk
naien genuken ordaina.
Musika tresnak lagun harturik
gogoia badugu baina
zail izango da erantzutea
Goherririk merezi aina
ez gaitzazue harrika bota
iritxiko ez bagina

GOIHERRIKO HERRIAK

1)
Bertso berri batzutan
noa ematera
nola den Goierriko
jendeen tankera.
Hogei herri badira
gutxi gora bera
nai nituzkenak orain
dantzara atera
ez dakiten guztiak
daitezen entera.

2)
Zegamatik hasita
Zumalakarregi
han hil eta elizan
zuten gero jarri.
Cara al solen musika
entzuna hain sarri
hangoa da eskerrak
Telleria horri
belerik behar bada
bertara etorri.




Zegama.

3)
Seguran zopa jana
eliza galanta
seguru dago dena
koartel bat bada ta.
Irrati famatuan
dantza eta kanta
Don Zesareok dauka
talentu aparta
frontoia estaltzea
baizik ez da falta.

4)
Lenago burdin minak
famatu Zerainen
gaur bolariak dira
Goierriko gailen.
Erreferendunean
zertan ote ziren
herri hortan omen zen
botorik gutxien
xaguek ez dute nai
katurik Madrilen.

5)
Mutiloan izotza
ziguten eskeini
baina ai zer leku ta
ermita Lierni.
Putzu baten plan hoiek
penatu naute ni
txerrigorriek ezin
dutena konpreni
lurrak irents dezala
ez bada komeni.


6)
Ormaiztegi lantegiz
betetzen da ari
zubi bat Eiffel bera
zuena gidari.
Orain *harrikariek*
bildurra ugari
herria presapean
gelditu badadi
ito nai ez duenak
ikasi igari.



Ormaiztegiko zubi famatua, inoiz trena mareaturik
erori zena.

7) Idiazabalen kontuz ibili erbiak
 gazta ederrak janda dabiltz *azeriak*.
 Amerikano jaunak dituzu erdiak
 besteak mutilzarrak ai zer komeriak
 on egin dezaiela San Blasen feriak.

8) *Gabirin makilari* guztiak batera
 Estandako presari alto ematera.
 Hainbat baserri eta lur eder urpera
 len lainotsua bazen kontuak atera
 arnasa nola hartu beharko ote da.



Estandako presak estali behar zituen lurrak.

9) Olaberrin nagusi
 Aristrainen denda
 Lopez Bravoren lagun
 zer nolako prenda.
 Goiko herri polita
 dezadan izenda
 ezkonberrien lehen
 habia omen da
 aproba ezazue
 Harrietan janda.

10) San Martinen argira
 noa Beasaina
 ura eskas omen da
 ta bera zikina.
 Urbanismoko saltsa
 ai ama birjiña
bareak itotzeko
 apropos egina
 zer izango ote zen
 satorrak bagina.

11) Beasainek baditu
 lau herri beragan
 Garinen *otamotzak*
 mendiaren maldan.
 Hara Astigarraga
 eta Arriaran
 Matxinbenta Jainkoak
 daki nongoa dan
 onena joan eta
 arkume bana jan.

12) Merkatari herria
azen Ordizia
 azokara biltzen du
 Goiherri guzia.
 Feria famatuak
 galduz doaz ia
 baina hor gelditzen da
 koartel nagusia
 ganadu armatuen
 ikuilu bizia.

13) Lazkaon komenturik
 ederrenak daude
 fraile ta monja bapo
 konpontzen dirade.
 Markes bat ere bada
 Jainkoaren pare
 hogeita hamazortzi
 tituluren jabe
antzar hauek ez daude
 defentsore gabe.

14) Ataunek eman digu
 apaizik ugari
 Barandiaran horra
 denen buruzagi.
 Kontrabandoan ziren
 len jentilak ari
 gero handik ETARA
otsoak gudari
 kasu hoiek ez dira
 dozenan hamabi.

15)

Egin zuten lekuan
hantxe dago Gaintza
ez da epela, jaunak,
goizaldeko intza.
Dela nekazaritza
naiz dela artzaintza
diru freskorik bada
ederki dabilta
malkoak jorrazteko
ez baita bizitza.

16)

Zaldibin omen dira
amorrai finenak
Bilorek erre gabe
salbatzen direnak.
Gazta eta mondejo
ardi zurienak
arkakusoak berriz
horzka dakitenak
batzuk hemen daude ta
gorde ondo bernak.

17)

Gipuzkoan herririk
txikien Arama
zihur ez dakit baina
hala dauka fama.
Politean dirudi
Goiherriko dama
independentziaren
odola darama
nork lezan izan hango
aita eta ama.



Pedro Jose Iraola Jauregi, Zaldi-
biko *arkakuso* bertsolaria, orain-
go Iraolatarren aita.

18)

Harro egon liteke
Goiherrin Altzaga
arterik handiena
txakurren asaba.
Goian Altzagarate
antena bat bada
bonba batek zuena
hankaz gora laga
ez nuke buruan nai
halako zartada.

19)

Txindokik hegoatik
pixka bat gordeta
Goiherriko balkoia
da Abaltzizketa.
Gainez gain joan eta
Larraitzen bi buelta
haize freskoak dizu
garbitzen kopeta
hango edertasuna
ez da berriketa.

20)

Itsasondon omen da
gezurra garesti
ijitoak dabilta
seinale ta guzti.
Lengo pizarreriko
harrobiak noski
ezkutu lanerako
ez zetozen gaizki
hango misterioak
Huartek dakizki.

21)

Legorretan *Jainkoa*
zenaren lurrean
pikuak heltzen dira
ilunabarrean.
Gero ihi ta uhu
izarren aurrean
eroriko bazina
bide bazterrean
Kortatuk eramango
zaitu bizkarrean.

22)

Akabatzeroa noa
Goiherriko jira
inork pentsa ez dezan
naizela kirkira.
Kanpaiak jo ditugu
herritik herrira
entzundako guztiaz
ez da zertan fida
ez da gutxi laurdenak
egiak badira.

BELEAK: Zegamarren goitizena.

ZOPA JANA: Segurarrek «zopajaleak» goitizena dute.

XAGUEK: Zeraindarren goitizena.

MUTILOAN IZOTZA: Herria zuloan baitago.

PUTZU BATEN: Presa bat egitekotan ziren hor.

TXERRIGORRIAK: Mutiloarren goitizena.

AZERIAK: Idiazabaldarren goitizena.

SAN BLASEN FERIAK: Idiazabalgo festa haundiak.

HARRIKARIAK: Ormaiztegitarren goitizena.

HERRIA PRESAPEAN: Goian, Gabirin, Estandako presa egiteko planak
ziren.

MAKILARIAK: Gabiritarren goitizena.

HARRIETAN: Olaberriko jatetxe famatua.



Ordizia. Azokara biltzen du **Goiherri** guzia.

BAREAK: Beasaindarren goitizena.
OTAMOTZAK: Garindarren goitizena.
ARKUME BANA: Matxinbentan arkume janak maiz omen dira.
AZAK: Ordiziarren goitizena.
ANTZARRAK: Lazkaotarren goitizena.
OTSOAK: Ataandarren goitizena.
BILORE: Erreka kutsatzen omen duen lantegia.
ARKAKUSOAK: Zaldibitarren goitizena.
TXAKURRAK: Altzagarren goitizena.
IJITOAK: Itsasondotarren goitizena.
HUARTEK DAKIZKI: Huarte konstruktorea harrobi horretan sekuestraturik luzaro egona.
JAINKOA: Legorretar famatu baten goitizena.
PIKUAK: Legorretarren goitizena.
KORTATUK: Beste legorretar famatu bat, oinez ibiltzeko zaletasun handia duena.

1) ...
 2) ...
 3) ...
 4) ...

BERTSO BERRIEN GURDIAN

- | | |
|--|---|
| <p>1)
 Bertso berrien gurdi zarrean
 noa Goiherrin barrena
 bildu nai nuke lur hauetako
 zenbait kezka eta pena.
 Egia bada txori batzuek
 txiokatu didatena
 sobre dagona asko izanik
 ez da gutxi falta dena.</p> | <p>3)
 Lenbizi plana Zumarragan zen
 eskualdeka ondoren
 hala Goiherrin bat jartzekotan
 Ordizi onena omen.
 Oraindik ez da pulamenturik
 ikusten ez han ez hemen
 Jainkoak daki horko miloiak
 zenbat aldiz janak dauden.</p> |
| <p>2)
 Erresidentzi kontuan sartu
 nai nuke lehen eztena
 beti planetan dagona eta
 sekula hasten ez dena.
 Noiz eta nola izango ote da
 proiektu horren azkena
 horra ipuin bat pazientzia
 denak agor lezazkena.</p> | <p>4)
 Pentsa non dagon Donosti eta
 hori al da gizalege?
 Haraino heldu behar duena
 errukarri alafede.
 Askok bidean galdu bizia
 gero apaizak <i>miserere</i>
 ez al da, jaunak, terrorismoa
 horrela hiltzea ere?</p> |

5)
Goiherrin bada beste gauza bat
misterioso aparta
hainbeste mendi eta erreka
izan eta ura falta.
Presa planetan dabilta orain
hutsak zuzendu beharta
zenbait lepotan zintzilik bada
alferrik hainbat gorbata.

6)
Aurrerapena behar da baina
tranparik ez dugu maite
presarik gabe ez al liteke
inguru hau urez bete?
Buru txikien kontua ala
lapur handiena ote?
Biak batera baldin badira
esku onetan zaudete.

7)
Eskerrak tren bat badaukagula
egoskor bezain abila
hiru ordutan igoal batez
gero hutsik bagoi pila.
Han edo hemen gelditzen bada
zoaz perretxiko bila
talgo jauntxoa pasatu arte
hura izorra dadila.


8)
Kamino estu horrek ere gaur
zerbait merezi ez al du?
Goiherrin zehar doanak badu
korajea non azaldu.
Pazientzia edo bizia
nai ez baduzu hor galdu
eros ezazu asto bat eta
gurpildun guztiak saldu.

9)
Bosteun bat gazte omen dabilta
profesio eskolara
bukatu eta lanposturik ez
hori duk amets galdara.
Fundizio ta peoi lanetan
Goiherri aurrena bada
zeruan eta linboan ere
hala izango al gara?

10)
Joanetorria biribiltzeko
Lazkaon bada izen bat
urrez jantzirik palazioan
sartzen ikusi nuen bart.
Han eta hemen lur eta etxe
berak ote daki zenbat?
Tituluetan beintzat badauka
nik hortzak ditudan hainbat.

11)
Infantadoko jauna omen da
markes, konde eta duke
Ataungo baso geienak bere
itzal sakratua dute.
Goiherrik pena handirik gabe
botoa emango luke
palazio ta guzti Txindokin
artzain jarriko balute.

12)
Hamabigarren bertso berrian
gelditzen da gurdi zarra
itzainak ongi baitaki dela
hurrena zenbaki txarra.
Jira honetan zenbait gauzari
moztu diogu bizarra
bere argira itzuli dadin
Goiherriko artizarra.



Goiherriko Lanbide Eskola.

JAITOKIAK

- 1) Aterik ate goaz limosnaren eske elizara sartuko garenik ez uste. Inor balego triste zahar edo gazte jira hontan gurekin etorri zaitezte.
- 2) Famatua omen da Urretxuko *Golden* goiherritarrek hori badakite non den. Hesteak berotuta al dena ondoren oilarrak jotzen die etxera baino len.
- 3) Itzalpe gazi-gozo Beasaingo *Sunday* noiznai jendez betea *Oliver* ere bai. Begiak zorrotz eta belarriak ernai hoietan sartzen denak baraurik ez du nai.
- 4) *Zigor* eta *Tulipan* Ordizian dira sartzeko pronto eta nekez erretira. Musika eta dantza jira eta bira sakelak hustu eta goazen ilargira.

5) *Olaberriko Fami* hala da zarata gasolina aitzakiz asteko soldata. Konbustible bat hartu bestea lagata nork eman bada ez da nork eraman falta.

6) Protestak sortu ziren hura ez zen festa manifestazioan andre eta neska. Etxean krisisa ta hor hainbat lan extra oilar kristautenzako martxa ona ezta.

7) Pasatu dugu toki hoien errebista nonai eror liteke gaueko tximista. Baten bat aztu bazait Bizkaikoa naiz-ta Lazkaoko fraileek omen dute lista.

8) Lenago elizetan geunden belauniko orain zulo hoietan behar dugu ito. Besterik ezin bada mozkortu ta kito erortzen dena ez da hain errez jaikiko.

9) Zenbait jenderen jaia ardoz egostea eta suerte pixkat daukanak bestea. Hotzean ikusita ez al da tristea hortarako lanean sartzea astea?

10) Mandamentuak hamar bertso hauek berdin gautxorientzat bada aukera *Goiherrin*. Bukatu nai dut inor aspertu ez dedin niregatik bakoitzak al duena egin.

GASOLINA AITZAKIZ: Gasolindegi bat dago jaitokia jotzen.

GOIHERRIKO ARNASA

1)
Gipuzkoan Goierri
lurralde aparta
ateratzen duena
mila zalaparta.
Urruti iristen da
hemengo txinparta
Lazkaora heldu naiz
su hori beharta.

2)
Suarekin nai nuke
berotu bihotza
zurekin, oi maitea
kendu ene hotza.
Txindokitik entzun dut
haizearen hotsa
eta iruditu zait
zerorren abotsa.

3)
Herri honen odola
sua daramana
haizearen abotsa
euskarak emana.
Aralartik, maitea,
nator zuregana
esaidazu non diren
aita eta ama.

4)
Gure aita gaxoa
gerran zuten hila
gero amak hartu zun
aitaren fusila.
Ni naiz bala galdu bat
amaren mutila
oraindik dabilena
etxearen bila.

5)
Aizkorritik Oria
doa Oriora
itxaso zabalean
boga eta boga.
Euria goitik bera
kea beti gora
iritxiko al gara
maitea, inora?

6)
Noiz iritxiko garen
al didazu galde?
Ilusiorik bada
iritxiak gaude.
Naizta izan, maitea,
munduaren jabe
alferrik bizi zara
ilusio gabe.

7)
Elurra da zuria
trumoi gaua beltza
urdina da zuk eman
didazun ametsa.
Lotuko zaitudanik
ez, maitea, pentsa
askatasuna baitzen
Adanen saihetsa.

8)
Askatasunak ez du
peajerik behar
daukazuna erabil
falta dena ekar.
Nai al duzu, maitea,
hortan bildu elkar
biok joan gaitezen
lainoetan zehar?

9)
Goierriko haizea
da nire maitea
haize horrekin daukat
arnasa betea.
Euskal Herri gureak
maite du bakea
Goierriko arnasa
libre izatea.

BUSTURIA

1979. Otsaila. 3



Busturiko itsasadarra, Gernikaraino sartzen dena.

HAUTSAK ASTINTZEN

1)

Kantari nator hemen
jaiak direlako
bide batez hauts batzuk
astindu beharko.

San Blas aukeratu zen
patroi Axperako
zeruan eraginik
geratzen bajako
Busturin zer konpondu
ez ei dau faltako.

2)

Herri hontako mapan
duda bat sortu da
Sukarrietan zein den
Busturiko muga.

Beraneanteentzat
zerua da uda
Busturitar izenik
ez ei dabe gura
emoiozue denei
asun baltzen ura.

3)

Zuen erro edo
itxasadarrean
nago orain musturra
sartu beharrean.

Astilleros Murueta
beti hausnarrean
zer plan dabilen hoi
kolko lapurrean
esan behar dot jente
guztien aurrean.

4)

Dragatzeko atxakiz
jo dabe tronpeta
disimuloz marismak
hondarrez beteta

Ondasun komunalak
harrapatu eta
konstruzioz jantziko
daskue erreka
hori ez bada ea
zer den lapurreta.

5)
Urez ere badira
istilu larriak
bateko granja dela
besteko txarriak.
Ur horrekin garbitzen
diren belarriak
izan beharko dabe
azaren horriak
edan baino hoba da
ito garriak.

6)
Saneamentua ere
gozoa benetan
erregalu politik
dagoz bazterretan.
Esaera den legez
einda itxi bertan
deskoidatuta jausten
bazara errekan
lurrin ederra dozu
eroango praktetan.


7)
Maisu asko egonik
enplegurik gabe
Altamirako eskolan
kontuak dirade.
Umeak pilatuta
eskailuen pare
egingo ez badira
zentzunaren jabe
drogan beintzat ederto
ikasiko dabe.

8)
Busturin San Kristobal
kamino ederra
aspaldion emon dau
makina bat gerra.
Trafikozain jarriko
bagendu akerra
akaso konponduko
litzake okerra
goian dabilen jente
lapur ta alperra.

9)
Manifestapen eta
hainbeste aproba
egin eta alperrik
joan da denpora.
Seinale triste batzuk
jarri ta kanpora
zuzentzen ez bada hor
dabilen ganora
hatxurrekin bidera
urten beharko da.

10)
Gizon handi bat bada
Gondra jauna berau
maniatzen dituna
herri ta enparau.
Sei eta sei hamabi
eta bi hamalau
hobe leuke besterik
egingo ez badau
Mariako Torrea
konponduko baleu.

11)
Hamaikagarrenean
hauze da azkena
hamabigarrenari
azeri buztena.
Burua batena ta
txapela bestena
egia bada niri
kontatu daustena
Busturi hontan bada
non sartu eztena.



Mariako dorrea. Erloju hori andreak gizonari ipini
zion, tabernatik etxera ordua ahazturik berandu-
tzen omen baitzen.

BIZIAK ETA HILAK

1)
Eskolan gagoz eta
ez gagoz elizan
ez daukat zertan hemen
sermoilari izan.
Kontu zelebren batzuk
behar ditut esan
Busturitar guztiak
entera daitezaz.

2)
Herri hontan badira
hirulau notizi
andreak egin direla
tabernan nagusi.
Gura dauenak karta
jokoan ikasi
Felipenera joanda
albotik ikusi.

3)
Briskalari onenen
iluntzea han da
hamarrak alderarte
saltsa ta demanda.
Kafesne bana edo
zeozer edanda
kinua ta guzurra
dinbi eta danba.

4)
Gizonentzat tabernan
lekurik ez ei da
egotekotan ere
albotik begira.
Hango berba bakotxa
pezetan balira
lapurretan etorri
leike Busturira.

5)
Gizartetxean ere
izaten da plana
sarteneko gozoa
eta talo jana.
Gero txokolatea
katilu on bana
holan dagozenez
zoaz hoiengana.

6)
Beste gauza bat ere
badauka herriak
elizan gizon gitxi
eta komediak.
Alargun ete diren
andrarik erdiak
naiko tormentu dauka
abade berriak.

7)
Neu be abade nintzen
eta katoliku
kontseilu on bat ez da
izango delitu.
Eliza ezingo da
gizonez kabitu
altaran asto probak
ipintzen baditu.


8)
Gizonak asto proban
eta andrak briskan
deskoidatzen bazara
alkarren konkistan.
Ez dago zertan dena
esan denen bistan
baten batek gibela
atara ez daistan.

9)
Boto paperik hemen
behar baneru bete
jarriko neuke Anes
herriko alkate.
Sekretario barriz
Joanito Porrote
ez da besterik behar
bizi diren arte.

10)
Jaiak animatzeko
Krispin eta Ale
Poli txistularia
dabil kalez kale.
Gauetik goizerarte
ekin eta dale
aldrebes dabilena
arteztuko dabe.

11)
 Bizientzat soinua
 hilentzat negarra
 Kukua biztutzea
 falta den bakarra.
 Tiburtzio medikua
 eta Azkonarra
 ez litzake izango
 erromeri txarra.

12)
 Hasi naz eta poizbait
 behar dot amaitu
 begira dagon inor
 ez daiten gogaitu.
 Aupa Mari Matxalen
 gora Pello Kaiku
 datorren astelenak
 mantsotuko gaitu.



Busturin astoprobazale haundiak
 dira.

MARI MATXALEN: «Matxalen Busturiko» deritzan kanta edo koplak fatutuko emakumea. Emakume ederra bezain libreka omen zen, kondairara pasaturik.

BUSTURIKO AUZOAK

1)
 Bertso berri batzutan
 behar ditut jaso
 Busturi hontan diren
 bost edo sei auzo.
 Asto gainean noa
 arre eta iso
 errekarik erreka
 ta basorik baso
 zeozer ikasiko
 dozue akaso.


2)
 San Blasak direla ta
 banator Axpera
 abarkak erantzita
 zapatak jaztera.
 Esan daustenez etxe
 batetik bestera
 Busturiko zentrua
 hau dela uste da
 ez noa ni horretan
 musturrik haustera.

3)
 Nik ez dakit Axpe den
 auzo printzipala
 baina entzun dot oilar
 samarrak dirala.
 Esaten dabe hauxe
 dala kapitala
 sinesten ez dauenak
 hori holan dala
 Kurtzion kandela bat
 ixotu daiala.

4)
 San Bartolomen hartu
 dot jipoi galantik
 tabernarik ez dela
 esateagaitik.
 Kontrabandoa dauke
 Tribisko Errotatik
 bein haraino helduta
 falta zenagatik
 Bermio zelan hartu
 ez eben ez dakit.

5)
 Mariako erlojua
 mende bat aurrera
 kanpaiak jotzen ditu
 gitxi gora bera.
 Kanposantua ere
 auzoan gainera
 nai dena esango da
 baina azkenera
 Busturi dena doa
 San Bartolomera.

6)
 San Kristobal Busturin
 landa famatua
 etxe berri piloa
 kolpera sartua.
 Ez balitza kurtzero
 madarikatua
 dantzan jarriko neuke
 etxeko katua
 ta biok teilatuan
 pasa zapatua.



Ermita honetan hamaika kandela erretzen da, mesederen baten eske.

7)
 Auzo hontan ibili
 beharko da argi
 santuak sokorruka
 ei dabiz alkarri.
 Hiru aldendu ziren
 ta besteak larri
 Parisen ei dago bat
 nai bada ekarri
 Geno Bermeokoak
 daki horren barri.

8)
 Paris txiki bat gura
 dauenak ikusi
 mendira igon eta
 han dauka Parisi.
 Arrietan saldu ta
 Busturin erosi
 batek daki non ziren
 jaio eta hazi
 osasuna daukana
 ez da txarto bizi.

9)
 Erdi hutsik hor dagoz
 orain baserriak
 batzuk laster jan behar
 ditu miseriak.
 Goserik eta triste
 dabiz azeriak
 mendietan berantza
 ei datoz erdiak
 zaindu ondo etxalde
 ta oilategiak.

10)
 Lengo lekuan dago
 gaur be Altamira
 inon ezer badago
 ez dagoz begira.
 Busturiko jenderik
 finenak ei dira
 tabernara sartuta
 ezin erretira
 sosik bada ez dira
 joango iturrira.

11)
 Daliaren umea
 lantegi bakarra
 izena Trebol edo
 sekulabedarra.
 Aspaldion ez dabil
 zarata edarra
 barruraino sartu da
 krisisaren harra
 hirulau lapur handi
 mantendu beharra.

12)
 Busturiko Goiherin
 enteratu gara
 gizonak zebizela
 goitarren modara.
 Domekan jatsi eta
 hemen pasa gaba
 astelenean barriz
 zuzen Gernikara
 jaso eskua hemen
 holakorik bada.

13)

Akabatzeroa noa
joan etorria
hamairugarrenean
gorderik harria.
Itxasoa urdina
odola gorria
ezertan mindu badot
zuen belarria
parkatu eta gora
Busturiko herria.

KURTZIO: Kandelak pizturik uzteko ohitura den ermitatxo bat. Kurtzioa, kurtzea, kurutzea edo gurutzea.


TRIBISKO ERROTA: Ia Bermion dagoen, baina Busturikoa den taberna baten izena.

KURTZERO: Hainbeste istripu eragin zuen «kurtzeroa» edo bidagurutzea.

GENO BERMEOKOAK: Izen honetako emakume hauxe ohartu omen zen santuak falta zirela, Bermiorantz pasatzean, beti sartzen baitzen eliza honetan, errezu batzuk egitera.

DURANGO

1979. Otsaila. 16



Durango. Nor ez eder haitz horien babesean?

1)
Urak topatzen ditu
zulo guztiak
Urkiolatik gatoz
bapo bustiak
guztiak
bapo bustiak.

2)
Atsoa bisitatu
dogu Anboton
miru bana jan dogu
eta hor konpon
Anboton
eta hor konpon.

3)
San Antonio dabil
neska zarrekin
ez daki denak lotu
ala zer egin
zarrekin
ala zer egin.

4)
Anbotoko hatxari
ura dario
atsoaren altzoan
San Antonio
dario
San Antonio.

5)
Santua ta atsoa
biak eskutik
aldendu dira baina
nora eztakit
eskutik
nora eztakit.

6)
Ni naz haien umea
eta ezkongai
oraindik ez naiz jaio
baina laster bai
ezkongai
baina laster bai.

ATSOA BISITATU: «Anbotoko atsoa», Bizkai aldean tradizioz gehien duen sorgina.

SAN ANTONIO: Anbotoren azpian Urkiola eta Urkiolan San Antonio.

IBAIZABALEN EZKER - ESKUMA

1)
Elorriotik Zornotzaraino
Garaitik Mañarin gora
Zaldibar eta Atxondon zehar
Berriztik Abadiñora.
Izurtza eta Iorretaren
bitartean Durango da
herri hontara gatoz harturik
bertso barrien haizkora
estutu hortzak nai ez dauenak
ezpalik sartu ahora.

2)
Anboto zorrotz Mugarra eder
Untzilaitzen aurrean Oiz
hara Sabigain odolustua
gerra baltz hartako kainoiz.
Hoi en erdian herri zahar bat
sortua ez dakigu noiz
dakiguna da bizi dela ta
ez dabela hilko inoiz
oilarrarekin egun berria
kantatzen dau goizean goiz.

3)
Ibaizabalen ezker eskuman
dago Durango aldea
kondairan zehar Gerediaga
deritxon merindadea.
Bi aldetako hatx eta mendiz
inguru paregabea
barriro egin gura leukena
bere haizeen jabea
haizeen eta laino gainean
datorren libertadea.

4)
Herririk herri barri kantari
gaur Durango tokatu da
zuek gustora gelditzekotan
besterik ez jat ardura.
Egun hauetan dena mitina
politikoen kontura
hegabeak lez goaz barriro
Madrilgo parlamentura
eiztari haien tiro barruan
sartzerik ez neuke gura.

5)
Aspaldi hontan politikatik
hornitu gara ederto
bildur naz beste arlo guztiak
ez ete diren erreko.
Diskurtso eta holako barik
badaukat ordu beteko
zuen arimak sokan hartuta
aurrekuan ipinteko
txistu soinua joko dautzuet
Suarezek baino hobeto.

IBAIZABAL: Durangaldea zeharkatzen duen ibaia.

DURANGALDEA

- 1)
Kantatu behar ditut
zenbait bertso barri
Durango aldekoen
entretenigarri.
Bat gora bera dira
dozena bat herri
nai neukezanak zuen
bistan dantzan jarri
konforme ez dagonak
hobea ekarri.
- 2)
Abadiñoko San Blas
asko dakiena
alkantarila barik
Muntsaratz geiena.
Deskalabru mortala
horra Matiena
urbanismo kontuan
hori dok krimena
ai zer udaletxea
hor ibili dena.
- 3)
Atxondok batzen ditu
hiru herri anai
Anbotoko atsoak
goitik agur danai.
Pelotariak dira
ernetzen hor nonai
finalak galdu eta
diruak ere bai
irabazi ezker
aste guztian jai.
- 4)
Elorrion badira
jauregi bakanak
txarrena jauntxoena
izatea danak.
Baina zelan oraintsu
garen hor izanak
barri freskoagorik
jakin nai dauanak
errepara daizala
orduan esanak.

5)
Zaldibarren da fama
handiko korala
bai eta gaixoetxe
edo hospitala.
Oker handi bat dauka
ura falta dala
egarri denak hartu
hatxurra ta pala
berak atara edo
agoanta daiala.

6)
Berrizen probak eta
kiloko txuletak
hazurrak kendu eta
apenas libra bat.
Jai eta santu heurek
ez dakie zenbat
markesa Akelarren
ikusi neban bart
haren alabarekin
gau ederra daukat.

7)
Arterik handiena
ei da Garaikoa
bosteun ardi azpian
sartzeko naikoa.
Andrak aurrekulari
gora ostikoa
Oizerantza kontrola
alto, mutikoa!
Ez da errez betetzen
hoien lapikoa.

8)
Hiru torretxe eta
frontoi bat galanta
Izurtzan batez beste
bakotxak bi hanka.
Dantzan hasi daitezen
santu eta santa
organua sartzea
baino ez da falta
hortik gora ez dago
zertan dena kanta.

9)
Kerixa lekua zen
lenago Mañari
gaur kanterako hautsa
ta kea ugari.
Ardoz ondo beratu
ta auntsak saltari
Fragak ere hor ditu
zientu bat gudari
atzerantz zelan egin
esaiok Treintari.

10)
Bilborantza Zornotza
Amorebieta
mejoratzan hasi da
Kartutxok aldeta.
Besteren batzuk ere
ein eben maleta
gelditu zirenetan
badira tarteka
merezita daukenak
buruan taketa.



Arterik haundiena ei da Garaikoa
bosteun ardi azpian sartzeko naikoa.

11)

Iorreta len libre
gaur Durangon parte
uren tratu traidore
bat zela bitarte.
Barriz ere hobeto
legoke aparte
heuren Aita San Migel
dabela alkate
ez errenditu soka
hori eten arte.

12)

Durangarrak azkenez
badaezpadakoak
Zapoerrin naikoa
lan dauka Jainkoak.
Baziren hemen narru
fineko zapoak
Esteban Bilbao eta
haren labakoak
eskerrak ez direla
denak halakoak.

13)

Akabatzero noa
hamairuko sortan
zenbaki txar horrekin
ez bildurtzekotan.
Txarrena bada ere
itxi daigun hortan
hobe neuke banitu
hamairu txal kortan
eta huruna beste
hamairu errotan.



Atzerantz zelan egin esaiok Treintari.

ORAINTSU HOR IZANAK: Elorrioko jaialdia Durangokoa baino lehen-
txoago izan baitzen.
OIZERANTZA KONTROLA: Garai hartan Oizera bidean kontrola zegoen
beti, goiko errepikagailua zaintzeko edo.
ORGANUA SARTZEA: Apaiza organugilea omen baitzen.
TREINTARI: *Treinta* goitizenero mañariar honek Urkiolako aldapa atze-
rantz igoten zuen bizikletan. Aurrerantz baino errezago.
KARTUTXO: Herritik aldendua den Zornotzako alkate baten goitizena.
ZAPOERRI: Inguruko herrietakoek Durangori «Zapoerri» eta durangarrei
«zapoerrikoak» esaten diete. Durangarrek beren buruentzat nahiago dute
beste goitizen bat, oso zabaldua hau ere: «Tronperri» eta «Tronperri-
koak».

HERRI BARRUAN

- 1) Barriro martxan jarri behar dot bertso barrien errota herri hontako barri pixka bat enteraturik nago-ta. *Tronpak* zelaian bueltaka eta *zapok* barriz saltoka dena egia izanik bada harrikada nora bota.
- 2) Ez dakit herri hau tratatuko dodan errespeto faltaz jente jauntxoa ugari dela notiziak heldu jataz. Aspaldi jazten ei ziren hemen sonbreruz eta gorbataz naizta bakarka ez izan gero zorri bat hiltzeko kapaz.
- 3) Durango ez da fama onean sekula izan aurrenen erdal euskaldun sasi narrudun jente pintoa nabarmen. Zorionean horrelakorik ez al da egongo hemen balego ere hor konpon eta santa sekulorun amen.
- 4) Gabon saritzat koartel barria heldu jakun Durangora ia bistatik kendu ezinik hor dabiz bera ta gora. Eltxoak baino ugariago barrura eta kanpora haginak ondo estutu ezik sartuko jakuz ahora.

5) Gasolineran dagozenezan broma guztiak akabo bata-besteaz zaintzen hamabi sozio edo geiago. Horrenbesteko prekauziorik komunerako badago firmatzen daben erregalua ez da merkea izango.

6) Momotxon ere txapel okerren tiro hotsa ugari da ikastolako haurrak ikaraz loa galtzen hasi dira. Hobe leukie entrenatzera joan mozolo mendira estimatuko geunskie bueltan agertuko ez balira.

7) Kale izenak ere *Sanjurjo* eta *Patxiko* berbera *Mola*, *Varela* eta *Davila Pio Dozekin* batera. Herri hau ia general denen plana maiorrez bete da hartu ta bota eizuez denak *Rodesiako* frentera.


8) Udaletxe ta Telefonika edota Iberduero ez dakit zertan baina kaleak tripaz gora egunero. Batek zulo bat zarratzen badau besteak zabaldu gero bakarrik falta dabe alboan pare bat tanbolintero.

9) Hori horrela, neu be hurrengo *San Antonio* jaietan idi pareaz *Ezkurdin* bera hasiko naz goldaketan. Alto botatzen badauste eta zer nabilen edo zertan esango dautset *Amorrorturen* azeri lumak topetan.

10) Bazen Durangon gizartetxe bat aingeru ta demonino hainbeste naste eta azkenez elizak beretzat dino. Karrera hortako barri pixka bat gogoratzen naz ondino negozioan abilagoak dira errezuan baino.

11)
Beste gauza bat harrigarria
bada herri baterako
aiuntamentu honi urtero
dirua sobratzen jako.
Ez bada zuen alkate jauna
listoegia delako
egitekorik egiten ez den
seinaletzat jo beharko.

12)
Bat aitzeko horra San Roke
bidearen miseria
kalea ala auntzen estrata
zer den ez dakie ia.
Gainera hiru kolegio ta
bertan anbulategia
diru sobrante hori ez al da
adar jotze geiegia?



Gerediaga, izen bereko merinalde famatua eman
zuena.

13)
Durangaldea zer den jakinik
erresedentziarik ez
miserableen burdian gabiz
anbulantzi triste batez.
Gatz edo oker txikienean
Bilbora jo behar artez
bide luzea baderitxozu
bertan enterratu zaitez.

14)
Denok dakigu ikastola bat
ez dela jasotzen berez
limosna eske ibili behar
ijito galduen legez.
Udaletxean atea jota
laguntasunik ezebez
sobra daukezan diruok hobe
saguek jango balebez.

15)
Errepassu bat emon dautsogu
gure Durango zarrari
notizi batzuk barregarri ta
beste batzuk negargarri.
Geienok barre egin dozue
eta nik hortik igarri
negarrerako gogo handirik
ez dozuela ekarri.

TRONPAK ZELAIAN: Durangori goitizenez «Tronperri» deritza.
ZAPOAK BARRIZ: Durangoren beste goitzen bat «Zapoerri» da.
AMORRORTU: Frankoren azken denboretan Durangoko alkate zena.

IORRETA

1)
Txikia izatea
ez da pekatua
baina bai zorigaizto
madarikatua.
Hatxen kontran apurtzen
denez olatua
gauak banatzen dausku
egunez batua.

2)
Hor dozu Iorreta
santa sekulako
Durangok iruntsia
txikia zelako.
Entzun dot dagozela
gertu gerrarako
haginak non ezarri
ez jake faltako.

3)
Zergaitik ez dau herri
horrek izan behar
librea izan bazen
mendeetan zehar?
Izan leiteke barriz
gaur ez bada bihar
sei kofradiek hartzen
badozue elkar.

4)
Iorretan sei auz
edo kofradia
Euskadin zazpi uso
bakarra habia.
Batasuna ez bada
gure janaria
bizi garelakoan
gorpu gara ia.

5)
Txikia izatea
ez da hain samina
zazpitan zazpi zati
ez balitz egina.
Horrexek itotzen daust
tristuraz arima
ez neuke biztu gura
hor hilko bagina.

6)
Itxasora urtenda
gizon hainbat batel
zazpi burutarako
zazpi mila txapel.
Triste nago, maitea,
triste eta goibel
labur itxi ditugu
Kain eta Abel.

7)
Lau eta hiru zazpi
bat Bidasoara
erdibitzen gaituen
muga bat han bada.
Zelan ezpata hori
zauritik atara
geure mugak hausteko
gauza ez bagara?

8)
Gozoa da ezitia
gazia kresala
kantatzen dot, maitea
sentitu bezala.
Uste badozu triste
azaldu nazala
Anbotoko atsoak
kotsola zaizala.

9)
Anbotoko atsoa
andra bihozbera
zentzuna ere gure
altura doblera.
Gauzak joango badira
txarretik hobera
erreginatzat hartu
egizue bera.

GURE ATSOA BALENDRIN

1)
Gure atsoa Balendrin
altzoa bete pipermin
dena serio hartzea ez da
izango atsegin.
Inor gogaitu ez dedin
pentsatu dogu zer egin
orain hastera goazen jiran
zatoze gurekin.

2)
Durangon alderik alde
famatua Goienkale
inurriak lez sartu ta urten
denak edanzale.
Zenbat begiratu gabe
barrura dale ta dale
bertan itoak ginen oraingo
balego debalde.

3)
Beste moduko jokoa
hor daukazu *Gogokoa*
Pantera Rosan fresko ibili
behar da kolkoa.
Abaraska gustokoa
txapel okerren txokoa
berdezaleak klase bietan
dauka hor naikoa.

4)
Ezkurdin bera bagoaz
bada hor non egin jolas
gabon *Sagarna*, *Lezuri* eta
Lekker edo *Dallas*.
Ez dago sarritan erraz
hartzen behar beste arnas
demonioen feria dela
esan leike gabaz.

5)
Goizaldetan badago han
nor lagun hartu alboan
ateak nekez itxita gero
pregoia kanpoan.
Hesteak ia ahoan
baina etxera nor joan?
Oilarrak ere ezingo gaitu
gantxoaz eroan.


6)
Goiuri bideko urak
askatzen ditu loturak
bikote askok hantxe entzuten
goizaldeko laurak.
Hor konpon beste ardurak
eta biharko logurak
kendu dautsoguz alkarri aste
beteko hazkurak.



Goiuri bidea, apaizen eta fraileen sermoigaia.

7)
Orozketako errekan
 edo bide baztarretan
 susto galantak izaten dira
 onenean bertan.
 Bedar usaina praketan
 kalanbreak gerri bueltan
 ai zer kontuak iretargiak
 baleki berbetan.

8)
 Gorputzetik bazagoze
 krisisean edo gose
 izpirituak beintzat **Durangon**
 badauka non ase.
 Fraile-abade ez eze
 mojak ere zazpi klase
 naiago neuke bertan entzule
 balego **San Jose**.



Orozketako errekan ardiek ere tentazioak izaten
 omen dituzte.


9)
 Jaitokiak eta salak
 estuak edo zabalak
 zer ete dino **Urkiolako**
 santu kaporalak.
 Tiratzeko dira balak
 eta gizentzeko txalak
 ondo pasatu ihauteriak
 edo karnabalak.



Elgetako arkupea. Baterutz **Bergaraldea**, besterutz
Durangaldea.

BILBO - DEUSTU

1979. Martxoa. 30



Bilboko Alde Zaharra.

1)
Negu baltza joan eta
dator udabarria
kukuaren kantuak dau
gozatzen belarria.
Eguzkiak zabaldurik
bere argi gorria
bizitzaren kantari naz
Bilbora etorria.

2)
Begoñatik Basurtora
Deustu eta Atxuri
bean kale baltzak eta
goian edurra zuri.
Bilbo zarrak erdal herri
barria badirudi
gaur euskaraz latzak entzun
beharko dauskuz guri.

3)
Artxanda ta Pagasarri
jo ditu eguzkiak
hainbat mila gudariren
odol gorritz bustiak.
Mantxa haiek ezin leikez
borratu industriak
gora Bilbo defenditzen
galdu ziren guztiak!

4)
Nik bihotza badot baina
ezin dot Bilbo maite
saldu eban izatea
barriro jantzi arte.
Nai badozu emoiozu
deabruari parte
zure arnasa kea bada
inpernura joan zaite.

5)
Kea baltza bada ere
beti doa gorantza
izarretan dago gure
destinoen balantza.
Nik badaukat Bilbo hila
bizteko esperantza
ea laster jotzen dauskun
herri libreen dantza.

BILBO GUREA

1)
Bertso berri batzuek
Bilbo zahar honi
kantatzea pentsatu
eta banator ni.
Hor hemengo hainbeste
poste ta tximini
behar ditut **Gran Vian**
jauzika ipini
denak lurperatzerik
ez bada komeni.


2)
Mila eta hirureun
garren urtekoa
herria huri egin
zigutenekoa.
Hara gure **Diego**
Lopez Harokoa
ohore berri hori
ekarritakoa
geroztik izan dugu
gerrarik naikoa.

3)
Mila zazpireunera
orain jo dezagun,
Bilbon ziren bakarrik
zazpi mila lagun.
Dozena bat ez beste
guztiak euskaldun
orduan zer zen eta
ai zer den gaur egun
horra historiatik
zer dote dakargun.

4)
Orain dela eun urte
bakarrik hain justu
banan ziren **Abando**
Begoña ta **Deustu**.
Hiruretan euskara
zebilen auresku
gizaldi batek ia
dena erre deusku
ikusi ezik ezin
liteke sinestu.

5)
Mila zortzireun eta
berrogeita hamarra
meategiek hartu
zutenla indarra.
Industriak jo zuen
hemen naiz didarra
hainbeste kanpo jende
ekarri beharra
agur Euskara eta
agur **Bilbo** zarra.

6)
Hara han *Altos Hornos*
sutan harrotua
meak eta burdinak
lantzeko sortua.
Ordukoa da baita
Bilboko portua
agur aire freskoa
ta lengo ortua
huria jaiio eta
ama da gorpua.



Zikin guztien salda bidea, horra **Nerbioi** erreka.

7)

Banco de Bilbao eta *Vizcaya* segidan dena menderatzeko munduratu ziran. Boltsa ere sortu zen diruaren jiran horra **Bilbo** berriko armazoia zein dan jauntxo batzuk jan eta herriak egin lan.

8)

Banku biok sortuta hogeit bat urtera foruak kendu eta hor doaz lurpera. **Gernikako** juntentzat destino berbera euskara maipera ta balkoira erdera bizirik jarraitzea naiko suerte da.

9)

Industriatik datoz berririk geienak batzuk ederrak eta ez gutxi krimenak. Ez uste erru denak diren **Madri**lenak **Bilbotarrak** baitira lapurrik finenak familirik famili etorri direnak.

10)


Ibarra ta **Oriol Sota**, **Goioaga Urkijo**, **Lekerika** eta **Kareaga**. **Aitona** ta **iloba** seme ta alaba hoiexek izan dira **Nerbioiko** plaga barka entzuten norbait artekorik bada.

11)

Urterik urte gatoz hogeita hamaseira triskantza hark badauka gaur ere segida. **Gerra** galduta **Bilbo** betiko sasira baina ez hain betiko oraindik bizi da odolak berritzen du pizteko desira.

12)

Hamabian agurra kantatu nai diot pazientzirik galdu ez dezagun biok. Esandakorik ez du gezurtuko inok hori eta geiago behar zuen **Bilbok** gogorregia bazen koipea emaiok.



Bilbo ez da kea eta kutsadura bakarrik.

HURI ITOGARRIA

1)
Gorri dagoen semaforoa
orain jantziko da berdez
oker dagona zuzen jartzeko
eraz dagona aldrebes.
Nondik hasi ta nondik amaitu
jakiten ez dago errez
Bilbori hautsak kentzera goaz
zatoz gurekin mesedez.

2)
Mundu guztian esaera da
Bilbo dela putzu baltza
goitik begira jarrita dauka
zartagitzar baten antza.
Laino ito bat gainean eta
sarritan zelako hatsa
esaten hasi ezkeru egin
beharko geunke arrantza.

3)
Kea ta hautsa kapela baltza
denok dakigu zergatik
munduan nekez ikusiko da
hain deskalabru galantik.
Surrak kedarrez baltzitu jataz
eta zer egin ez dakit
arnasa hartzen hasi beharko
dogu belarrietatik.

4)
Zikin guztien salda bidea
horra Nerbioi erreka
ez kolore ta ez demonio
arimaraino erreta.
Lenago arrainak ibiltzen ziren
saltari eta barreka
gaur hor datorren ustelkeria
ez da, jaunak, barriketa.

5)
Ibai hortara jausten bazara
trankil ibili zein tekez
akaso lehor urtengo dozu
baina usain barik nekez.
Zikintzen daben fabriketako
patroi denak nire partez
uretari buruz bera sartuta
garbitzen jarriko neukez.

6)
Hauteskundeak pasa ondoren
mejoran jarri gara gu
zorionean atara ditu
Ucedek bi diputadu.
Hoiekin gure Bilbo zikina
nork garbitu badaukagu
bat zaborreru eta bestea
atzeko paperen kargu.

7)
Trafikoa, ai!, pazientzia
prijitzekoa da Bilbon
eulirik ere aparkatzeko
lekurik ez dago inon.
Tiobibo lez ibili eta
geldi ere ezin egon
zientu bat multa ezarri arren
txakur txikirik ez emon.

8)
Kunplitzen hasi beharra daukat
pentsatua mila bidar
kotxea erre eta astoan
etorri behar dot bihar.
Hau ere gruak ostu ez daian
kontuak atara behar
Arenalean solte itxita
doala Gran Vian zehar.

9)
Deskoidatuzten bazara ordu
bete Deustutik zubira
lenago heldu leiteke auto
denak tortugak balira.
Enberazurik nai ez badozu
goizaldean erretira
San Frantziskotik bueltan kaleak
libre egoten ei dira.

10)
Metroa edo lurpeko tren
planak hor dira nonbaiten
lau urte barru Jainkoak daki
buruak zer emon leiken.
Bilbok len daukan fanfarroi fama
guztizkoa izan daiten
ia dauskuen metroa barik
kilometroa ipinten.



Arenala.

11)
Nondik ibili jakin ezker
gogaitzen ez da erreza
badira hainbat eliza eta
bakotxean hamar meza.
Ganaduzale bazara barriz
horra *korta ingelesa*
diruaz edo esku solteaz
urtengo dozu printzesa.

12)
Ganaduetan badabiz beste
batzuek oso brabuak
kalerik kale Martin Villaren
numero edo koadruak.
Hainbeste buelta ez dau emongo
inpernuan deabruak
hoiek bai hartu eta eroan
behar leukezala gruak.

13)
Etxe moltzoak alkar zapaltzen
granjak alkarren alboan
balkoirik balkoi Santurtziraino
leiteke saltoka joan.
Zer bizimodu edo arraio
leike gizonak eroan
bakotxarentzat metro erdi lur
tokatzen ez dan zuloan?

15)
Honenbestekin akabatzea
ez da izango delitu
esaten hasi ezker ezin
erdi esanda gelditu.
Zuetan inork bere hazurrak
Bilbon itxiko baditu
Zoratu barik libratzen denak
badauka naiko meritu.

14)
Huri bat egin beharrekoan
kaiola bat egin eben
deporte edo jolaserako
ea nora joango garen.
Martxa horretan geienok laster
ito behar dogu hemen
banoa neure lengo mendira
burutik hasi baino len.

URTENGO DOZU: Bizkaian URTEEN aditza era transitiboan jokatzeko da,
agian «Urt ein» bikotetik datorrelako.
TXAKUR TXIKIRIK: Bost zentimoko txanpona, baliorik gutxienekoa.
SAN FRANTZISKO: Bilboko putetxe kalerik famatuena.
KORTA INGELESA: Korte Ingelesa. Korta edo gorta hitzak ikuilua edo
abeltegia esan nahi du Bizkaian.

AI BILBO!

1)
Beste mundutik gatoz
kantari Deustura
inpernu baltza ere
deabruz hustu da.
Bizi nai badozue
librean gustora
zabaldtu su txinpartak
eskutik eskura.

2)
Esaidazu, maitea,
norena da Bilbo?
Jango neuke zientu bat
azeri Madrilgo.
Jotzen gaitue baina
ez gaitue hilgo
arnasa behar bada
Artxandara igo.

3)
Nora zatoz, maitea?
Bilbora nator ni
arnasa emotera
huri ito honi.
Hainbeste zulo eta
hainbeste tximini
ez dakit, maitea, non
arima ipini.

4)
Zer egin dozu, Bilbo?
Non dozu euskara?
Zergaitik bota dozu
txarrien askara?
Mende hontan huri hau
euskaldun ezpada
emoidazu, maitea,
hiltzeko ezpada.

5)
Euskal Herrian zazpi
aizta edo anai
Bizkaiko kapitala
zer da, ama, zer ai?
Maitagarri ez baina
beharrezkoa bai
Bilbo barik, maitea,
ez zaitut maite nai.

6)
Bilbo da Euskadiko
lantegi nausia
gizonen bekokitik
urtuta jausia.
Mailutzarrak botatzen
dauen garraisia
geuretzat izatea
geuk irabazia.

7)
Bilbo barik, maitea,
zer da Euskal Herria?
Burdi barik dabilen
idi buztarria.
Buztarri estua ta
akulu larria
huritzat hau botata
behar da barria.

8)
Bilbo da larrosaren
lora ta arantza
handik tristura eta
hortik esperantza.
Esperantza triste
ke baltza gorantza
baina gorago izar
hilezkorren dantza.




Bilboko tranbiak joan ziren eta apenas gehiago
etorriko diren.



Marijaia, Bilboko jaietako erregina nagusia.

9)

Agur, Bilbo gurea!
Zer dinostazu zuk?
Sentitzen neban legez
berba egin dautzut.
Nik bihotz bat ez ezik
lau ere baditut
itotzen ez banozu
maitatuko zaitut.



Sinesten zaila bada ere, **Santiago** egun batez hone-
laxe zegoen **Gran Via**, eguerdiko ordu batetan.

DEUSTU

- 1)
Prakadun edo gonadun
hogeitamar mila lagun
esan daustenez Deustu honetan
badira gaur egun.
Eta zelan kantuz iardun
beharra berton daukagun
Artxandapeko errekalde hau
dantzan jarri daigun.
- 2)
Auzo hau gerra baino len
herria izan genuen
zubiz handiko jauntxoek gero
harrapatu eben.
Orain hau Bilboren aihen
ala aldrebes ete den
Bilbo Deustuko auzoa ei da
eta kontuz hemen.
- 3)
Tomate historikoak
lur honek emonikoak
gaur dena etxez jantzita gorde
zaizala Jainkoak.
Batzuk lujo handikoak
zazpi-zortzi miloikoak
eperdi baltzik ez leike euki
horko lapikoak.
- 4)
Blokeak boga ta boga
milo ederrak kolkora
frontoi bat bazen hementxe eta
bera hankaz gora.
Ia etxetik kanpora
ezin lei urten inora
laster arnasa hartzeko txanda
hartu beharke da.

5)
Deustun horra Erribera
arratoi denen bilera
Artxandan gose baziren hemen
edozer libre da.
Hor dabiz gora ta bera
jango leukie norbera
laster sartuko jatzuz kolkora
edo platerera.


6)
Pizti hoién kaporala
ei da erraldeko txala
marea goian denean amak
goberna daiala.
Ez uste guzurra dala
dabil notizi zabala
Deustun arratoi bakotxak bere
izena daukala.

7)
Ez bakarrik arratoiak
hemen gauza egokiak
badira eundik gora taberna
eta jaitokiak.
Errondari ibilkoiak
solte brageta botoiak
diru freskorik badago ez dau
parkatzen sasoiak.

8)
Hasteko horra *Movidic*
travoltakumes josirik
hara doazen hankak ez dira
egongo geldirik.
Bein gauerdia jausirik
ez dago sano bizirik
kutxilazo bat nai ez badozu
zabiltza isilik.

9)
Ezkondu eta ezkongai
hor daukazue *Holliday*
kantu ta dantza soinu ta putza
goizalderarte jai.
Gero baztartxotan ai-ai!
enberazurik ez dot nai
hortzak alkarri garbitu eta
arimak ere bai.

10)
Hirugarren *New Gardena*
izena beintzat lerdena
pobreentzako ez da izango
hor dabilen trenan.
Bakotxak bere arrena
zaman bera dakarrena
nire aldetik libre da etxe
hortako sartena.



Nork esango luke gaurko **Deustu** honelakoa zenik?

11)

Whiskeria ta pubetan
 aukera ona benetan
 leku batzutan ganadu fina
 mostradore bueltan.
 Hiru lau mila pezetan
 bakotxak badaki zertan
 sakela ere bero badago
 gau guztia bertan

12)

Zapatu naiz domekero
 hiru mila lagun edo
 pasatzen dira Deustutik eta
 denak bero bero.
San Kanuto ta **San Pedro**
 bakotxari zazpi kredo
 neuk gonbidatzen zaituet jai hau
 amaituta gero.


13)

Amaitzera noa lana
 bildurrez hasi dodana
Bilbo ta **Deustuk** merezi eben
 entzun daben dana.
 Guzurra ei da labana
 egia barriz bolkana
 inondik ezer kexarik bada
 bialdu neugana.

ERRALDEKO TXALA: Arratoi izugarria.
SAN KANUTO: Deustuko Unibersitatean San Kanuto zela-ta komediak izan
 ziren, ikasleei goitik zigorrak etortzeraino.
SAN PEDRO: Deustuko auzune bat, San Pedro zaindaritzat duena.

GERNIKAKO BONBAKETA

1979. Apirila. 27



Hauspean gelditu zen hamarretik zortzi.

1)
Gure lehen sorterria
Santimamiñen koba
handik hona pentsa zenbat
leku eta denbora.
Zenbat gauza gertatu den
gure kondairan gora
handiena beharbada
Gernika izango da.

2)
Apirilak hogeita sei
atzo hain juxtu bete
Gernikako hondamenaz
berrogeita bi urte.
Bitartean makina bat
gezur sartu digute
jai hau hilen presentzian
egin behar genuke.

3)
Historiko liburuan
Gernikak zazpi horri
bat kearen beltzez eta
bi odoletan gorri.
Beste laurak malkoz ezin
nituen irakurri
zazpiak bat apurtzera
alemanak etorri.

4)
Oizko mendi bizkarretik
Ereñozar dagola
Bizkargitik Bizkaigane
Gernikako odola.
Lau mendiak testigu ta
epaikari arbola
etor bitez juiziora
Hitler, Franco ta Mola.


5)
Epaiketa hasia da
trumoi adarra jota
nazikume ta fazistei
garbitzeko kokota.
Inork ezer alegatu
beharrrik badu kontra
moztu dezala burua
eta harrika bota.

1)
Hogeita hamazazpi
apirila zena
eguna hogeita sei
eta astelena.
Feria famatua
Bizkaiko gailena
han zen herria eta
inguru geiena
jakin gabe bidean
zetorren krimena.

2)
Tratuan edo kontu
kontari elkari
Aixerrota mendiko
ikurriña larri.
Badatoz! seinalea
goitik iragarri
kanpaiak dilindalan
zoraturik jarri
agur egiozue
Gernika zarrari.

3)
Abioiak Gasteiztik
Bizkaira zetozen
Urkiola, Durango
han ditugu Oizen.
Munitibarren zehar
norantza doazen
Muruetan jiratuz
errekatik zuzen
Gernikako azkena
Berlindik heldu zen

4)
Aurretik zetorrena
zen *alkabuetea*
hurren bonbarderoak
eta atakea.
Kaza bildurgarriek
gero errematea
Gernika guztia zen
sua eta kea
horra nola egina
munduko bakea.



Muruetan jiratuz errekatik zuzen
Gernikaren azkena Berlindik heldu zen.

5)
Bezperan Munitibar
edo Arbazegi
bihamonean bertan
Gernikara segi.
Ez zion danbarradak
barkatzen ezeri
nork pentsatuko zuen
hainbeste miseri
geure hilen gainean
beharra eseri.

6)
Gernika zer zen eta
nola zuten utzi
hauspean gelditu zen
hamarretik zortzi.
Tente zegoen dena
erre eta hautsi
hiru ordutan suak
herria irentsi
ikusit ezin
ziteken sinetsi.

7)
Gordeleku bat bazen
zeozer beharta
denak galdu gordean
lurpera eskapa.
Lekurik zihurrena
izango zela-ta
ez zen handik bizirik
alerik aparta
hilak enterratzeko
ere lurra falta.

8)
Ez dira konformatzen
triskantza hoiekin
martxan doan trenari
ere goitik ekin.
Bagoiak hankaz gora
barrukoak berdin
munduko zartailua
bazen ere Berlin
krimen handiagorik
ez zezaken egin.

9)
Bonba bedeinkatuen
fedezko txartela
eliza bat erreta
bestean koartela.
Mairuek jantzi zuten
santuen txapela
Andre Mari jarri zen
zaldien hotela
gernikarrek derrigor
garbitzen zutela.

10)
Juntetxea ta bere
Arbola alboan
gelditu ziren bonben
sutatik kanpoan.
Ez sinestu suerte
edo milagroan
Allende Salazarren
etxea zegon han
frankotarririk ezin zen
infernura joan.

11)
Gernikako fabrikak
geienak armenak
bonbardeotik libre
gelditu zirenak.
Gero heurentzat izan
lagunik onenak
zehatz eginak ziren
hango plano denak
ondo bete zituzten
Francoren ordenak.

12)
Orain zenbat hil ziren
kontatu ezker
ofizialki ezin
egirik espero.
Dozena bat lenengo
dozena bi gero
azkenez esan zu
berreun lagun edo
hala da zero baten
hutsa ez balego.


13)
Gernikako egia
munduan ezagun
bonbapean hil ziren
bi mila euskaldun.
Haien artean hainbat
gipuzkoar lagun
Loiola batailoia
gogora dezagun
hainbeste andre utzi
zuen a largun.

14)
Berreundik bi milara
non ote zebiltzan
zuloa betetzeko
zerbait behar esan.
Juezeko aktetan
justifiko gisan
bibotzeko atakez
hila ipini zan
halako izurrik
ez da inon izan.



Euzkalerria. Dordjlar (Alemanak)
egazkiriak erailduba
Gernika. ZINOPA. 1937ko jorriallak 86

Eliza bat erreta, bertan koartela. Honi erretzea
tokatu zitzaion.



Juntetxea eta Arbola alboan.

15)
 Kanposantu bat bada
 Gernikan polita
Los Caídos izena
 dotore jarrita.
 Beste denak zulora
 multzoan jaurtita
 nortzuk ez zenbat ziren
 inork ez daki-ta
 hilek hasi beharko
 hezurrez harrika.

16)
 Gernika hauts egina
 hiletan bi mila
 agur Junkerrak eta
 agur apirila.
 Euskaldunok ez goaz
 bengantzaren bila
 baina Frankori eman
 zioten medaila
 bera dagon zuloan
 usteldu dadila.

JUNKERRAK: Abioi alemanen izena.

ZIOTEN MEDAILA: Gernikako udaletxeak, Unzeta alkate zela, Frankori eraman ziona. Gertaera sonatua izan zen.

ZERGATIK ETA NORK

1)
 Gernika zer zen euskaldunentzat
 mundu guztiak badaki
 historiaren bidagurutze
 eta bihotzaren zati.
 Kiskalmen hura bota zionak
 herri errugabe bati
 merezi luke bere larrua
 bere hortzetan ebaki.

2)
 Ez dezatela esan hor zenik
 objetibo militarrik
 ez zegon gerra irabazteko
 Gernika erre beharrik.
 Erreteriko zubia ez zen
 zutik gelditu alferrik
 haiek ekarri zuten asmoa
 masakre hutsa bakarrik.

3)
*Euskal industri denari jota
 sua emango diogu
 baita euskaldunen hiri santua
 ere kiskalduko dugu.*
 Hitz hauek Molak esanak dira
 eta gogoan ditugu
 destino beltzak pizti ederren
 hortzetan utzi gaitu gu.

4)
 Hauxe da lehen bonbardeoa
 hiri zabal baten kontra
 alemanentzat esperientzi
 baten beharra zegon-ta.
 Mundtuan gero hamaika herri
 zuten bonbapera bota
 baina Gernikan jantzia dute
 asesinoen mailota.

5)
Berdin pertsona naiz animalia
ama ta ume erori
bakez zegoen herri bat horra
gorpu hautsien karobi.
Espainiatik zuzen joaniko
aginduz egin zen hori
agindu hori zeinek sinatu
zuen galdetu Frankori.

6)
Hain egin zuten krimen handia
handian ere handika
bildurra zuten hasiko ziren
hilak lurpetik harrika.
Hargatik Francok Salamankatik
segidan zuen publiko
gorriek eta nazionalistek
erre zutela Gernika.

7)
Nola liteke gezurra josi
odol gorrizko ezpataz?
Nola gorri ta nazionalistak
kargatu triskantza hartaz?
Abioi zar bat gelditzen eta
berak ez zekien hegaz
hobe zuten, bai, izan balira
hori egiteko kapaz.

8)
Nortean zehar beste hamaika
bonbardeo izan da ta
guztiak datoz aire ministro
Kindeland jaunak firmata.
Gernikakoa haundiena ta
hain zuzen huraxe falta
pentsatu eta bai dela hori
kasualitate galanta.

9)
Bilbon gertatu ziren ingeles
kazetariei eskerrak
egia zein den zabaltzen hasten
dira Londresko misterrak.
Gero Olassok ere Paristik
astintzen ditu bazterrak
eta gaur horra Franco ta Hitler
historiako gansterrak.

10)
Bilbo irratiz esan zuenez
Gernikan alkate zenak
abioi Francozaleak dira
Ruiz Picassoren zezanak.
Ia historiak juzkatu ditu
okerrak eta zuzenak
monumentu bat behar du Jose
Labauriaren izenak.

11)
Orain bi urte historilari
batzuk datoz Gernikara
Amerikatik Soutword jauna ta
Madrildik Tuñón de Lara.
Valenciako Angel Viñasek
atera zuen algara
Ruiz de Agirre gureak ere
han hustu zuen ganbara.


12)
Horra lau izen txit famatuak
historilari moduan
laurek ederki erakutsirik
egia entzun genduan.
Dударik duen kaskagorrik
gelditzen bada munduan
bala batekin argia sartu
beharko zaio buruan.



Jose Labauria, orduan Gernikako
alkate zena.

ERRENTERIA: Gernikako auzune bat, kaminoak bertan zubia duelarik.

Picassoren «Guernica».



GERNIKA BERRIA

1)
Urte tristea hogei
ta hamazazpia
apirilak hogei ta
seiko arrastia.
Goizean irribarrez
Oiztik eguzkia
iluntzean sartu zen
odolez bustia.

2)
Itxasotik hegoa
lurretik iparra
zerutik datorkigu
ifernuko garra.
Hilen zulora doa
bizien negarra
argia kantatzera
jaiki da oilarra.

3)
Goitik hilak kontatzen
beleak zebiltzen
haritz baten marroan
ezkutatu nintzen.
Gernika zarra erre
berria hasi zen
herri bizi bat ez da
bonbapean hiltzen.

4)
Nora zaude, maitea,
menditik begira?
Begira nago urrun
Gernika berrira.
Ilunabar luzea
gorri ageri da
bizitzaren kanpaiak
izan ote dira?

5)
Nora zoaz, maitea,
arnasa isila?
Kanposantura noa
arimaren bila.
Arnasaren arima
ez da inoiz hila
izar baten lekuan
sortu dira mila.

6)
Entzuten dut gaueko
haizeen txistua
kantatzen dut herri bat
hil eta biztua.
Bizitzaren zuzia
zela oinaztua
kanposantuan egin
nuen aureskua.

7)
Itxas ertzean haitza
basoan haritza
hilobien gainean
loratzen bizitza.
Beroa ta eroa
odolaren bitsa
hilen arimak gure
zainetan dabilta.

8)
Bekokitik lurrera
doan izerdia
lanaren kargaz makur
bizien gerria.
Hoiena izatea
erre zen herria
horixe da, maitea,
Gernika berria.

9)
Hemen bizi gara gu
berri edo zahar
histori joanari
zertan egin negar?
Gaurkoari helduta
zer datorren bihar
goazen mundu berrira
Gernikatik zehar.

URTEURRENAK

1)
Orain dela lau bat urte
gernikar batzuk bitarte
batzorde bat zen sortu ta hasi
lanean jo ta ke.
Hainbat egina daukate
baina ez guztia bete
bonbardeoko zulo guztiak
publikatu arte.

2)
Urteurrenak egiten
hirugarrena da aurten
martxan ipini dugun kate hau
ez liteke eten.
Egi osoak noizbaiten
behar du argira irten
munduak jakin dezan Gernika
nortzuk erre zuten.

3)
Urteurren lenengoa
Franco hilda hurrengoa
biztu balitza moztuko zien
guztiei lepoa.
Batzar bat isilpekoa
eunen bat lagunekoa
bihamoneko prentsan agertu
zen hango kredoa.

4)
Hidalgo otso belarri
suak harturik zen jarri
egunkaritik jakin beharra
batzar haren berri.
Kapitan horrek ezarri
zigun hamaika uztarri
hobe ez balitz hona ez ezik
mundura etorri.

5)
Berrogeita bat urtera
izan genuen aukera
historilari eta testigu
jartzeko batera.
Hamaika gauza atera
dira lurpetik airera
hegaz ikusi dugu Hitlerren
arima berbera.

6)
Ospakizun hartarako
Europa ta Amerikako
dozenaren bat telebisio
ez ziren faltako.
Hemengoa deitutako
bakarra gelditu kanpo
hioen jainkoak dira oraindik
Mola eta Franco.

7)
Laureun bat ume gernikar
zabal kaleetan zehar
pintatu zuten hamaika koadru
paper eta abar.
Batzuk guztia šu ta gar
besteek zezen ta adar
Gernika zeinek erre zuen han
ez zen galde behar.


HIDALGO: Gernikako goardia zibilen kapitana, egur emale famatua, beti-
ko oroitzapena utzi zuena.

8)
Gernikako tragedia
hau da lenengo premia
ofizialki publikatzea
egizko egia.
Historiaren begia
ez al dago irekia?
Gezurra juez ez bada gauzak
argi daude ia.

9)
Atsekabe naiz atsegin
hurrengo bertso honekin
agur Gernika zaharra eta
berriari ekin.
Euskadin bada zer egin
mundu zabalean berdin
berriz halako deskalabrurik
gertatu ez dedin.

BEASAIN

1979. Maiatza. 25



Beasain.

HERRIAN ZEHAR

1)

Beasain honen sorrera
Usurbe maldan behera
auzo batean hasi zen eta
Erauzkin da bera.
Geroztik mila urtera
etxe ta trenez bete da
beste milatan zer izango den
kontuak atera.

2)

Beasaingo Iturralde
letra bikainen emale
hainbeste egin duena Euskal
Herriaren alde.
Historia tranpa gabe
jakin naiean bazaude
gerra ta gerra ondoa zer zen
apaiz horri galde.

3)

Beasaingo martiria
gerran Joxe Ibarbia
talde batean Bizkaian utzi
zutena garbia.
Haren odol ugaria
freskoa eta argia
erdia lurrak edan du eta
guk beste erdia.

4)


Gudari zaharren anai
gazteek hil arte jarrai
Beasaingoak Koldo Gereño
eta Jon Uzelai.
Ez gaude bengantzaren zai
baina askatasuna bai
haiek lurpean zergatik dauden
ez dugu aztu nai.

5)

Usurbeko gailurzaina
ai zer gurutze tamaina
gerra ondoko mendizaleen
lanez alajaina.
Antenatzar batek baina
hartu dio orain gaina
Jesukristori tokatu zaio
laguntza bikaina.

6)

Beasainek Bergarakin
dema duela dut jakin
hangoa ala hemengo den
martiri San Martin.
Nola erdibana ezin
liteken santurik egin
erabakia zuen alde da
naiz haiei eman min.



Usurbe azpian Erauzkin. Auzo honetatik hasi zen Beasain.

7)
Ikastola Beasainen
laster berria da gailen
nor jakin zenbat joanetorri ta
zenbat lan egin den.
Laurogeitamar miloiren
kontuak atera ziren
hemen hainbeste alegin eta
haizea Madrilen.

8)
Hala ere gorralbenak
ezin ditut egin denak
erdal herria omen dirudi
Beasain geienak.
Errudunik handienak
euskaraz badakitenak
entzun dudana egia bada
egin du hoiinak.

9)
Ezkiogako auzoa
ez da batere gozoa
oilategi bat dela dirudi
harrika jasoa.
Hirigintza pailazoa
negozio erosoia
hitz baterako hori izan da
estafa osoa.


10)
Hutsune handi bat omen
dago herrian nabarmen
frontoi zaharra botata ez da
berririk ondoren.
Pilota ez bada hemen
pizina hori baino len
esaidazue Goiherria ala
Salamankan gauden.

11)
Soziedadeak hamabi
tabernak ere ugari
jan edanean oraindik ez da
krisisik nabari.
Goizaldean errondari
oilarra ia kantari
etxea non den aztutzen bazaik
bertan etzan hadi.

12)
Noizbait bukatu beharta
hamabigarren txinparta
kenduko diot suari eta
tximinitik salta.
Zerbait sobra edo falta
bada utzi eta barka
huts egiteko eskubidea
ere behar da-ta.

URNIETA

1979. Maiatza. 26



Loinazko San Martinen aurrean ezpatadantza.



**Buruntzatik etorria, Adarra puntan jarria
Nafarroara bidean hara Santsonen harria.**

HERRIKO BERRIAK

1)

Urnietako zenbait notizi
nola entzuna naizen ni
bertso berritan behar dizuet
dakidan pixka eskeini.
Hotsik ez duten kanpaiei ez da
zertan sokarik ipini
bainan daudenak jo eraztea
ez al da, jaunak, komeni?

2)

Urbanismotik hasten bagara
ez txartzat hartu mesedez
baina jakin dut gauza guztiak
ez direla egin legez.
Etxeak bota berriak jaso
kaleak hainbat aldrebes
len eginiko okerrak orain
konpontzen ez dago errez.

3)

Orain bi urte plan berri baten
eskema egin zen eta
hara geroztik zenbait poltsiko
diruz ederki beteta.
Argi ibili horrelakorik
berriro ez dadin gerta
bizilekua, ez lotegia
izan dadin Urnieta.

4)


Futbol zelai bat egitekotan
aspaldi omen zaudete
hasi ta bertan bera utzita
hor darama urtebete.
Gazteek hori bukatu dela
pozik entzungo lukete
bestela gure partez satorren
parketzat bota liteke.

5)


Frontoi berri bat badago eta
ez da aurrerapen gutxi
aiuntamentu zarrak ireki
zorrak berriari utzi.
Hala naiz hola ez da elkarri
zertan hortzik erakutsi
hautsi paretak edo eskuak
baina pilotari eutsi.

6)

Hala badira jaso ditugun
bi harrobien berriak
kostagabeak ez dira horko
hondarrak eta harriak.
Bonbardeoan bezala noiznai
danbada izugarriak
naiko meritu dute oraindik
sano dauden belarriak.



Azkorteko ermita.



Buruntzako harrobia.

7)
Buruntza puntan Santa Gurutze
Erdi Haroko ermita
harrobi hoi ei eskerrak ez du
izan, ez, azken polita.
Beste bat egin zuten berago
goiko hutsa bete naita
nola jendeak berria maite
lengoaz oroitzen baita?

8)
Herri hontako bankuak daude
aingeru zaitzaile gabe
noiznai atrako harrigarriak
gertatzen omen dirade.
Ateak daude zabalik edo
lapurrak zerrailen jabe
oraindik ezer sobratzen bada
eramateko prest gaude.

9)
Euskal Herrian aurrera doa
Urnietako gurpila
horra pare bat antzerki talde
Buruntza ta Egi Bila.
Horrelakoak gure lurrean
sortzen direnean mila
loratuko da ganbaran dagon
gure aitonen makila.

10)
Iazko festak oraindik hemen
zintzilik daude arbolan
herrian elkar bizirik uzten
izan omen zen naiko lan.
Erdal orkestak Euskal Herrian
jartzen bazaizkigu modan
hurrengo bertso saioa egin
beharko dugu Cordoban.

11)
Hamaikagarren bertso berria
bat falta dozenarako
bukatzen badut ez al du inork
harrikadarik botako.
Bein jaio eta penaz hiltzeko
gogorik ez dugulako
bizi gaitezen eta lur zar hau
piztu santa sekulako.

IAZKO FESTAK: Festa batzordean, batzuk erdal orkesta jarri nahi zuten
eta istilu gogorrak izan ziren.

BURUNTZATIK ADARRARA

1)
Buruntzatic Adarrara
gauez ibiliak gara
hura zen haize txistua eta
hura zen algara.
Orain zenbait bertso para
behar dut lengo modara
Elizan gaude eta Jainkoak
gaitzala anpara.

2)
Zoriontsu Urnieta
kuranderu bat bada-ta
herrenak ere bidaltzen omen
dizkizu saltaka.
Ate bete jende dauka
milagroren bat beharta
belarrik dagon artean ez da
botikarik falta.

3)
Herrerua ere horra
aipatzeko derrigorra
haizkoragile trebea eta
langile jatorra.
Zaldia edo behorra
izanagatik gogorra
perratzen dizu balitz bezala
jotzea danborra.

4)
Urlia ta berendia
otargile Garmendia
munduan ere horren pareko
gutxi omen dia.
Adarran egunsentia
hain da artista handia
saski batekin estal lezake
Buruntza mendia.


5)
Gizon batek badu fama
Txapel izena daukana
eun urte laster harrapatzeko
sasoia darama.
Lau gizaldi iragana
herrian ale bakana
ez zen edozein hori mundura
sortu zuen ama.

6)
Zenbait bertsolari bikain
goretakoa Alkain
aita ta seme zor zaien fama
dezaiegun eskain.
Horiek zutena erein
loratuko da gure gain
zer pena haien odolekorik
ez dagola orain.

7)
Herrian esan digute
apaiz bat ba omen dute
aurten betetzen dituna bertan
hogeita bost urte.
Mende laurden horren truke
bertso bat merezi luke
izenik ez dut esango baina
zein badakizute.

Kuranderua bere lagun batekin.

8)
Buruntzatic etorria
Adarra puntan jarria
Nafarroara bidean hara
Santsonen harria.
Harturik haize berria
goitik zaintzen du herria
hura haraino bota zuena
ez zen elbarria.



9)
 Ilargi betez Buruntzan
 sorginak gauero dantzan
 joan zen asteen neuk ikusiak
 milaka zebiltzan.
 Akerrarekin belartzan
 denak jaiki eta etzan
 apaiz izana ez banintz bertan
 geldituko nintzan.

10)
 Hasteak dakar segida
 bukatzea komeni da
 santuak dantzan hasi aurretik
 gaiten erretira.
 Hitzak saltariak dira
 ez izan gure kupira
 denuntziarik azal baledi
 bidali Bizkaira.



Otagile **Garmendia**, munduan ere horren pareko
 gutxi omen dia.

SANTSONEN HARRIA: Izen horrekin deritzaten harri haundi bat. Harri honetaz kondaira asko dira. «Habal harria» ere esaten diote. Habailaz jaurtikia.

BURUNTZA ETA ADARRA: Bi mendiren izenak.

SANTUAK DANTZAN: Jaialdia elizan izan baitzen.

ARRASATE

1979. Ekaina. 1



Jose Manuel Arriola, agoazila
 eta bertsolaria.

1)

Jaiotzatik bizitzara
gatoz gu airez aire
Muru eta Kurtzetxiki
Udalaiztik Besaide.
Itsasorantz goaz Deba
erreka dela bide
hango uren zabalean
haizearekin libre.

2)

Aramaion gora eta
Aretxabaletara
Aizkorrirantz Oinati ta
Iparretik Bergara.
Kanpazartik Elorrio
eta Bizkaia hara
zuek kantuz goatzera
handik etorri gara.

3)

Inguruko auzoak bost
Bedoña ta Udala
Santa Ageda ta Kanpazar
bosgarren Sana dala.
Arrasate lekuz estu
baina lanez zabala
industriak ito gabe
oilarrak jo dezala.

HERRIKO BERRIAK

- 1) Bertso berritan Arrasateko herria dugula aurrez nondik tiratu nondik bultzatu jakiten ez dago errez. Izan liteke barrez hasi ta akabatzea negarrez bein jaio eta bein hiltzekotan naiago nuke aldrebes.
- 2) Herri hontako urbanismoa negoziotik irtena etxegileek soka librean egin dute nai dutena. Blokeak nonai eta nolanai ai zer hondamen kirtena horra hor tren bat naita ere orain bueltatu ezin leikena.
- 3) Badira hemen torreak eta etxe erlauntzi osoak Espinok eta beste jaun hoiek baimenik gabe jasoak. Ez zerbitzu ta ez leku berde abandonuan auzoak esan liteke kaiolak edo direla kalabozoak.
- 4) Etxeak gora eta urik ez egarriz itotzen elkar Arrasateko kalamidade nagusia horrek dakar. Urkulupeko presa berria betetzen ez bada azkar berriro ere udan baldeka ate joka hasi behar.

5) Alderdi berde gutxi egonik horra hor Santa Barbara leku ederra eta aspaldi ia bertan bera laga. Len zaintzaile bat orain baterez laster satorrak bertara haizea hartzeko abanikuak jaten hasiko al gara?

6) Hainbeste obra herrian eta batzeko hain lokal gutxi beharko dira berriak jasota lengo apurrei eutsi. Terraza izena duen etxea hor didate erakutsi bomba ta guzti badatoz ere hori botatzen ez utzi.



Arrasateko torreak, ez gutxi baimenik gabe jasoak.

7)
Osteko Etxeaz ere badira
kultur etxeko ametsak
zer diferentzi lekarken horko
ezetzak edo baietzak.
Konpletatzeko Monterroneko
palazioa parketzat
Amerikara artzain bidali
kondeak eta markesak.

8)
Arrasateko langileria
historian aurrelari
Cerrajerako grebak aintzina
gogorrek eta ugari.
Belarra jaten behar zaiola
irakatsi jendeari.
Oreja eta Resusta jaunei
galdetu nola zen hori.

9)
Oreja hura garbitu zuten
sasoi honeko lorea
ondoren utzi zigun semea
ez da batere hobea.
Gizon horrekin badaukazue
hondra eta ohorea
Euskal Herria Parisen ere
saldu zuen traidorea.

10)
Fabriketara jorik berriro
batzuk daude azken mugan
Abece ia ixteko eta
Bastida Extremaduran.
Elman ere hor mila langile
hil edo biziko gudan
ondo badoa nagusiak jan
eta jasotzeko guk lan.



Monterroneko palazioa.

11)
Herri hau nola dabilen antza
mundu zabaleko legez
lan orduetan eta debalde
ematen dute ingeles.
Euskara berriz geurea izanda
apenas edo ezer ez
hori da zuzen egitekoa
jartzea dena aldrebek.

12)
Enteratu naiz hemen badela
hainbat euskaldun txanbelin
bai euskarari pegatinak bai
baina erdarari ekin.
Gure hizkuntza biziko bada
izanik besteen berdin
mila diskurtso baino hobea da
euskaraz hitz erdi egin.

13)
Ikastola bat bada hor baina
dago pentsatu beharra
nola eskola nazionaletan
ere zabaldu belarra.
Bata hemendik bestea hortik
denontzat matraka txarra
behar dena da euskal eskola
publikua ta bakarra.

14)
Arrasateko abertzaleak
ez dira Euskadin nornai
gaur ere horra bat preso eta
atzerriratuak hogeia.
Etxabe, Txomin eta Peixotok
bizirik milagroez jarrai
betik Madrilek estutzen gaitu
goitik Parisek ere bai.

15)
Gudari hilen zerrenda berriz
jartzekoa belauniko
kanta ditzagun Zapa, Roberto
Etxabe eta Motriko.
Beste hirurak horra Emili
Agurtzane ta Moriko
odola kentzen diote baina
herri hau ez dute hilko.

16)
Hamaseigarren bertso berrian
ematera noa alto
hasten den lana amaitzen ere
jakitea ez da txarto.
Ez al du inork buruko minik
batuko hemen biharko
horrela bada barkatu baina
bakoitzak eutsi beharko.

AUZOAK ETA GIZONAK

1)
Lapiko handiari
su handia egin
salda hona hartzeko
astiro irakin.
Arrasateko berri
nai duenak jakin
belarriak hartuta
etorri gurekin.

2)
San Andresko auzoan
torreta galantak
txikitoz beratuta
kilikolo hankak.
Bapo berdintzen dira
sobrak eta faltak
bart etxeratu ginen
galdurik zapatak.

3)
Musakola aldetik
notziak datoz
auzorik zarrena ta
politena askoz.
Kaleak baina zuloz
beterik ei dagoz
ez dakit nola joan
autoz ala astoz.

4)
Udalaren azpian
dago Uribarri
janda lo egiteko
zutena hor jarri.
Aldapan bera joango
ote diren larri
borda nasaiagorik
ikusten da sarri.

5)
Bat bi hiru eta lau
horra Magatxena
listan laugarren baina
obraz ez atzena.
Gorriandia bere
bigarren izena
eskerrak semaforo
gorria naizena.

6)
Urriaren lenengo
ostiralez jaia
txikitozale hoiei
emaiek xaboia.
Zaindu Murutik bera
datorren dragoia
ez dezala eraman
Maritxu Kajoia.

7)
Trajez eta gorbataz
hartu eta eman
goizetik goizaldera
nor geiago teman.
Ama kajoian eta
semeak tabernan
bokazioak sobra
holako ordenan.

8)
Lengo kajoia zaharra
zegoen itxusi
Ama Maritxuk zerbait
bazuen merezi.
Apaizak nai ez arren
berririk ikusi
txikiteroek zuten
dema irabazi.




*Maritxu Kajoia*ren zaleak, beren zaindaria
egunean.

9)
 Errespetoa jarri
 dezaigun nor denak
Aita Urrufinori
 eskatu ordenak.
 Usoak hain ederki
 zaintzen dituenak
 berak leunduko ditu
 Maritxuren penak.

10)
 Famatua herrian
 gure agoazila
 abisuak ematen
 hizlari abila.
 Holako agenteak
 bagenitu mila
 ez dago zertan joan
 kanpotarren bila.

11)
 Aintzina erromeriak
 atetik atera
 famatuak Kanpazar
 eta Santa Ageda.
 Orain herria sala
 nabarrez bete da
 erretiroa oilar
 kantuaz batera.



Maritxu Kajoia, Arrasateko txikitozaleen ama zaindaria.

12)
 Arrasateko salak
 jota omen daude
 gaez apenas dabil
 inor kalez kale.
Txakurrak hara hona
 eta mozal gabe
 deskoidatzen bazara
 tiro bat debalde.

13)
 San Tomas ferietan
 maite aterria
 armonian kalea
 eta baserria.
 Basurdea ote da
 aurtengo txerria
 Madrilen enkargatu
 omen da berria.

14)
 Akabatzer a noa
 hurrengo airean
 nola zintzarri ere
 jaio ez garean.
 Inor balego zerbait
 argitu naiean
 Portaloian batuko
 gara goizaldean.



Portaloia, tradizioarik gehieneko plaza, azken gau-txoriak biltzen dituen.

MARITXU KAJOIA: Arrasateko txikitozaleen ama zaindaria.
TXAKURRAK: Hargatik jendeak Bergarara jotzen omen zuen.
TXERRIA: Santo Tomaseta zotz egiten dena.

BOLIBAR

1979. Ekaina. 24

1)
Gaur da San Joan eta
atzo zen bezpera
kantari gatoz herri
batetik bestera.
Oilarrak garen ala
kukuak bestela
gure kukurrukua
hil arte euskera.

2)
Oizko Mendia altu
berdin Santa Eufemi
Kalamuara pozik
joango nintzake ni.
Armonia pixka bat
nai geunke ipini
tolestu belarriak
ez bada komeni.



Don Domingo, apaiz argia eta estimatua inguru guztian.

3)
Zuek hortik entzuten
gu kantari hemen
gogaituko zarie
amaitu baino len.
Parisen sua eta
egurra Madrilen
Jainkoak daki hemen
zer haize dabilen.

4)
Gure haizeak dira
Hegoa-Iparrak
itxaso zabala ta
gaueko izarrak.
Hausten ez badauskuez
buru ta bizkarrak
jantzi behar ditugu
San Pedron bizarrak

5)
San Pedron bizarra ta
Luziferren gonak
okerrak zuzentzeko
ointxe gagoz onak.
Zeruko puntu eta
inpernuko komak
zentzunik geien dauka
burutik dagonak.

6)
Udan eguzkia ta
neguan edurra
eskaintzen dautzuegu
daukagun apurra.
Kantua da ibiltzen
dakigun atxurra
astindu behar dogu
Bolibarko lurra

7)
Hasieran kanpaiak
afantsu jo arren
azkenak esango dau
zer soinu dakarren.
Gure aldetik zuek
pozik iztearren
hanka bana galduko
geunke Bolibarren.

8)
Nire maiteak ditu
bi iturri sakon
bata Aizkorrin eta
bestea Anboton.
Bakarrik behar dogu
zoratzea bertan
kantatu daigun eta
sorginak hor konpon.

ZER ETA NOR

1)
Bertso berri batzuek
behar ditut jarri
zor dena emoteko
zuen Bolibarri.
Lenago ere hemen
izan gara sarri
ez gaitue bialdu
gose ta egarri
gaur ere uste txarrik
ez dogu ekarri.

2)
Orain hamar bat urte
lapurrak azaldu
bere udaletxea
Bolibarrek galdu.
Herriak jakin barik
Markinara saldu
jakinda ere ezin
ahorik zabaldu
hoba barriz aparte
ibili al balu.

3)
Bizimodua behar
zelanbait etara
itxasora ez bada
Ameriketara.
Baserria joan da
ia pikutara
dena biribiltzeko
bakarrik falta da
Madrilgo tiobiboak
sartzea kortara.

4)
Inpostuak gora ta
ezer lagundu ez
baserria jantzi da
sasiz eta sugez.
Lurrak pinu doaz ta
etxeak hustuez
martxa honetan laster
jarriko dauskuez
satorra alkate ta
azeria juez.

5)
Ikastola barria
ere hor ari da
laguntzarik ez eta
limosnei begira.
Bolibartarrak heurak
finak ez balira
laster joango litzake
dena ilargira
ministerio denak
erre behar dira.

6)
Egia ete da hor
entzuna naizena
kale bat eta bera
Alfontso Trezena.
Berton da hemen gizon
finen almazena
gogoan daukadana
ez da eskasena
ipini eiozue
Txirriren izena.

7)
Kaleak betetzeko
bat ez ezik mila
Bolibarren izan da
izen handi pila.
Listan hurrengo horra
Katxan agoazila
enterradore fina
berbaldun abila
ez dago zertan joan
erregeen bila.


8)
Indartsuetan bazen
Santson Iturralde
maiak eskuz apurtzen
zituna debalde.
Muñuzguren artzaina
ez zen barauzale
hiru bider bazkaldu
eta barriz dale
horrek ere beteko
leukez zazpi kale.



Bolibartarrak denetarik, panderojole Txirri fama-
tua dutelarik.

9)
Gerran zenbat heriotz
sententzia jausi
Boni Agarre bertan
tiroz eben josi.
Gero Felix Urua
ta berdin Berezi
biak justu justuan
libratu ta bizi
hoiek bai dabezela
kaleak merezi.


10)
Abadeetan ez zen
izango edonon
herri honetan beste
gizon handi ta on.
Lenago Don Domingo
ondoren Don Ramon
izen hoiek aitatu
barik ezin egon
Bolibarko kaleak
bada nori emon.



Santson Iturralde taldeko astunena, mahaiak eskuz
apurtzen zituena.

11)

Hamaikagarreanean
amaitzeko plana
egina daukat eta
bego hortan lana.
Kexanterik baletor
bialdu neugana
ni ez banago hantxe
egongo da ama
pozik emongo jake
basu erdi bana.



Katxan agoazila, enterradore fina, berbaldun abila.

MARKINALDEA

1)

Kantatu behar ditut
kale eta baso
Markinaldeko hamar
herri edo auzo.
Astoan ibiltzerik
ezin da galazo
goazen aterik ate
aire eta iso.

2)

Markinatik hasita
denak pelotari
elegante famako
herria da hori.
Buskaraz jakin arren
erdaraz ugari
hemen inor badago
galdetu berari.

3)


Probak eta jokoak
Etxebarrin gainez
irabazi naiz galdu
beintzat gosarik ez.
Kiebran bazagoz edo
tripetako minez
Munibeko kondeen
atera joan zaitez.

4)

Barinagan jateko
aukera aparta
platerean eskailu
biziak saltaka.
Gose bazara joan
naiz dirua falta
zorrean ere berdin
emoten ei da-ta.

5)
Probintziz Gipuzkoa
ei da Aginaga
komeni jakenean
barriz Bizkaia da.
Txikia izan arren
kontuz joan hara
lumak bertan utzita
etorriko zara.

6)
Lengo Xemein zarra gaur
inoren geriza
Markinak jan ebana
piku baten gisa.
Kilo bat urdaigatik
saldu zen eliza
hori bai izango zen
kristoren krisisa.




Arretxinagako ermita Xemeinen. Hemendik zazpi
bider pasatzeak eragin harrigarriak ditu.

7)
Urberuaga hara
famatua urez
bainuetxe galanta
hotelaren aurrez.
Errekalde horretan
batez ere gauez
tabernako bainuak
maiteago dabez.

8)
Goizaldeko orduetan
Iruzubietan
barrua bero eta
freskura errekan.
Denpora joaten jake
jakin barik zertan
etxeratu ezinik
oilarrak jo bertan.

9)
Sagar famatuaren
herria Larruskain
orduko milagroei
egiezu usain.
Argia sartu barri
harro dagoz orain
badauke gauez ere
alkar zaintzeko lain.


10)
Komentu famatua
Ziortza horretan
gaur hutsik len beterik
fraileak olgetan.
Hoba litzake barriz
martxan jartzekotan
neskazar-mutilzarrak
juntatzea bertan.



Ziortzako komentua barrutik.

11)

Oiztik bera bueltaka
Bolibar jausi zan
leku hoberik ezin
San Joanetan izan.
Len esanaz gainera
besterik zer esan
hamaikagarrenean
isildu gaitezan.



BIDEAK

Ziortza, goian komentu famatua agiri dela.

1)

Markinaldeko kamino zarrak
geienak estu ta oker
gerra aurretik hona ez dabe
egin gauza onik ezer.
Auto geiago lau bider eta
zuloak hamalau bider
astoak ere hortik ibiltzen
lotsatuko dira laster.

2)

Markinan hasi ta Berrizera
berrogei bat luperia
Elgoibarrera beste hainbeste
hori dok erromeria.
Han seinale bat hor lau burdina
txapa ta puñeteria
hainbeste diru kenduta hau da
gelditzen den miseria.

SAGAR FAMATUAREN: Sagar erori bat altxatu eta kimatu omen zen,
gerran apaiz bat azpian afusilatu zutena. Hamaika jende ibili zen atzera
eta aurrera, sagar miragarri hura zela-ta.

FRAILEAK OLGETAN: Komentu horretako fraileak aintzina libre sama-
rrak omen ziren.

OIZTIK: Oiz mendiaren azpiko aldean dago Bolibar.

DONOSTIA

1980. Ekaina. 14





Agur Donostiako argi ta itzala
Kantauriko urdinak kontserba zaitzala.

1)
Itxasoari ostu
diot abotsa
ea lapurtzen dudan
zuen bihotza
abotsa
zuen bihotza.

2)
Gau erdian jotzen dut
zuen atea
ikusi al duzue
nire maitea
atea
nire maitea.

3)
Urguldik Igeldora
salto bikaina
Santa Klarak bildurra
sartu dit baina
bikaina
sartu dit baina

4)
Urak aurkitzen ditu
zulo guztiak
Parte Zarretik gatoz
ondo bustiak
guztiak
ondo bustiak.



Igeldo, Urgul.

KANTARI NATORKIZU

1)
 Kantari natorkizu
 Donostia zuri
 itxas lurren mugatik
 ametsera zubi.
 Arnasan ere zaizu
 kresala isuri
 zu uzten zaituenak
 beharko itzuli.

2)
 Harrotzeko arrazoi
 badu anitz herrik
 non ordea lurrean
 hain hiri ederrik.
 Ederragoren baten
 bazaude beharrik
 Donostitik inora
 ez joan alferrik.

3)
 Urgul eta Igeldo
 goitik begirale
 irla, kaia ta Kontxa
 esnatzen dirade.
 Hondarzale naiz eta
 apar zuri gale
 arima itotzen zait
 usain hori gabe.


4)
 Agur eta goraintzi
 Parte Zahar horri
 jatorriz zahar bezain
 jendez beti berri.
 Hitzetik zurrutera
 ibil edo korri
 mundua nai duena
 bertara etorri.

5)
 Donostin *Bulebarra*
 hori duk karrika
 batzuk korrika eta
 besteak harrika.
 Egunez dinbi-danba
 gaez errepika
 bizkar onean dugu
 larrua jarrita.

6)
 Gaitz batek zikintzen du
 Donostiko jira
 Urumea ibaira
 egon naiz begira.
 Ur horiek garbitzen
 ez baldin badira
 berriz bota beharko
 ditugu mendira.

7)
Donostiko Realak
 merezi du aipu
 galtzea ere zer den
 ia aztu baitu.
 Onena izan eta
 bigarren amaitu
Madrilek hortan ere
 izorratzen gaitu.


8)
Madrilen da dirua
 eta zementua
Donostian indarra
 eta talentua.
 Iazkoa izan zen
 entrenamentua
 aurten zen izango den
 atera kontua.



Urumea ibaira egon naiz begira.

9)
 Zer lanaren luzea
 hazitik uztara
Donostian loratzen
 omen da euskara.
 Egia eder hori
 gezurra ezpada
 jantzi musikaz eta
 zatozte festara.

10)
 Agur **Donostiako**
 argi ta itzala
Kantauriko urdinak
 kontserba zaitzala.
 Zuri bertso berririk
 ontzea gaitza da
 bertsorik ederrena
 zerori baitzara.



Kontxako hondartza. Ametsak eta itzalak.

SANTA KLARA: Donostiako irla, Urgul eta Igeldo bitartean.

KONTXA: Donostiako hondartza.

BULEBARRA: Donostiako kale nagusia.

TOLOSA

1980. Ekaina. 21



Joanito Garmendia Larrañaga, tolosar etnografo haundia, jaialdi honetako berririk gehienak eman zizkidana.

1)
Uzturreko menditik
hona irrintzi
sorginaren partetik
mila goraintzi
irrintzi
mila goraintzi

2)
Hanka bata Uzturren
bestea Ernion
mundu arraio honi
piz egin nion
Ernion
piz egin nion.

3)
Tolosako azokak
eta feriak
txantxuentzat onenak
ihauteriak
feriak
ihauteriak.

4)
Tolosan babarrunak
goxoak baina
ezin ditut maitatu
xaxuak aina
ai baina
xaxuak aina.

5)
Metroko belarriak
ditu Galtzaundik
entzun nai luke baina
ez daki nundik
Galtzaundik
ez daki nundik.

6)
Ariztegieta
zulo guztiak
hustuta hemen gatoz
ondo bustiak
guztiak
ondo bustiak.

7)
Asperten bazarete
egin haserre
baina ez gaitzazue
San Joanez erre
haserre
San Joanez erre.

TXANTXUAK: Tolosarren goitizena.

XAXUAK: Tolosako pastelxo bereziak.

GALTZAUNDI: Mitologiara pasatua den tolosarra.

ARIZTEGIETA: Tabernarik gehien den kalea.

TOLOSALDEKO JIRA

1)
Tolosaldea bertso
berriz kanta dedin
jira bat egitea
ez al da atsegin.
Ibarrez ibar goaz
mendiz mendi berdin
bidean galtzen denak
San Joan suak egin.

2)
Idiakez kastaren
kabi Anoeta
bihotz biguna eta
harrizko kopeta.
Kukuak ote diren
fama dago eta
eiztaria bazara
hartu eskopeta.

3)
Ernioren oinetan
ezin nornai izan
Ernialden Santa Kruz
apeza ari zan.
Hortik aldegin zuen
gerrilero gisan
sotana ta *astoak*
utzirik elizan.

4)
Pelotari bat bazen
Iruran hazirik
apuztu irabazle
txaketa jantzirik.
Sagardoa edanda
saskiak zintzilik
ai zer gaua daukagun
bagaude bizirik.

5)
Errebote jokoa
Billabonan garai
Amasara igonda
afaldu dut lasai.
Bete bete eginda
mozkortu ere bai
gero zer egin dudan
ez dizut esan nai.

6)
Adunan bi postetzar
ezker-eskubian
Jesukristo dirudi
lapurren erdian.
Zer nolako eskolta
aingeru goardian
Iberduerok esango
dizue zer dian.

7)
Asteasun kantari
Pello errotari
tranpazulo herrian
kontuz sartu hadi.
Edale finak eta
apustu ugari
jokatuko nioke
galdu nai dunari.

8)
Zizurkilen antxina
jauntxo bat bitarte
udaletxea dute
herritik aparte.
Orain nola daukaten
neska bat alkate
badute lana lengo
gaitzak ondu arte.



Aduna.

9)
Larraulen naiz apaiz bat
bazela entzuna
kanpaia etxetikan
jotzen omen zuna.
Geroztik herri hortan
badago zentzuna
probintziko onena
edo onentsuna.

10)
Alkitzan ikusi dut
harrigarriena
herri osoa duzu
dantzan dakiena.
Txamarrak lumaz jantzi
badute baimena
hegan ikastea da
gelditzen zaiena.

11)
Afalduko al dugu
denok Albisturren?
Sobratzen zaigunakin
Kresusera urren.
Jokoa ta bestea
lagunak elkarren
ea bakoitzak bueltan
zer karga dakarren.

12)
Ia erdi husturik
han dago Beizama
len hain betea eta
saltsari izana.
Egia bada niri
haizeak esana
ez da makala hura
konkista dezana.

13)
Bidani eta Goiatz
biak Bidegoien
jakin nai nuke zeinek
duen gatzik geien.
Probintzi juntak hortxe
len egiten ziren
haizea beintzat franko
gelditu zitzaien.

14)
Hemendik sei harrira
hor duzu Ibarra
landarez aberatsa
nagusi piparra.
Izazkun norena den
istilu bakarra
hark arrazoia baina
Tolosak indarra.

15)
Oilarrak esnatzen du
goizero Belauntza
egunean ganbela
beterik arraultza.
Festetan zer jendetza
hotsa eta hautsa
aurten miss-mister goaz
akerra ta auntza.

16)
Berrobin ur freskoa
dakar iturriak
berez gizentzen omen
dira inurriak.
Finak eta politikak
ai zer marrubiak
gorriak onak eta
hobeak rubiak.

17)
Elduainen jaioa
Santa Kruz apeza
herri horrek badauka
zeruko babes.
Ez luke egiteko
gauza aldrebesa
haren oroitarri bat
agindu baleza.

18)
Berastegin haizeak
zituen hegalak
aintzinako karlistak
eta liberalak.
Orain ere denetik
du horko oihalak
batzuk petralak eta
besteak leialak.

19)
Gaztelu Tolosatik
mendiko bidera
isileko hamaika
ETAko bilera.
Orain urak ekartzen
saltsan ari gera
istilua sortzea
gaur ere libre da.


20)
Leaburu ote den
lehoiburu aurten
hemen ere ur berriz
freskatu ninduten.
San Pedrok berriz horra
zer jakin nai luken
txalburuek buztana
nolakoa duten.

21)
Iruñerantz Lizartza
Probintziko muga
ijitoak dantzari
Kaxaren soinura.
Osasuntsua bada
saltzen duten ura
hamaika helduko da
berandu zerura.

22)
Orixeren herria
Orexa urrena
bai eta Montes apaiz
famatu horrena.
Nafarroaz baturik
mendian barrena
ai zer gailur usaina
urak dakarrena.

23)
Altzo herri txikian
digante galanta
txalupa bezalako
zapata ta hanka.
Komentutik plazara
errezu ta kanta
tipula ustelak janda
putzik ez da falta

24)
Hiruherrietako
hiru herri jator
Ikaztegiatako
ikatzak daukat hor.
Baliarrainen baneza
zartagi zar bat lor
Orendaingo *eltxoak*
prijitzera nator.




Lizartzako Kaxa, soinujole handia, bere omenaldian sariak hartzen.

25)
Jokolari handiak
dituzu Alegin
frontoi, karta naiz dema
edozer atsegin.
Ez dakit zer pentsatu
zintzarri hoiekin
mingaina moztu ala
danbolinak egin.

26)
Amezketan Fernando
genuen aspaldi
artzain herria ere
ardi eta zaldi.
Orain hor bizi dira
milaren bat *elbi*
hilda ere egoten
ez direnak gelditi.

27)
Tolosako Trebiño
omen da Bedaio
nagusiaren kontra
muturrak eraio.
Historian morrontza
egokitu zaio
ez dira erraz bizi
hor zirenak jaio.

28)
Tolosarena beste
auzo bat Aldaba
ez da nolanaikoa
daraman aldapa.
Eliza famatua
mendien alaba
hura ikusi gabe
ez utzi al bada.



Alegiko *zintzarriek* dorre luzea nahi zuten, haien hotsa ondo entzun zedin.

29)

Bukatzeko Tolosa
omen *Villa Hermosa*
gainera *ipurzikin*
eta *makarrosa*.
Hogeiatarren bertsoan
agortu zait boza
isil nadin arnasa
dezazuen goza.



Antzokia ematen du, baina azoka lekua da.

KUKUAK: Anoetarren goitizena.
ASTOAK: Erniotarren goitizena.
BI POSTETZAR: Iberdueroko bi poste haundi, eliz ingurua erdi-erdian
hartzen dutenak.
TRANPAZULO: Asteasuko goitizena.
KRESUS: Gau etxe bat, Tolosatik Bidanira bidean.
BELAUNTZA: Esaera da: «Belauntza, ganbela bete arraultza».
SAN PEDRO: Leaburuko zaindaria.
TXALBURUAK: Leaburutarren goitizena.
SALTZEN DUTEN URA: «Insalus» fabrika baitago bertan.
IJITOAK: Lizartarren goitizena.
KAXA: Lizartzako soinujole haundia.
ZINTZARRIAK: Alegitarren goitizena.
DIGANTE GALANTA: Altzoko gizon izugarri bat, oraindik bizi diren
batzuk ezagutu zutena.
TIPULA USTELAK: Altzotarren goitizena.
ZARTAGIAK: Baliarraindarren goitizena.
ELTXOAK: Orendaindarren goitizena.
ELBIAK: Amezketarren goitizena.
MORRONTZA: Bedaio jaun baten herria izan da eta orain ere horrela da
asko.
TOLOSA... MAKARROSA: Esaera da: «Tolosa Villa Hermosa, ipurdi
zikin eta makarrosa».

ZEANURI

1980. Abuztua. 15



Zeanuriko antzerki taldean herri guztia zegoen.

1)
Goian Arraba eta
goren Gorbea
neska eder bat hantxe
daukat gordea
Gorbea
daukat gordea.

2)
Ogi zuri barria
balitz Lekanda
leher égingo neuke
osorik janda
Lekanda
osorik janda.

3)
Zeanuriko fama
nainon ganezka
beste bat antzekorik
munduan ezta
ganezka
munduan ezta.

4)
Hamazazpi ermita
eta len hogei
erleginoa hemen
pozik egon lei
len hogei
pozik egon lei.

5)
Abade eta fraile
mojak ere bai
mundua ta zerua
hornitzeko lain
ere bai
hornitzeko lain.

ARRABA: Gorbea mendiko landa edo zelaia.
LEKANDA: Gorbea mendiko haitz haundi baten izena.

6)
Obispoetan ere
herri frankua
bakarrik falta jako
Aita santua
frankua
Aita santua.

7)
Denak ez dira baina
komenturako
olgetako lagunik
ez da faltako
hortako
ez da faltako.

ZEANURITAR OSPETSUAK

1)
Errekan ikusi nuen
Lanbreabeko Lamina
kristalezko azala ta
urregorritzko mamina.
Urregorritzko mamina
Lanbreabeko Lamina
alabatxo bat ei dauka
bere amaren bardina.

Ipiñaburutik bera
Undurragako bidera
etorri da goitik bera
bizi garen jakitera
Ipiñaburutik bera
bizi garen jakitera.

2)
Barazartik Gorbeara
ai Anbotoko sorgina!
Orain atso zimeldua
baina gaztetan gordina.
Baina gaztetan gordina
ai Anbotoko sorgina!
Sututa dabilenean
erreko leuke burdina.

Gure Anbotoko atso
barau egunetan mantso
edanda uhu ta zantzo
Gorbean zebilen atzo
Gure Anbotoko atso
Gorbean zebilen atzo.

3)
 Miruak eta beleak
 goiko mendian habia
 otsoak eroan eban
 Arratiako tranbia.
 Arratiako tranbia
 goiko mendian habia
 oinez ez zekientzat
 kalamidade handia.

Tranbi zarra bera gora
 hiru lau ordu Bilbora
 beste hainbat handik hona
 lo egiteko naiko da.
 Hiru lau ordu Bilbora
 lo egiteko naiko da.

4)
 Tranbian gora ta bera
 tranbiarioen lana
 bat baino geiago bada
 oraindio bizi dana.
 Antonio bizi dana
 eta Rafael hil zana
 txilina jo eta *tira!*
 merezi dau txalo bana.

Antonio kobradore
 kontatzen daki dotore
 dudarik izan ezker
 zazpi baino zortzi hobe
 Antonio kobradore
 zazpi baino zortzi hobe.

5)
 Pedro Pitxin ikazgina
 azkenengo ikazgina
 Pedro-Pedro makilari
 posturak egiten fina.
 Azkenengo ikazgina
 bestea posturagina
 hatzamarra delakoan
 sartukotzu pipermina.

Felipe eta Fabian
 Eusebio konpainian
 orainelak ipinita
 trafikuzain Bitorian
 Felipe eta Fabian
 Eusebio konpainian.

6)
 Zeanurikoa Joanpe
 hori dok hori gizona
hauxe ta hauxe hauxe ta hauxe
Doktor Pinto en persona.
 Hori dok hori gizona
Doktor Pinto en persona
 medikua den ezker
 badaki zer den gauz ona.

Doktore edo mediku
 badakizu nori deitu
 gaixoak osatu eta
 sanoak gaixotzen ditu
 doktore edo mediku
 sanoak gaixotzen ditu.



Sokatiran badaukie indarra ta malezia.


7)
 Zeanuriko herria
 ondo hazi ta hezia
 sokatiran badaukie
 indarra ta malezia.
 Indarra ta malezia
 ondo hazi ta hezia
 Bizkaiko soka guztiak
 apurtu ei dabez ia.
 Entrenamentu fuertea
 galdu arte konortea
 ez da langintza merkea
 tabernentzat suertea
 entrenamentu fuertea
 tabernentzat suertea.

8)
 Pelotarietan ere
 Zeanuri ei da nausi
 horretako beti listo
 naiz eta edurra jausi.
 naiz eta edurra jausi
 pelotarietan nausi
 holako zaletasunik
 etxoat inon ikusi.

Arratiako zekorra
 txikerra baina gogorra
 frontoi horrek ere pozik
 hartuko leuke legorra
 Arratiako zekorra
 hartuko leuke legorra.

9)
Zeanurin antzerkia
ia herri guztikoa
hori zan ikustekoa
ta ez telebistakoa.
Ta ez telebistakoa
ia herri guztikoa
hori zan ikustekoa
baina ez kostatzen bako.


Herri antzerki lerdena
egin leiken ederrena
Parisera joan barik
amaitzea ai zer pena!
Herri antzerki lerdena
amaitzea ai zer pena!



Arratiako tranbia Arratiako bizitza zen.

ARRATIAKO TRANBIA: Hura kentzean, protesta gogorrak izan ziren Arratian.
DOKTOR PINTO: Sikiatra famatu baten izena, Joanpek bere bururari ezartzen diona. Eta ez nolana, «en persona» baizik. Gero jendeak ere hala esaten dio.


10)
Hemen akabatzen dira
Zeanuriko barriak
haizeari entzun eta
kopla zarretan jarriak.
Kopla zarretan jarriak
Zeanuriko barriak
batzuk guzurak badira
besteak egi garbiak.



Gure Joanpe edo Doktor Pinto antzerkigintzan ere onena dugu.

LARRAURI

1980. Iraila. 26



Larrauriko herria, Mungiak irentsia.

1)
Sollubetik Jatara
harrikada bat
gaur goizean aproba
egina daukat
nik daukat
harrikada bat.

2)
Sollubetik Jatara
zazpi irrintzi
sorginaren partetik
mila goraintzi
irrintzi
mila goraintzi.

3)
Hanka bata Solluben
bestea Jatan
txiz eiteko gogoa
etorri jatan
bart Jatan
etorri jatan.

4)
Larrauriko zelaia
zelai ederra
berton biziko nintzen
banintz eperra
ederra
banintz eperra.

5)
Arbolak ere asko
eta luzeak
zer suertea daukan
hemen haizeak
luzeak
hemen haizeak.

6)
Gaztelu ta komentu
eta ostatu
etxerik ez daukanak
badau non sartu
ostatu
badau non sartu.

7)
Gogaitzen bazarie
eizue barre
mundua holantxe da
iso ta arre
ai barre
iso ta arre.

SOLLUBE ETA JATA: Bi mendiren izenak.

LARRAURIALDEA

1)
Bertso berri batzutan
inguruko barri
emotera gara gu
Larraurira etorri.
Astinduko ditugu
auzo eta herri
euria hasten badau
zakuak ekarri.

2)
Meñakan pelotari
onenak ei dira
mutilak barriz neska
politei begira.
Udaletxe ta guzti
txikian handi da
hoiek ez dabez errez
batuko Mungira.


3)
Zazpi harri berago
Meñakabarrena
museo bat ei dago
balen hazurrena.
Mamina euki ezkerro
kortako txalena
maia garbitzen ez da
auzorik txarrena.

4)
Bide biren erdian
hara Emerando
mutilzar-neskazarrez
beterik ei dago.
Zama sikua baino
bustia gurago
orain ez dakit baina
halan zan lenago.

5)
Markoiden taloagaz
esne edo koipe
nondik nora dabizen
ezin jakin leike.
Soinujole handia
Josu Barandike
iaz erakutsi zen
zenbat daben maite.

6)
Txirrokalden granja bat
txarri zuriena
kontziertu polita
bertan dabilena.
Txakur bat ere bada
artista gailena
buztanagaz kitarra
jotzen dakiena.

7)
Ametzako auzoan
artoa landare
Josu probalaria
marka onen jabe.
Alkarrekin ederto
konpontzen dirade
eztabe alkar jango
hasarratuta be.




Felizier, ministro, apezpiku eta bere ustez gizon handi guztiei kartak egiten dizkiona, kristorenak esanaz.

8)
Larraurín juergarako
beti borondatez
tabernan errez sartu
eta urten nekez.
Gero kanpoan ilun
eta argirik ez
kostatzen da joaten
sano eta artez.

9)
Mesterikan badago
halako gizona
obispo-ministroen
kirieleisona.
Felizier izena
kartagile ona
ia bereak ditu
Madril eta Erroma.

10)
Hamargarren bertsoan
hauxe da azkena
egia zen bostena
erdizka bestena.
Zuzenegi ez bada
ibili eztena
bakarrik kantatu dot
kontatu daustena.



Gure astoa *Kirriño*
biziko da hil artiño.

BARRI FRESKOAK

1)
Lenago **Bakio** eta
Bermeo eta **Mungia**
Larraurin denak batuta
ha zan ha erromeria.
Ha zan ha erromeria
Bakio eta **Mungia**
herria zela txikia
baina armoni haundia.

Ha zan ha erromeria
bakotxak zoli begia
halan ezkonduak dira
Antonio ta **Maria**.
Ha zan ha erromeria
Antonio ta **Maria**.

2)
Neska gazteetan bada
zera nori eskeinia
aurrekurako onenak
Juli eta **Herminia**.
Juli eta **Herminia**
zera nori eskeinia
egunarekin solora
hori bai da armonia.

Soltera dagoz oraindik
esperantza galdu barik
Bizkai guztian ez dago
heuren pareko lorarik.
Soltera dagoz oraindik
esperantza galdu barik.

3)
Sokatiran ere hemen
badira bost bat ekipo
nork irabaziko dauen
nik ez dot erabagiko.
Nik ez dot erabagiko
badira bost bat ekipo
edozein izanda ere
ez da izango betiko.

Entrenamentu gogorra
soka arbola orpora
soka apurtzen ez bada
arbola bera kanpora.
Soka arbola orpora
arbola bera kanpora.

4)
Asto famatu bat bada
izena dauka Kirriño
urteak kendu ezker
gaztea dago ondiño.
Gaztea dago ondiño
izena dauka Kirriño
deskantsua eskatu dau
erreuma kendu artiño.

Gure astoa Kirriño
erreuma daukala diño
pentsu apur bat emonda
biziko da hil artiño.
Gure astoa Kirriño
biziko da hil artiño.



Zaldi bat ere hor bazen Zapa izena zeukana.

5)
Zaldi bat ere hor bazen
Zapa izena zeukana
hirurogei bat lagunek
narrua kendu ta jana.
Narrua kendu ta jana
Zapa izena zeukana
harekin edan ei eben
bakotxak kantara bana.

Kendu eutsien narrua
izter galduak errua
Abaroan egin jakon
primerako enterrua.
Kendu eutsien narrua
primerako enterrua.

7)
Orkesta bat hemen bada
Zakil izenez airoso
lagun bat falta jake ta
bera urrun dago preso.
Zakil izenez airoso
bera urrun dago preso
gogoz kantatzen badogu
entzungo dausku akaso.

Mutilak Sorian segi
exilatuak beste bi
gora gaurko gudariak
eta biharko Euskadi.
Mutilak Sorian segi
eta biharko Euskadi.

6)
Mungiak horra zer daukan
Larraurirako emona
kanposantua ekarri
behar ei dauskue hona.
Behar ei dauskue hona
Larraurirako emona
emoten daben bakarra
han ere sobra dagona.

Frontoia erdi jausia
bidea zuloz josia
kanposantu barik ere
badago nondik hasia.
Frontoia erdi jausia
badago nondik hasia.



Juli eta Herminia soltera dagoz oraindik.

LAURO

1980. Iraila. 29

1)
Unbemenditik eta
Lainomendira
zaldiak behorrekin
ezkontzen dira
mendira
ezkontzen dira.

2)
Gaua pasatu dogu
bart Lainomendin
gure bistan akerrak
umeak egin
Lainomendin
umeak egin.

3)
Guzurra bada zoaz
Unbemendira
auntzak han txaletean,
bizi ei dira
mendira
bizi ei dira.

4)
Laurotako zaindari
dela San Migel
ahotik sartu ezik
atzea zimel.
San Migel
atzea zimel.

5)
Laurotan errotak bai
ta artorik ez
andaparak trenean
bota leitekez
artorik ez
bota leitekez.

6)
Batetik Derio ta
bestetik Loiu
indabak erein eta
kokoak koiu
ai Loiu
kokoak koiu.

7)
Laurotako bidea
zuloz betea
txartoago balego
a zer bakea
betea
a zer bakea.

8)
Zapatuan partidu
ederra bazan
Hurikoak nagusi
hemengo plazan
ai bazan
hemengo plazan.

9)
Partidu haserrea
zazpi eta sei
galtzaileak hurrengo
irabazi lei
eta sei
irabazi lei.

10)
Gogaitzen bazarie
eizue barre
mundua holantxe da
iso ta arre
ai barre
iso ta arre.

UNBEMENDIRA: Mendi baten izena. Orain ezagunago hango txalet lekua
dela bide.

A ZER BAKEA: Trafiko gutxiago izango bailitzateke, auzoen bakerako

LAUROTAKO AUZOAK

1)
Bertso barri batzutan
hemengo puntuak
jorrazeko agintzen
dausku talentuak.
Astintzen baditugu
bizien kontuak
eta saltoka hasten
idiren defuntuak.

2)
Larrakotsen jokoa
eta kulepea
milagroa da hortik
sano urtetea.
Milaka hogerlekoz
maigaina betea
kasino txiki hori
ez da ez merkea.

3)
Iberren oilo granja
oker ez banago
errekako kangrejo
guztiak akabo.
Leku txikian jente
ugari ei dago
hoiek ez ditu errez
urak eroango.

4)
Lañen probalariak
aida eta zantzo
jente hori ez dago
geldi eta mantso.
Bazkariak hartuta
noiznai kanpo-martxo
hemen ere ederra
bota eben atzo.

5)
Ikastola galantez
han Lauro Txikerra
janda lo egiteko
paraje ederra.
Jente bertsolaria
eta ez alperra
ea geuri ipintzen
dauskuen gaur gerra.

6)
Lauro Nausian ei da
jente indartsua
odol beroa eta
sendoa pultsua.
Munaben *Opus Dei*
ez dago antzua
larri dagonak hoiei
eskatu pentsua.

7)
Huria ei da Loiu
sikuan labana
horra Landatxueta
eta Gosalana.
Udan azal guria,
neguan gabana
guretzako hoba da
arto zorro bana.

8)
Bertso honekin gagoz
amaitu beharrik
ezer okerrik bazen
ez egin negarrik.
Gure gogoan ez da
izan asmo txarrik
amimazio pizkat
ipini bakarrik.



Hurrengo gura neuke Damasori
botatea, gizonetik gizonera Lau-
rotako alkatea.

KANPO - MARTXO: Txitxiburduntzi, basatozte, basokoipetsu... Hamaika
izen badu urteko egun jakin batez, ihauteri inguruan, mendira egiten den
irteera honek, burduntzikoa janez.

LAUROTARRAK

1)
Gran Viatik Deustun gora
eta Artxandara igo
handik hona begiratu
eta dena ei da Bilbo.
Eta dena ei da Bilbo
eta Artxandara igo
ea lenengo iruntsi
ta gero gaituen hilgo.

Txoriherriko lautada
Lezamatik Laurotara
Bilbo konpondu daitela
Santo Domingotik hara
Txoriherriko lautada
Lezamatik Laurotara.

2)
Lauro Nausi ta Txikerra
untegi bat badaukie
etxe bakotzak berea
perratzea dagokie.
Perratzea dagokie
untegi bat badaukie
zapatarik ez dabenak
nora joan badakie.

Gure errementaria
idia edo zaldia
bardin konpontzen ei dabe
asto belarri handia
idia edo zaldia
asto belarri handia.

3)
Larrakotsen ere bada
errementariko plana
diruak amaitu eta
nork ipini falta dana.
Nork ipini falta dana
errementariko plana
ganaduak hankaz gora
egin beharko dau lana.

Ganaduek hankak launa
eta hankaz gora lana
jantzi beharko jakie
zapata bortzegi bana
ganaduek hankak launa
eta hankaz gora lana.

4)
Oitura bat bazen hemen
auzoaren pozgarria
tabernan egiten zena
urteroko bazkaria.
Urteroko bazkaria
auzoaren pozgarria
barriro martxan jartzeko
egiten dot eskaria.

Bazkari bat urtean bein
auzo guztien atsegin
bakar hori kendu baino
hoba zan bi bider egin.
Hoba zan bi bider egin
auzo guztien atsegin.

5)
Hurrengoa gura neuke
Damasori botatea
ezer egin behar bada
lasai jo horren atea.
Lasai jo horren atea
Damasori botatea
gizonetik gizonera
Laurotako alkatea.

Agoazil ipintekoa
Iñaki Arbildukoa
mundu hau eta bestea
astintzeko modukoa.
Agoazil ipintekoa
Iñaki Arbildukoa.

6)
Titulu askoren jabe
Abelino Abaroko
hiltzaile zein tratulari
kolpe hutsik ez dau joko.
Kolpe hutsik ez dau joko
Abelino Abaroko
zeozer asmatuko dau
orain ez bada geroko.


Abelinori ez jako
lagunik inon faltako
edozertarako ona
onena tabernarako
Abelinori ez jako
lagunik inon faltako.

7)
Juliren semea Fontsin
badaki munduko barri
ikusteko bost begi ta
entzuteko sei belarri.
Entzuteko sei belarri
badaki munduko barri
laster aita izango da
eta txanpana ekarri.

Barriak munduan zehar
gaur bat eta zazpi bihar
hori bizi den herrian
ez da korreorik behar.
Barriak munduan zehar
ez da korreorik behar.

8)
Fontsin eta Abelino
alkarrekin lotzekoak
hoiek ez ditu hain errez
harrapatuko zepoak.
Harrapatuko zepoak
alkarrekin lotzekoak
hasarratzen dira baina
biak esne batekoak.

Non eta zer komeni dan
gerran edo komedian
badaezpada hoiekin
ez hadi sartu erdian.
gerran edo komedian
ez hadi sartu erdian.




Fontsin eta Abelino alkarrekin
lotzekoak, hasarratzen dira baina
biak esne batekoak.

9)
Hurrengo Jose Errota
edo Errotako Jose
*zer moduz bizi haz eta
hementxe beti lez gose.*
Hementxe beti lez gose
dabil Errotako Jose
adarra joko dautzue
adar barik bazagoze.

Felipe Trauku zesteru
laurogei urte inguru
horren eskuko aulkian
eun urte ere seguru
laurogei urte inguru
eun urte ere seguru.

10)
Beste Jose bat hor bada
Jose Beika deritxona
Franko hilda pozen pozez
hiltzeko gertu zegona.
Hiltzeko gertu zegona
Jose Beika deritxona
Franko hil zan baina oindik
hor dabil gure gizona.

Jose Beikaren buruan
Paxiko beste munduan
lentxoago joan balitz
estimatuko genduan
Paxiko beste munduan
estimatuko genduan.




Jose Errota.

11)
Pentsatu dogu **Arbildun**
lapikoa betetzea
animaliak kontatzen
bada naiko kurutzea.
Bada naiko kurutzea
lapikoa betetzea
etxe hori ei da aurki
Laurotako juntetzea.

Gazteak juntatzen dira
baina ezin erretira
botila bana hartuta
gauean lastategira
baina ezin erretira
gauean lastategira.

12)
Honetan amaitzen dogu
gure **Laurotako** jira
guzurrak izan ei dira
dozenatik hamabira.
Dozenatik hamabira
gure **Laurotako** jira
hurrengo San Migeletan
egiak entzungo dira.


Hauxe dogu akabera
plaza honen zabalera
guzur ta egi erdizka
ziren gitxi gora bera
plaza honen zabalera
hauxe dogu akabera.



Iñaki Arbildukoa, mundu hau eta bestea astintzeko
modukoa.

URRETXU

1981. Apirila. 26



Iparragireren harri irudia Urretxun.

1)
Urretxuko herrian
festa handiak
dantzara omen datoz
goiko mendiak
handiak
goiko mendiak.

2)
Agur guztioi eta
arratsaldeon
hankak sano dituna
ez geldi egon
aldeon
ez geldi egon.

3)
Ehun urte hil zela
Iparragirre
haren zuzia ez da
oraindik erre
ez erre
Iparragirre.

4)
Dote onik ez omen
dator festatik
noiz erretiratuko
garen eztakit
festatik
garen eztakit.

5)
Umore ona ez da
horren garesti
txanpon batzuk dituna
ez dago gaizki
garesti
ez dago gaizki.

6)
Goizean goiz agindu
digu oilarrak
enterratzeko urre
eta zilarrak
oilarrak
eta zilarrak.

7)
Hiru *fandango* eta
lau *arin-arin*
besoak gora eta
hankei eragin
arin-arin
hankei eragin.

8)
Iparragirre hil zen
pizteko fedez
gaur ez bada piztutzen
sekula ere ez
gaur fedez
sekula ere ez.

IPARRAGIRRE

1)
Iparragirre hil zela
aurten lenengo mendera
hil zela baina piztu da
eta hona hemen bera.
Eta hona hemen bera
aurten lenengo mendera
Besteok ere pizteko
hiltzekoak omen gera.

2)
Eun urte igoten eta
urrun dago mendi gaina
zorionez piztu zara
ez zenun hil behar baina.
Ez zenun hil behar baina
urrun dago mendi gaina
Ez dakit baden haizerik
berriz ez hiltzeko aina.

Bat)
Urretxun nire omenez
festa handiak zirenez
etortzea pentsatu dut
Jaungoikoaren baimenez.
Urretxun nire omenez
festa handiak zirenez.

Bi)
Nik uste nuen arnasa
hartuko nuela lasa
Zertan arraio duzue
mende luze hori pasa?
Nik uste nuen arnasa
hartuko nuela lasa.

3)
Mende hori pasa zaigu
argi geiegirik gabe
zure amets handietan
oraindik lenean gaude.
Oraindik lenean gaude
argi geiegirik gabe
Laster esnatuko zara
baldin bazatoz logale.

4)
Infernutikan al zatoz
arima galduen gisan?
Ez al zinen, ba, zeruko
oilar nonbratua izan?
Oilar nonbratua izan
arima galduen gisan
Euskaldun batentzat hori
nonbait gradu geiegi zan.

5)
Kitarrarik gabe ere
etor zintezke lasai zu
berria emango dizut
jotzen aztu ez bazaizu.
Jotzen aztu ez bazaizu
etor zintezke lasai zu
Azturik bazeunde ere
berdin zara gure maisu.

Hiru)
Istilu txarren bat jasan
behar al dut neure plazan?
Hortako aukera ona
infernuan ere bazan.
Istilu txarren bat jasan
infernuan ere bazan.

Lau)
Aingeruak biltzen ziran
nire kantuen desiran
baina San Pedrok etorri
ta kitarra kendu zidan.
Aingeruak biltzen ziran
ta kitarra kendu zidan.

Bost)
Kitarra zen nire dama
euskara zen nire ama
bat galdu arren besteak
nire arima darama.
Euskara zen nire ama
nire arima darama.



Kitarra zen nire dama, euskara zen nire ama.

6)

Euskara diozu baina
gauzak daude naiko estu
zu hil zinetik hona
itxura hoberik eztu.
Itxura hoberik eztu
gauzak daude naiko eztu
kitarra hori jotzeko
behar dira zazpi esku.

7)

Hiletak utzi ta goazen
dantzan mutil eta neska
zu beintzat bizirik zaude
eta hori gutxi ezta.
Eta hori gutxi ezta
dantzan mutil eta neska
zuretzat egina da ta
pasa zazu ongi festa.


Sei)

Eun urte direla bete
oraindik hor al zaudete?
Euskara gabe piztuta
berriz hilko nintzateke.
Eun urte direla bete
berriz hilko nintzateke.

Zazpi)

Hila nintzela diote
festa hauek piztu naute
ez noa beste mundura
hanka biak galdu arte.
Hila nintzela diote
festa hauek piztu naute.

GERNIKAKO ARBOLA



Arbola honek badu hosto eta adar
gure lurraren karga enborrean dakar.

1)
Gernikako arbola
da bedeinkatua
euskaldunen artean
gutziz maitatua.
Ez da gozoa eman
dioten tratua
askorentzat izan da
madarikatua
guretzat huraxe da
haritz sakratua.

2)
Arbola honek badu
hosto eta adar
gure lurraren karga
enborrean dakar.
Zenbaitek nahi luke
dezala suak har
Gernika erretzean
ondoan zenbat gar
bera han geratu zen
zutik eta bakar.


3)
Gure mendi goietan
bada hainbat zuhaitz
ezagutu dutenak
horrek aina ekaitz.
Baina ez dira gure
haritzaren bekaitz
zuhaitza beti eder
lur bigun naiz harkaitz
Gernikakoa dago
oraindik makurgaitz.

4)
Zuhaitz hura maite dut
eta horra nola
ez uste apaingarri
soiltzat han dagola.
Odol askatuaren
prenda da arbola
zer tristea litzaken
hala edo hola
arbola gorde eta
galtzea odola.



Gernikako arbola Urretxun landatzen, Iparragirre-
ren omenaldian.

5)
Zuhaitzak eusten die
txorien jolasei
zortzi baino naiago
gainean hamasei.
Zuk ere egiezu
hosto hoiei usai



baina ez, otoi, inoiz
jarri arbolazai
itzalpean etzanda
bizitzeko lasai.

6)
Gernikako arbola
adar eta gerri
eusten diona hainbat
sentimen ederri.
Soinean daramatza
zazpi Euskal Herri
nai baduzu euskaraz
jakin haren berri
galdetu ezaiozu
Iparragirreri

AMARA BERRI

1981. Maiatza. 14

1)
Haizeak txistu jotzen du
Euskara Auzoetara
ilunpean dagoena
nairik argira atera.
Nairik argira atera
euskara auzoetara
bestela gure hizkuntza
laster doa pikutara.

2)
Hau da euskararen festa
gutxiagorako ezta
duro baten ordeze zeinek
emango du mila pezta.
Hau da euskararen festa
gutxiagorako ezta.

3)
Sekula ez gara izan
oraintxe bezain egarri
mozkortzen baldin bagara
anbulantzia ekarri.
Anbulantzia ekarri
oraintxe bezain egarri
inor ez baldin badator
eutsi mutilak elkarri.

4)
Orduak doaz aurrera
erlojuaren karrera
Amara Berritik gero
bagoaz Parte Zarrera.
Orduak doaz aurrera
erlojuaren karrera.

5)
Oso gaizki zegon gure
auzoko Mari Aldarte
ez zen gaixoa sendatu
bere senarra hil arte.
Bere senarra hil arte
auzoko Mari Aldarte
senarra hil eta gero
bera herriko alkate

6)
Non da nire emaztea
bata ez bada bestea
nai nuke pultsua eta
nola dauzkan ikustea.
Non da nire emaztea
bata ez bada bestea.

7)
Batzuek dute andrea
beste batzuek maitea
ezer ez daukanak kontuz
non jotzen duen atea.
Non jotzen duen atea
beste batzuek maitea
gerta ez dadin etxera
larru hutsean joatea.

EUSKARA AUZOETARA: Lema honekin antolaturiko jaialdia izan zen.

FIKA

1981. Maiatza. 30

1)
Arratsaldeon Fikarrak eta
beste entzule guztiak.
Zueri kantuz bialdu gaitu
sartzen doan eguzkiak.


2)
Gu gara goizez eguzkiari
kantatzen dautsen oilarrak.
Gu gara gaez ere kantari
jagitzen diren izarrak.

1)
Herri txikia baina
bai jai handiak
dantzara datozela
goiko mendiak.
Handiak
goiko mendiak.

2)
Goitik Larrabetzu ta
bestetik Gamiz
alperrak hemen ere
astiro dabiz.
Ai Gamiz
astiro dabiz.

3)
Dirua ez da gure
alde dagona
baina bai umorea
asko ta ona.
Dagona
asko ta ona.

4)
Bihar hogeitamaika
agur maiatza!
Asto finak oraintxe
egin arrantza.
Maiatza
egin arrantza.



Zenbat urte ote dira laurogeita hamazazpi?
Norbertak ikusi ditu berrogei mila eguzki.

FIKAKO BARRI

1)
Txori batek esan dausku
Fikako jaiak direla
ondo bazkaldu dauenak
ez dauka narru zimela.
Ez dauka narru zimela
Fikako jaiak direla
baten bateri pattarrak
erreko dautso gibela.

Kantatzen eta dantzatzen
fikarrak ez dira atzen
baina elizan ez jake
sermoi luzerik gustatzen
kantatzen eta dantzatzen
fikarrak ez dira atzen.

2)
Bazen Fikako gizon bat
Jose Bilbao zeritzana
hemen da herriko plaza
haren diruz egin zana.
Haren diruz egin zana
Jose Bilbao zeritzana
komeni zen koplartea
hain eskuzabal izana.


Plaza polit hori jagon
egiozue jaramon
ea hurrengo urtean
frontoia eginda dagon
plaza polit hori jagon
egiozue jaramon.

3)
Fikako jaiak luzitzen
ditu gaur umore onak
hamar urte izan ziren
bapere barik egonak
bapere barik egonak
ditu gaur umore onak
aurrerago bai astintzen
ziren prakak eta gonak.


Toroak edo zezenak
okerrak eta zuzenak
naiko komedi bazeukan
giltzekin Pelaio zenak
toroak edo zezenak
giltzekin Pelaio zenak

4)
Orain sei urte futbolak
Fikan jo eban tronpeta
mutikoek irabazi
Atletic-ko txapelketa
Atletic-ko txapelketa
Fikan jo eban tronpeta
barriro gatz izango da
zelaia kendu jake-ta.

Orduan ziren mutiko
gaur dira gazte sasoiko
soldadutzan ez al dabe
zelai faltarik eukiko
orduan ziren mutiko
gaur dira gazte sasoiko.



Gabino.



Patxi.

5)
Ez dakit egia ala
guzurra izango dan be
Fikako umeak orain
erdaraz eiten ei dabe
erdaraz eiten ei dabe
guzurra izango dan be
martxa hontan laster gara
herri andaluzen pare.

Euskararen hondamenak
ez dira umearenak
nausiak dira txarrenak
bardin egiten dabenak
euskararen hondamenak
bardin egiten dabenak.



Izazkun.

6)
Kamino zarra ta txarra
len bazen naiko komedi
orain osterak kotxeak
asko eta arinegi
asko eta arinegi
len bazen naiko komedi
ezbeharren bat baino len
behar dena egin bedi.

Ona da bide barria
errespetoan jarria
arinegi doanari
bota burura harria
ona da bide barria
bota burura harria.



Itziar.

7)
Fikako neska mutilek
aspaldion dauken muda
herrikoek alkarrekin
ez dabe buztartu gura
ez dabe buztartu gura
aspaldion dauken muda
hain hotza ete dago, ba
gure iturriko ura.

Lora onak dagoz gitxi
eta zimeltzen ez itxi
arantza bako larrosak
horra **Gabino** ta **Patxi**
lora onak dagoz gitxi
horra **Gabino** ta **Patxi**.

8)
Larrosa hoiek ez ete
dabe izar bana behar?
Zeri begira zagoze
Izaskun eta Itziar?
Izaskun eta Itziar
dabe izar bana behar
akaso nobedadeak
zabalduko dira bihar.

Hemengo mutilak kapaz
dira egiteko hegaz
Fikatik ezkontzen hasi
dira **Gamizko** neskakaz
hemengo mutilak kapaz
dira **Gamizko** neskakaz.

9)
Udaletxez bat eginda
dagoz **Fika** eta **Gamiz**
gauza ederra ezkontzak
bien artean badabiz
bien artean badabiz
dagoz **Fika** eta **Gamiz**
beste gauza guztietan
ere hoba holan balitz.

Erreza da ezkontzea
konpontzen dago untzea
herri biok izan beitez
gorringo biko arrautzea
erreza da ezkontzea
gorringo biko arrautzea.

10)
Zenbat urte ete dira
laurogeita hamazazpi
Norbertak ikusi ditu
berrogei mila eguzki
berrogei mila eguzki
laurogeita hamazazpi
eun urte beteko ditu
buruko moino ta guzti.

Begira nago begira
Norbertaren aurpegira
horren aurretik ondino
makina bat joango dira
Begira nago begira
Norbertaren aurpegira.

11)
Fikan zehar hara hona
hau da hamaikagarrena
arnasa erdi hartzea
ez da izango txarrena
ez da izango txarrena
hau da hamaikagarrena
arnasa baten jaten da
asto baltzak dakarrena.

Asto baltza tiki-taka
bost gizon hari tiraka
ez joan inor etxera
onenak falta dira-ta
asto baltza tiki-taka
bost gizon hari tiraka.

BEDIA

1981. Ekaina. 23

1)
Bihar bada San Joan
gaur da bezpera
askorik ez da falta
batetik bestera.
Bezpera
batetik bestera.

2)
Hau da Kolazinoa
edo Bedia
baten batek aldrebes
dauko begia.
Bedia
dauko begia.

3)
San Joan suak dira
laster egingo
sorgin bihurtu ei da
Mari Goringo.
Egingo
Mari Goringo.

4)
Artoak eta babak
ganbaran gorde
sapo, suge ta pizti
guztiak erre.
Ai gorde!
guztiak erre.

5)
Ardo barik samea
siketan jatak
lurrak hartuko leukek
zaparrada bat.
Ai jatak!
zaparrada bat.

6)
Bedian San Joanak
urtean urtean
gu ez goaz hemendik
bialdu artean.
Urtean
bialdu artean.

KOLAZINOA: «Colación de Bedia» erdal izenetik datorrena eta oraindik ere hango nagusiek esaten dutena.

BERRIATU

1981. Ekaina. 28

1)
Bihar bada San Pedro
gaur da bezpera
bost ordu falta dira
batetik bestera.
Bezpera
batetik bestera.

2)
Bihar San Pedro eta
etzi San Pablo
santurik ederrena
naiko janda lo.
San Pablo
naiko janda lo.

3)
Ondarruk iruntsita
dago Berritxu
len herri ginen eta
orain herritxu.
Berritxu
orain herritxu.

4)
Euskal Herrian bada
naiko atsekabe
auzo herriok alkar
jaten hasi gabe.
Atsekabe
jaten hasi gabe.

5)
Bihar San Pedro eta
agur kukua
geratzen dena ere
erdi mutua
kukua
erdi mutua.

BERRITXU: Inguru honetan honelaxe ahozkatzen da Berriatu edo Berritu.

AÑORGA

1981. Uztaila. 11

1)
Agur Añorga eta
lenbizi gabon
bagatoz ikustera
hemen zer dagon.
Ai gabon
hemen zer dagon.

2)
Zer dagon ez dakigu
zer falta den bai
hamabiak jotzeko
pare bat kanpai.
Zer den bai
pare bat kanpai.

3)
Gaueko hamabiak
ordu ederra
pakea utzi eta
hasteko gerra.
Ederra
hasteko gerra.

4)
Zeru garbian ere
Añorgan laino
zementua sartzen da
gibeleraino.
Ai laino
gibeleraino.

5)
Zementua da gure
hauts katolikoa
Rezola jauna berriz
Aita Jainkoa.
Jainkoa
katolikoa.

HAMABIAK JOTZEKO: Hamarrak aldean hasi baitzen jaialdia.

BERGARA

MAISU - MAISTRAK

1981. Uztaila. 10

1)
Hastera goaz eta
arratsaldeon
gu hemen gauden arte
zuek hor egon.
Aldeon
zuek hor egon.

2)
Koplatu behar ditut
maisu ta maistra
txikitatik hoiekin
laguna naiz-ta.
Ai maistra
laguna naiz-ta.

3)
Maisu batek burua
zidan handitzen
bistatik galtzarren
fraile joan nintzen.
Handitzen
fraile joan nintzen.


4)
Maistrari berriz deitu
behar *señorita*
seilu berdina hankaz
gora erorita.
Señorita
gora erorita.

5)
Maistra bat maite nuen
ume barrabana
usterik zela gure
akerraren ama.
Barrabana
akerraren ama

6)
Señorita permiso
prakak eskegi
bi zaplada emanda
bueltan beste bi.
Eskegi
bueltan beste bi.

7)
Gure eskolan bazen
eskola klasea
aurrerapen motza ta
makila luzea.
Klasea
makila luzea.

8)
Oraingo maisu-maistrak
titulu zaleak
izena ere dute
irakasleak.
Zaleak
irakasleak.




Eskolatik ihes eginda.

9)
Akabatzeko zerbait
gaizki ote zan
barkatu baina ez dut
gezurrik esan.
Ote zan
gezurrik esan.

ARRIANDI

1981. Uztaila. 18



Arriandiko Santa Maina.

1)
Santa Mainetan gatoz
Arriandira
soinua plazara ta
auntzak mendira
Mendira Arriandira
jaiak dibertitzeko
izaten dira.

2)
Dieziotxo de Julio
egun ederra
egun hortan hasi zen
hemengo gerra.
Ederra
hemengo gerra
katean sustoz hil zen
gure akerra.

3)
Zer mina egun horrek
sartzen daustana
paga doblearekin
osatzen eztana.
Daustana
osatzen eztana
gaur be harro ta luze
darabil buztana.

4)
Papelerak botatzen
dauen ke baltza
zeru garbian ere
inpernu antza.
Ke baltza
inpernu antza
ez da bape hobe
dakarren hatsa.

5)
Papeleran botaka
dabil apea
prezioen altura
ia hankapea.
Apea
ia hankapea
basoan ustelduta
ai zer bakea!

6)
Len pinua zen nausi
orain ezebez
debalde daroe ta
bera mesedez.
Ezebez
bera mesedez.
Hoba paper fabrikok
erreko balebez.

7)
Alperrik dira hemen
negar ta mainak
hesteak garbitzeko
patata bainak.
Ta mainak
patata mainak
bera *dieziotxo* ta
gora Santa Mainak.

DIEZIOTXO DE JULIO. Egun horretantxe dira hain zuzen Santa Mainak
edo Arriandiko jaiak.



Urrundik zerbait dirudi. Hurragotik sudurrak
itxi behar.

LARRABETZU

1981. Abuztua. 22

1)

Larrabetzuko jaiak
aste bitan zehar
lumatuko zen hainbat
oilo eta oilar.
Bitan zehar
oilo eta oilar
azkenengo ostikadak
gaur eta bihar.

2)

Goian Goiko Elexea
bean Huria
seguru ete dago
erdiko zubia.
Huria
erdiko zubia
astelenetan ai zer
txakur zuria.

3)

Batetik Erletxeta
bestetik Lezama
mozkorrak hankarik ez
eta lau sama.
Lezama
eta lau sama
ez ditu ezagutzen
aita ez ama.

4)
Larrabetzuk haginak
antxinatik ditu
Bilboko trenaren ere
Lezaman gelditu.
Baditu
Lezaman gelditu
honaino ailegatzen
ez zen atrebitu.

5)
Hara Gaztelumendi
eta Bizkargi
ezer ez den lekuan
eskuak garbi.
Bizkargi
eskuak garbi
zeozer den lekuan
begiak argi.

TXAKUR ZURIA: Parranda biharamoneko ajeari edo gorputzaldi joari «txa-
kur zuria» esaten zaio Bizkaiko alderdi batzutan.
GAZTELUMENDI ETA BIZKARGI: Bi mendiren izenak.

UDALETXEA ETA PATAKON

1)
Koplatu behar ditugu
Larrabetzuko barriak
batzuk serioak eta
besteak barregarriak.
Besteak barregarriak
Larrabetzuko barriak.
Negar ala barre egin
esango dau belarriak.

Larrabetzu, Larrabetzu
onean larre baketsu
baina txarrean barrerik
inork egingo ez deutsu.
Larrabetzu, Larrabetzu
inork egingo ez deutsu.

2)
Larrabetzuko herrian
bromarik ez dago bape
preso sartuko ei dabez
lau kontzejal ta alkate.
Lau kontzejal ta alkate
bromarik ez dago bape
paperak bueltaka dabiz
baina kostatuko jake.

Udaletxe ganorazko
Bizkaian ez dago asko
bat egonda bera preso
sartzea dok kakalasto.
Udaletxe ganorazko
Bizkaian ez dago asko.

3)
Deklaratuko al dogu
motiboa garbi zer zan
Erregea Larrabetzun
persona non grata izan.
Persona non grata izan
motiboa garbi zer zan
hori holan bada guzur
handirik ez eben esan.

Pentsatzen dabenak holan
sartzen badabez kaiolan
apenas geratuko den
txori askorik arbolan.
Sartzen badabez kaiolan
txori askorik arbolan.

4)
Larrabetzun hori eta
Gernikan erretolika
erregeari ez jakon
tokatu jira polita.
Tokatu jira polita
Gernikan erretolika
merezi eban hartzea
jaietarako gonbita.

Erregetzat hori ontzat
etxok hartzen gure lotsak
etortzekotan etorri
daitela kabezudotzat.
Erregetzat hori ontzat
daitela kabezudotzat.

5)
Preso joaterik balitz
biderako tiki taka
esan amari ez daiten
maleta ederrik falta.
Maleta ederrik falta
biderako tiki taka
gero han beste maleta
klase bat izango da ta.

Lenago ere gudari
badago preso ugari
baina ez dautse odolik
galduko euskaldunari.
Galduko euskaldunari
lenago ere gudari.

6)
Larrabetzuko Patakon
famatua izango zan
erregeak ere hari
belaunikotzen jakozan.
Belaunikotzen jakozan
famatua izango zan
harek bai merezi leuke
paseatzea karrozan.

Patakon gure errege
balego ai zer mesede!
Orduan udaletxean
ez zan pasako ezebe.
Balego ai zer mesede
ez zan pasako ezebe.

7)
Patakon lapurra zela
baina lapur egizkoa
pobreentzat ona eta
aberatsentzat gaiztoa.
Aberatsentzat gaiztoa
baina lapur egizkoa
inpernuan bera ei da
Justiziko Ministroa.


Oraingo lapurrak horra
jotzen dauskue tanborra
pobreak lumatu eta
gainera goitik zigorra.
Oraingo lapurrak horra
gainera goitik zigorra.

8)
Barri freskoak hartuta
aire zarren durundira
amaitu da Larrabetzun
zehar egin dogun jira.
Zehar egin dogun jira
aire zarren durundira
entzun behar eben batzuk
zoritxarrez urrun dira.

Labur egin bajatzue
suertea daukazue
urrun dagozenak ere
entzun beharko dauskue.
Suertea daukazue
entzun beharko dauskue.



Larrabetzuko alkatea eta kontzejalak.



Kukubiltxo taldea Patakon antzerkia ematen.

PASEATZEA KARROZAN: Larrabetzuko jaietako karroza erakusketak famatuak ziren inguruetan.

EZOZI

1981. Abuztua. 23

1)
Kaixo lagunak eta
guztioi gabon
ikusten al duzue
zer giro dagon?
Ai gabon
zer giro dagon
hankak sano dituna
ez geldi egon.

2)
Bean Soraluze ta
goian Ezozi
andrea saldu eta
auntza erosi.
Ezozi
auntza erosi
larrua kendu eta
galdaran egosi.


3)
Kukurrukuka dagoz
auzoan oilar bi
ezer ez den lekuan
eskuak garbi.
Oilar bi
eskuak garbi
zeozer den lekuan
begiak argi.

4)
Sei arbola ederrez
hau plaza ederra
bertan bizi ninteke
banintz eperra.
Ederra
banintz eperra
izorratuko neuke
eiztari alferra.

5)
Kamioitxo bat hemen
gure mende da
ea martxan hasten den
Ezozin bera.
Mende da
Ezozin bera
Atajutik etxera
joango gera.

ELIZONDO

1981. Abuztua. 30



Elizondo.

KAMIOITXO BAT: Izan ere, solairutzat kamioitxo bat jarri zuten, aterpe-
tzat toldo eta guzti.

NAFARROA

1)

Nafarroa Nafarroa
zuri kantatzera noa
norbaitek etorri eta
ixten ez badit ahoa.
Ixten ez badit ahoa
zuri kantatzera noa
zu baitzara euskaldunen
oihaneko arranoa.

2)

Eiztaririk handiena
Del Burgo dela diote
ifernuko kearekin
egingo luke bikote.
Egingo luke bikote
Del Burgo dela diote
ke hori sudurretatik
pozik sartuko nioke.

3)

Del Burgoren ordez gero
Artzak hartu du eltzea
sukaldari berdintsuak
nola bat hala bertzea.
Nola bat hala bertzea
Artzak hartu du eltzea
eltzea ireki baino
naiago dute lertzea

Bat)

Aralartik Iratira
Arrano Beltza beti da
eiztari pila atzetik
hari tira eta tira.
Aralartik Iratira
hari tira eta tira.

Bi)

Laurogei miloi lenago
geroztik zenbat geiago
probintzi dena jan arte
segitzeko omen dago.
Laurogei miloi lenago
segitzeko omen dago.

Hiru)

Mila miloi superavit
herriak sosik gaberik
gure diputazioak
lapurrentzat lana badik.
Mila miloi superavit
lapurrentzat lana badik.

4)
Bertze eiztari haundi bat
Aizpun edo *U-Pe-Ene*
basurdeak zenbat ume
sei ar eta zazpi eme.
Sei har eta zazpi eme
Aizpun edo *U-Pe-Ene*
hoiek dabilzan lurtean
ez daike haritzik erne.

5)
Iruñeko pregoi jole
gure apaiz Arbeloa
ongi ikasia dugu
haren betiko leloa.
Haren betiko leloa
gure apaiz Arbeloa
predikaria jarri da
behar zuena legoa.

6)
Gobernadorea ere
guri tokatzen zaiguna
debekatu Izarrako
Merindadeen eguna.
Merindadeen eguna
guri tokatzen zaiguna
foruak defenditzeko
horrekin bada laguna.

Lau)
Bere eskolta ta guzi
Baztanen dute ikusi
mamu beltzak ere izuz
joan omen ziren ihesi.
Bere eskolta ta guzi
Baztanen dute ikusi.

Bost)
Maite dute Nafarroa
sinesten dunak errua
jakea gutxi delarik
aldatu dute larrua.
Maite dute Nafarroa
aldatu dute larrua.

Sei)
Zer foru eta zer diok?
Horri bost axola ziok!
Deskuidatzen bahaiz ea
lumatzen gaitun guziok.
Zer foru eta zer diok?
Horri bost axola ziok!

7)
Lenago jendea artzain
Amerikara lan bila
gaur ere gisa berean
Nafarroan zenbat mila.
Nafarroan zenbat mila
Amerikara lan bila
denbora gutxian hau da
egin duten krimen pila.

Zazpi)
Amerikan nafartarrak
hemen base militarrak
guk ere hasi beharko
dugu tirrit eta tarrat.
Amerikan nafartarrak
dugu tirrit eta tarrat.



Baztandar kintoak, hogeita hamalaukoak.

8)

Gaitz guztien sendagarri
hor daukazue **Opusa**
zerutik jatsia omen
den infernuko obusa.
Den infernuko obusa
hor daukazue **Opusa**
egin otoi plaga hori
ez dadin geiago luza.

9)

Aralartik Iratira
Arrano Beltza airean
hegal bata du Hegoan
bertzea Iparraldean.
Bertzea Iparraldean
Arrano Beltza airean
Itzala erdibiturik
mugatzar horren parean.

Zortzi)

Opus Dei Dei Opus
habil hartz horrekin kontuz
Jainkoaren izenean
jango hau ta *Amen Jesus.*
Opus Dei Dei Opus
jango hau ta *Amen Jesus.*

Bederatzi)

Arrano Nafarroako
ez haute aisa botako
hi ez haiz hiltzeko eta
agur santa sekulako.
Arrano Nafarroako
agur santa sekulako.


LAUROGEI MILOI: Dirutza hori zela bide, Del Burgori Diputazioko
lehendakaritza utz erazi zioten.



Baztandarren eguna.

HONDARRIBIA

1981. Iraila. 10



Hondarribia festetan.

1)
Gipuzkoan itxaso
hainbat herri da
Bizkaitik pozik gatoz
Hondarribira.
Herri da
Hondarribira
txuriak eta beltzak
entzun behar dira.

2)
Hemen Hondarribia
eta han Hendaia
Bidasoa puskatzen
gaituen ibaia.
Hendaia
gaituen ibaia
muga hori kentzeko
bada garaia.

3)
Hondarribian bada
hainbat arrantzale
hoiekin nahasian
baserri ta kale.
Arrantzale
baserri ta kale
gauzez errondan eta
goizean logale.

4)
Marinel emaztea
goizean senardun
eguerdian haurdun
gauean alargun.
Senardun
gauean alargun
itxasoko haitzari
eman behar mun.



Hondarribiako agertaldi ospetsuaren zati bat.

5)
Ederki hasi eta
hobeki bukatu
ongi dibertitzea
ez da pekatu.
Bukatu
ez da pekatu
tristerik bizi baino
hobe da urkatu.


ZIZURKIL

1981. Iraila. 12

1)
Bizkaiko lurraldetik
gatoz Zizurkila
umore onez eta
hobearen bila.
Zizurkila
hobearen bila
triste dagonik bada
piztu dadila.

2)
Zizurkil, Asteasu
biak lerroka
Pello Mari Otaño
Pello Errota.
Lerroka
Pello Errota
haien partez guk joko
dugu erronka.


3)
Oso martxa onean
omen doaz festak
eragile nagusi
mutil eta neskak.
Zer festak
mutil eta neskak
ez du hutsik emango
gure orkestak.



Minino, Mikel edo Mikilizio, po-
zik hartuko nuke neure sozio.

4)
Ehundik gora lagun
afari bikaina
ondorengo zezena
tentatzeko aina.
Bikaina
tentatzeko aina
adarra jo zioten
ez zuten jan baina.

5)
Berotzean guztiak
zezenaren aurrez
normal daudela inor
hurbiltzen ere ez.
Ai aurrez
hurbiltzen ere ez
ipurdiak zulatzen
ez zegok hain errez.



Pako, bizikletan zalea eta denak
atzean uzten dituena.

6)
Bihar asto karrera
edo burrokrosa
Pitasek irabazten
badu ai zer poza.
Burrokrosa
badu ai zer poza
Hurrengo alkatetzat
gizon aproposa.

7)
Herrikoek dezaten
irabazi bertan
atzetikan eraman
Pako bizikletan.
Ai bertan
Pako bizikletan
masaiak emateko
astoei hanketan

8)
Minino aipatzea
ez da bizio
izena **Mikel** edo
Mikilizio.
Bizio
Mikilizio
Pozik hartuko nuke
neure zozio.

IZURTZA

1981. Iraila. 13

1)
Goitik **Mañari** eta
betik **Durango**
Izurtzako herria
erdian dago.
Durango
erdian dago
egun honetan gabiz
andapandango.

2)
Izurtzan jaiak dira
seitik hamairura
gauetz errondan eta
goizean logura.
Hamairura
goizean logura
hesteak garbitzeko
iturriko ura.

3)
Atzo gaudantza eta
goizean eguzki
badira hor oherik
ez dabenak busti.
Eguzki
ez dabenak busti
beste asko sartuak
praka eta guzti.

4)
Mañarin zela beti
kasta gogorra
txanpanetan apurtu
dabe rekorra.
Gogorra
dabe rekorra
ondino kendu barik
atzoko mozkorra.

5)
Aita San Antonio
dago Urkiolan
mutilzar-neskazarrak
buztartzeko lan.
Urkiolan
buztartzeko lan
zenbat frutu alperrik
galtzen den arbolan.




Izurtzan honelaxe amaitzen dituzte jaiak.

GAIAK

AITA SAN ANTONIO: Izurtzako herria Durangotik Urkiolara bidean dago.

LEMOIZ



Lemoiz eta bere izpiritua.

A a a Ai Lemoizko zentrala
horixe bai badala
ifernuko magala.

E e e Ona dela diote
askoz hobe lukete
apurtuko balute.

I i i Zentral nuklear hori
ez zait gustatzen niri
ifernua dirudi.

O o o Zentral hori hor dago
hobe itxas barrengo
ur azpian balego.

U u u Oilarrak kukurruku
zentral madarikatu
horrexek hilko gaitu.

A a a Aurrerapen zatarra
galdara nuklearra
onena ere txarra.

E e e Orain nago haserre
egingo nuke barre
suak balezak erre.

I i i Sententzia Lemoizi
lenengo jota hausi
eta gero ikusi.

O o o Biziaren kontrako
labe hori zertako
ez al dugu botako?

U u u Umorerik baduzu
joanda aurretik musu
ta atzetik eman su.

A a a Aurrera doa gerra
ez litzake ederra
dena galdu beharra.

E e e Ez nago lasai bate
nuklearrezko ate
guztiak bota arte.

I i i Ez da hemen indarririk
nai ez duen bakarrik
baina ez nuklearrik.

O o o Aizu, Iberduero!
ez bakerik espero
hortan orain ez gero.

U u u Euskaldunak gara gu
odolik badaukagu
irabaziko dugu!

A E I O Uhuhuhu!

A Asto zaharrak arrantza
E Ardi zaharrak bekeke
I Atso zaharrak ihihi
O Idi zaharrari ooo!
U Sorgin zaharrak uhuhu.

A Aurrera doa gerra
E Egingo nuke barre
I Baina ez nuklearrik
O Aizu, Iberduero!
U Irabaziko dugu!

Euskaldunak gara gu!
Irabaziko dugu!!

U u u Irabaziko dugu!
Irabaziko dugu!!
Irabaziko dugu!!!



Baina ez nuklearrik!



Lemoizen aurkako egun bat.

TEJERO



Eskuak gora eta buruak lurrera.

1)
Nor da tronpeta hotsez
datorren zalduna
begiratzen ari naiz
piztien albuna.
Uniformetik beintzat
ez da euskalduna
badator Tejero ta
bakoitzak al duna.

2)
Aquí no pasa nada
akerrak lurrera
gure pazientzia
aspaldi erre da.
Eskuak gora eta
buruak lurrera
ez dago bromarikan
hemendik aurrera.

3)
*Aquí no pasa nada
pero ya pasará*
hartu behar duzue
kristoren pasada.
Berriketa garaia
aspaldi pasa da
haurrak ohera eta
tankeak plazara.

4)
Espainia bakarra
handi ta librea
puskatzeko ireki
duzue bidea.
Demokrazia ez da
gure haurridea
aprobatu behar zen
armen kalibrea.

5)
Zer demokrasi eta
zer kristoren grazi!
Hontako al genuen
gera irabazi?
Hemen behar dena da
historia ikasi
lepoak moztu eta
enterratzen hasi.

6)
*Aquí no pasa nada
más que lo que pasó*
deskoidatzen denari
pare bat balazo.
Berriketari jarrita
hainbeste pailazo
zirku hau bukatu da
betiko akaso.

AQUI NO PASA NADA: Kongresura sartzean, Tejerok esaniko hitz horiek famatuak izan ziren.

MILA ESKER

1)
Aizu koronel Tejero
zaudela diote ero
burua galdurik edo.
Ia kolpera piztu zenitun
Patziko eta Karrero
jarri duzu pertza bero
preso omen zaude gero
mariskoak egünero.

2)
Gizonak arma ta katez
martirien borondatez
gainera zetozten artez.
Ez zaude ero, ene Tejero
eta lasai egon zaitez
nai zenuten kolpe batez
Euskadi estali pakez
mila esker gure partez.



Aquí no pasa nada, pero ya pasará.

REALA NAGUSI

1)
Kantatzerik baldin bada
ezkutuan ezin laga.
Sartu baginen ligara
nagusi itzuli gara
Realari begirada
onenak ez al dira, ba?

2)
Realak jo du kolpea
Tejerok baino hobea.
Iaz galdu zen lorea
aurten frutu dotorea
Madrilek galdu ordea
Hau duk zorion doblea.

3)
Merenge txuriak kare
bihurtu omen dirade.
Gijondarrak prima gabe
Madrilen zer atsekabe
hemen ez ginen logale
txapel handiaren jabe.

4)
Indarrez gaude gordinak
bihotzez ere berdinak.
Madrildarren giltzurriak
erre ditu biperminak
azaina handien zurginak
gu gara *Txuri-Urdinak!*

5)
Iazko penen ordaina
aurten harrapatu gaina.
Txikiak garela baina
horra lezio bikaina
badaukagula tamaina
libre izateko aina.

6)
Zelaian hamaika zuzi
ez gaude argiz biluzi.
Bestela gauzak itxusi
baina hortan da ikusi
kontrako haize ta guzi
EUSKADI DELA NAGUSI.

GIJONDARRAK: Hain zuzen Gijonen, azken partiduan, irabazi zuen liga
Realak, Gijondarrek prima ederra galdurik.

JOAN GINEN MADRILA

1)
Txapela jantzi eta
eskuan makila
tren berria hartuta
joan ginen Madrila.
Batzarrak dozenaka
berriketak mila
atzean min duena
izorra dadila.

2)
Han sartu ginen zerbait
baginelakoan
zintzarri bana jarri
ziguten lepoan.
Tilin-talan eguna
ibilitakoan
auntzak barrura eta
akerrak kanpoan.

3)
Ustez ari zirela
arretaz entzuten
gure diskurtsoetan
lo egiten zuten.
Ez dakigu nolako
belarria duten
hamaika hitz alferrik
egin dugu aurten.

4)
Gure kontua hala
baita geienean
denbora galdu eta
buelta azkenean.
Eskutsik ere pozik
gentozen trenean
eskua bera kendu
ez zigutenean.

5)
Astoan joan eta
mandoan etorri
tonto diploma baizik
ez dugu ekarri.
Arratsean oskarbi
goizean oskorri
larrua eman diogu
parlamentu horri.

6)
Urtea bota dugu
Madrila begira
ez da gozoa izan
hango erretira.
Ezker abertzaleak
batzen ez badira
hemengo izatea
joan zen ilargira.

7)
Madrilek esan zuen
Euskadi al bote
uzkerrari errenta
kenduko lioke.
Lapurrak diren ala
tratanteak ote
koadrila berekoak
garela diote.

8)
Orain badakizue
handik bai eta bai
hemen ere maisu jaun
askok horixe nai.
Zer esan behar dugu
bai-bai ala ai-ai?
Goraintzi bana eta
gure partez jajai!

KOADRILA BEREKOAK: Madrilen dabiltzanak, alegia, hauen ahoan jar-
tzen baitira bertso hauetako esankizunik gehienak.

BASERRITARREN BIZITZA



Baserritarra bere lanera
goizetik eta gauera.

1)
Esplikatzera noa bizitza
gure baserritarrena
okerrena den ez dakit baina
ez da beintzat ederrena.
Haizeak errez darama lurrak
hain kostata dakarrena
etorkizuna berriz iluna
eta hori da txarrena.

2)
Egunsentian oilarra gora
argia mendian bera
baserritarra bere lanera
goizetik eta gauera.
Asterik aste ordu guztien
kontua eramatera
martxan beharko lituzke jarri
erloju denak batera.

3)
Esaten dute: *ai baserria!*
Euskararen sebaska da!
Baina ez bota animaliei
gramatkarik askara.
Lurrean eta gorago ere
haitzurra sartzen ez bada
laster geratu beharko dugu
ez baserri ez euskara.

4)
Ahora zerbait sartuko bada
lurretik behar du irten
alde hortatik ez da bildurrik
baserria galdu daiten.
Non eta nola ez dakit baina
norbaitek eta nonbaiten
aurrerantz ere segi beharko
lapurrentzat lan egiten.

5)
Errepasu bat eman ezker
Madrilgo errejimenak
neurrigabeak dira lurrean
egin dituen krimenak.
Kontsolatzeko balio badu
kalean bizi direnak
usteltzen eta erdi zorutzen
hasita daude geienak.

6)
Heriotzara kondenatua
dago baserria kasik
ez al da inon sententzi hori
hausteko jende kapazik?
Kexa hutsetik ez dator ezer
tontotzat hartzea baizik
ez dago ondo defenditzerik
atakatzen jakin ezik.

7)
Akabatzera noa bertsoak
mardulak edo igarrak
ez ote gara batzen hasiko
geratzen diren indarrak?
Biziko bada beste biderik
ez dauka baserritarrak
berak jaztea kortan dituen
animalien adarrak.

NEKAZARIAK, LANGILEAK ETA ARRANTZALEAK




1)
Nekazarien gerria
goizero neke berria
lanak irensten digu bizia
eta izerdia.
Aspaldiko baserria
agonian eseria
gu ere gara lurpetik biztu
nai duen herria.

2)

Arrantzaleen besoa
artizarrerantz jaso
sufritu behar haizeen eta
uren eraso.

Arraina bada gozoa
gazia da itxaso
gaziagoa itxas gizonen
bizitza osoa.



3)

Langilearen gosea
ugazabaren ase
kexarik duen miari sartzen
zaio guraizea.

Gorantz tximini luzea
bean betiko leizea
gure izerdiz bustia doa
txistuka haizea.



MENDIAN GORA HARITZA

1)

Mendian gora haritza
auntzak haitzean dabilta
itxasoaren arimak dakar
ur gainera bitsa.
Kantatu nai dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza.

2)

Euskal Herriko tristura
soineko beltzen joskura
txori negartiz bete da eta
umorez ustu da.
Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustora.

3)

Bizitzaren alarguna
heriotzaren laguna
bekoki beltza jarrita ez da
argitzen iluna.
Etorriko da eguna
gogorra edo biguna
kanpai tristeak entzunda barre
egingo duguna.


4)

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari topeka.
Argitu ezak kopeta
penak heuretzat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortxe zegok eta.

5)
Etxe bete demonio
ihuti eta txilio
bihotz errea daukanak ez du
hortako balio.
Hilotzari berdin zaio
esne, ardo naiz olio
bein hilko eta ez ginen penaz
bizitzeko jaio.

6)
Mundua ez da beti jai
inoiz tristea ere bai
baina badira mila arrazoi
kantatzeko alai.
Bestela datozen penai
ez diet surik bota nai
ni hiltzen naizen gauean beintzat
eizue lo lasai.

NIKOLA



1975eko Urriaren 30ean, 59 urtekin hil zen, Zamoran sei urte preso eginda. Erdi hilik askatu zuten, zigorraren azken tantaraino bete erazi ondoren.

Sopelاناتik mundu larrera
laino astunen suzko karrera
Nikola hil da, hil da Nikola
Nabarnizen datza bera.
Askatasunaren harotz
jende zapalduen abots
izana bihotz eta hortz
haitzurak negar dagio baina
ez malko beltzik atera
haren arnasa geratu zaigu
haizearekin batera.

GIZON BAT HIL DA

1)

Gizon bat hil da edo hil dute
lur beltza azpikoz gora
haren lagunak ere lurpean
han geratu da Zamora.
Guk ezin dugu Nikola piztu
joan zen lurraren golkora
baina zergatik ez aterako
preso guztiak kanpora?
Hori ez bada denok lurpera
joanda hobe izango da.

2)

Haizkorakadak mila harturik
azkenak hausten arbola
badakizue haren sustraia
Nabarnizen han dagola.
Lurpean bezain gartzelan nausi
izerdi eta odola
gizon bat hil da edo hil dute
ez betirako inola
aska ezazu Euskadi eta
piztuko zaizu Nikola.

ARGALA



1)
Abenduaren hogeita bata
hura berri kriminala
goizean entzun genuenean
bota zutela Argala.
Oraindik gure historia da
luzea eta zabala
uste duenak Euskadi bere
mutilarekin hil zala
bizirik utzi zuen herriko
oihua jaso dezala.

2)
Gelditu ginen lenbizi gora
gero lurrera begira
danbarrada hark irentsi zuen
izar guztien dirdira.
Mila zatitan leher eginik
pasatu zen historira
zati bakoitza landare bana
lurpetik sortzen ari da
gudari bat hil eta berriak
milaka jaioko dira.

3)
Agur Argala diotzu zure
etxeko Harri Gorriak
agur diotzu mugaz hemendik
eta handik etorriak.
Enborra galdu eta indartzen
adarrak eta horriak
mirari hori egin du zure
zuhaitzaren jatorriak
hil zaituenak aztuko zaitu
baina ez Euskal Herriak.

HARRI GORRIAK: Arrigorriagakoa baitzen.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

1)
Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz.
Bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas.
Bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

2)
Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ezpada
bota dezagun demokrazia
zerri askara.
Geure arima hiltzen uzteko
bezain odol galduak ez gara.
Esaidazue euskara gabe
nola irtengo naizen plazara.
Geure arima hiltzen uzteko
bezain odol galduak ez gara.

3)
Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena?
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

NAFARROA

1)

Zer mina eta ubela
heriotzaren dolu gela
gurean dugu gaubela
gaua bezain egun goibela.
Ama kendu digute
jaiotzen ari ginela
gero diote gure
etxea ere ez dela.
Gurean dugu gaubela
gaua bezain egun goibela.


2)

Gure kondairaren zama
haize arrotz batek darama
ez etxe eta ez ama
hustu dute gure izana.
Ai zer tristea etxe
ama kendu diotena!
etxerik gabe ere
oi ama zer itomena!
Ez etxe eta ez ama
hustu dute gure izana.

3)

Nafarroa, Nafarroa
gure etxeko abaroa
Arranoa arranoa
amarik gabe nora hoa?
Aralartik Irati
haritza eta pagoa
bera ere bi zati
eta josirik ahoa
Arranoa, Nafarroa
etxerik gabe nora hoa?

BIRIBILA




Anbotoko sorgina, Durangaldeko erregina.

1)

Biribila da lur gaina
itxasoa urdina
zerua ere berdina
Euskaldunen aterpea
haizea zen antxina.
Han Isturitz, Altamira
hemen Santimamina
Anbotoko sorgina
gure arima dago harriz
eta haitzez egina.

2)
Izarpeko kobak ziren
orduko bizidendak
basoak eta landak
Kantaurira heldu zena
izango zen baten bat.
Hainbat herri edo tribu
nik ez baitakit zenbat
baina gurea zen bat
historia jan nuela
amets egin nuen bart.

3)
Zenbat aldiz gure tren
zubipera jausia
eskeleto hausia
historian mila gerra
galdurik gagoz ia.
Haizearen bizkarrean
datorren garraisia
lurpetik ihesia
maiteago izaten da
kostatzen den bizia.




Ereñozarren azpian Santimamiñe, argazkiaren eskui-
naldean, oihana hasten den lekuan.


4)
Euskalduna Asiatik
omen dator hain zuzen
kontsolatu gaitezen
gero jarri zuten haurrak
jaiotzea Parisen.
Gutxiena da noiz sortu
eta nondik gatozen
nondibait izango zen
behar dena non gagozen
eta nora goazen.

5)
Errekarik ez da inoiz
itzultzen sorlekua
mendiko sosegura
gure herria hogeigarren
menderarte heldu da.
Hurbil egon ala urrun
itxasoaren muga
horrek zer du ardura
joan doan bitartean
ez da usteltzen ura.

6)
Abereak euki arren
adar eta ostiko
arnasa gabe ito
zezenaren azkena da
jartzea belauniko.
Zutik dagon bitartean
herri hau ez da hilko
ez lurrak irentsiko
haitzartean bada ere
biziko da betiko



Zezenaren azkena da jartzea belauniko.



San Ferminak ala atraku orokor bat?

1)
Bat eta bi hiru lau bost
uztailak seia pasa da
zazpigarrenean berriz
gautxorien ugazaba.
Gautxorien ugazaba
uztailak seia pasa da
San Ferminak dituk eta
hator hi ere plazara.

Deia egin du hain zuzen
plazara irten gaitezen
ez al zuen esan naiko
zezenen bat ote naizen
plazara irten gaitezen
zezenen bat ote naizen.

2)
Zerbait somatzen nuena
horra berak erabaki
ez dut hori esan baina
antzeman dio galanki.
Antzeman dio galanki
horra berak erabaki
zezena ez bada ere
adarka beintzat badaki.

Adarka badakidala
poliki bota dit bala
nik uste dut hemen bera
adar joka ari dala
adarka badakidala
adar joka ari dala.

3)
Ari naizela ari naiz
honen ustez adar joka
norbere hautsak norbaiten
bizkarrera behar bota.
Bizkarrera behar bota
honen ustez adar joka
emaidak adarkada bat
zezen polita hago-ta.

Plazarako bezelako
zezena behar zelako
adar bat badiat baina
hori ez duk hiretzako
zezena behar zelako
hori ez duk hiretzako.

4)
Adartxo hortaz gainera
hik bahitu beste biak
nortzuk jarriko hituzke
adarretik eskegiak.
Adarretik eskegiak
hik bahitu beste biak
jakitea komeniko
litzakela uste diat.

Ai ni banintza adardun
kolpea zeinek behar dun
gobernuaren andrea
utziko nuke alargun
ai ni banintza adardun
utziko nuke alargun.

5)
Madrilgo kaiolan dago
Euskal Herriko kukua
gustora jantziko nuke
gobernuaren lutua.
Gobernuaren lutua
Euskal Herriko kukua
esaiok emazteari
harraskatzeko tutua.

Atso alargun pipermin
guretzat ere ai zer min
deklaratuko dinagu
urte guztia San Fermin
atso alargun pipermin
urte guztia San Fermin.

6)
Urte guztia San Fermin
eta hurrena ere bai
nekatzen ez den soinua
hartuko nuke andregai.
Hartuko nuke andregai
eta hurrena ere bai
eun bider ezkondu arte
hiltzerik ai ez nuke nai.


Eun bider ezkon beharrak
ez dituk zezen meharrak
erdiekin ere badik
naiko lan hire adarrak
eun bider ezkon beharrak
naiko lan hire adarrak.



San Ferminak dituk eta hator hi ere plazara.

7)
 San Ferminetan badago
 zer jana ta zer jantzia
 goizaldean izango da
 norbait galtzak erantzia.
 Norbait galtzak erantzia
 zer jana ta zer jantzia
 ongi luzitu bakoitzak
 darabilen merkantzia.

Ni ere goizalderako
 egokia naizelako
 ongi dibertitu eta
 agur santa sekulako
 ni ere goizalderako
 agur santa sekulako.



Urte guztia San Fermin eta hurrena ere bai.

ARIN - ARIN

1)
 Estanpak saldu eta
 kartak erosi
 gainera Jainkoaren
 grazian bizi.
 Erosi
 grazian bizi
 halaxe dabil gure
Mari Ambrosi

2)
 Jaungoikoa bat eta
 bera naikoa
 bat eta bera hutsik
 gure lapikoa.
 Naikoa
 gure lapikoa
 norbaitek hartuko du
 ipurdikoa.

3)
 Jose da jan da gose
 edanda egarri
 janda edanda beti
 Jose barregarri.
 Egarri
 Jose barregarri
 ez eidazu botila
 hutsik ekarri.

4)
 Santu eginagatik
 norbere burura
 santu ogi jalea
 ez da segurua.
 Burua
 ez da segurua
 hauxe duk infernua
 eta zerua.

5)
 Txilin-txilin koartilu
 bete txakolin
 nondik hator gaur ere
Mari Danbolin.
 Txakolin
Mari Danbolin
 baten batek atorra
 garbituko din.

6)
 Aita San Antonio
 San Antonio
 gure Petra neskazar
 dago oraindio.
Antonio
 dago oraindio.
 Nire partez norbaitek
 emango dio.

7)
Apaiz eta odolki
gizen-flakoak
biak egiten diren
bezalakoak.
Flakoak
bezalakoak.
Gu ere jakin gabe
jaiotakoak.

8)
Ijitu sartu zaigu
Martin Belasko
okela gutxi eta
saldatik asko.
Belasko
saldatik asko
herrian falta dira
hamalau asto.

9)
Ez duk tontoa gure
errotaria
emateko artoaren
truke garia.
Errotaria
truke garia.
Banoa auzora ta
agur, Maria.

10)
Hiru eta hiru sei
hiru bederatzi
oker ez banaiz beste
hamar hemeretzi.
Bederatzi
hamar hemeretzi
hogei urteko neska
bada ez utzi.

11)
Larri ta estu dabil
gure Domingo
zein arraultzek dituen
hiru gorringo.
Domingo
hiru gorringo.
Oilo gabe gauza onik
ez du egingo.

12)
Arre arre zango me
auntzak bost ume
egin ditu hiru ar
eta bi eme.
Bost ume
eta bi eme.
Aupa akerra eta
San Bartolome.

EDERRAK ETA EDERRAGOAK

1)
Ederregia zelako
sasoian irri ta farra
azkenez astoarekin
tratua egin beharra.
Tratua egin beharra
sasoian irri ta farra
alargundu zen ta hortxe
dauka suerte bakarra.

Ederra baina mizkea
ai zer pekatu tristea
pekatu rik tristeena
sasoa joaten uztea.
Ai zer pekatu tristea
sasoa joaten uztea.

2)
Oilo errule gaiztoak
begira nola dabilten
ez dute sekula ere
habia onik aurkitzen
Habia onik aurkitzen
begira nola dabilten
neu ere oilar legean
pozik ezkonduko nintzen.

Oilategira begira
oilar bakarra ari da
beste denak oilaskotan
lumatu ta janak dira.
Oilategira begira
oilar bakarra ari da.

3)
Zakurrak zaunka ta zaunka
gauean ilargiari
zaunka hoiek gora bera
ilargiak beti argi.
Ilargiak beti argi
gauean ilargiari
maitearen begietan
ikusten ditut izar bi.

Izarrak ez bada ere
bi leio eder dirade
zeinetatik sartuko naiz
maiteak igarri gabe.
Bi leio eder dirade
maiteak igarri gabe.

4)
Bidea betean hortxe
datoz hiru neskatila
Zuringo eta Gorringo
eta Mari Mondrongila.
Eta Mari Mondrongila
datoz hiru neskatila
hoiekin ezkontzen dena
ondo janda joan dadila.

Gure etxeko gizona
ere ez dugu gauz ona
ahotik zurru ta purru
eta atzetik klasona.
Gure etxeko gizona
eta atzetik klasona.

5)

Batak *domistikun* eta
besteak *kirieleison*
lapiko batean daude
sei andre ta zazpi gizon.
Sei andre ta zazpi gizon
besteak *kirieleison*
zazpigarren bakarrari
batu zaio Mari Mixon.

Gure atsoa Balendrin
hire larruak egin din
hortzak ere joan zaizkin
eta sorgina dirudin.
Gure atsoa Balendrin
hire larruak egin din.

6)

Eskumin edo goraintzi
emalearentzat hitz huts
emalearentzat hori
ekarlearentzat bi putz.
Ekarlearentzat bi putz
emalearentzat hitz huts
hartzaileak trukatuko
lituzke pare bat pikuz.

Goraintzien aterpea
handian ere merkea
hartzeko bizi naizela
hortxe daukat suertea.
Handian ere merkea
hortxe daukat suertea.

7)

Putza ere izan ez ta
uzkerra garela uste
kaka ere izan ez ta
mokordotzat jo gaituzte.
Mokordotzat jo gaituzte
uzkerra garela uste
zerbait baginela baina
ez nuen uste hainbeste.

Mokordoaren soldata
uzkerra ere zor da ta
hoiek luzitzeko dira
trajea eta gorbata.
Mokordoaren soldata
trajea eta gorbata.

8)

Mari Andresen okotza
sei libra ta zazpi ontza
ezpain ertzetik hagina
dirudiena zipotza.
Dirudiena zipotza
sei libra ta zazpi ontza
ez nau ikusi nai eta
horrek ematen dit poza.

Andrea eta senarra
bikote berdin samarra
haur bat egiten hasita
jaio zaie azkonarra.
Jaio zaie azkonarra
andrea eta senarra.

SAN ANTONIOREN ABEREA

1)

San Antonio eguna
hilak hamairugarrena
gaur da aukera aparta
neskazar-mutilzarrena.
Neskazar-mutilzarrena
hilak hamairugarrena
ez utzi alferrik galtzen
jenerorik ederrena.

Jenero bete-betea
eta gainera merkea
San Antoniok emango
al dizue suertea
jenero bete-betea
al dizue suertea.

2)

San Antonion aurrera
joan ginen abenduan
elkarri ondo heltzeko
ordena hartu genduan.
Ordena hartu genduan
joan ginen abenduan
asagotik milagrorik
apenas egiten duan.

Urkiolara bezero
asko omen da goizero
milagrorik ez da behar
oratzen jakin ezkerro.
Urkiolara bezero
oratzen jakin ezkerro.

3)

Txakur txiki bat badugu
izena Pitxi daukana
ez da handia haziko
txikia baitauka ama.
Txikia baitauka ama
izena Pitxi daukana
aita nor den ez daki ta
karga gutxio darama.

Gure txakur txiki Pitxi
handira ezin iritxi
beharko du janda gero
ipurdia ondo itxi
gure txakur txiki Pitxi
ipurdia ondo itxi.

4)

Asto handi bat badugu
handiagoa belarriz
arrantza egiten daki
egunean hamar aldiz.
Egunean hamar aldiz
handiagoa belarriz
geiago egingo luke
emea gorra ez balitz.

Nora hoa asto Perkin
belarri pare horrekin
handiagoekin ere
guk entzuteko duk berdin
nora hoa asto Perkin
belarri pare horrekin.

5)

Oilar gorri bat badugu
eder bezain harro dela
goizero kantatzen digu
eun bider edo horrela.
Eun bider edo horrela
eder bezain harro dela.
Berak jo ezik uste du
egunik ez datorrela.

Gure oilar eder gorri
begira eguzki horri
hi gabe etor baledi
hobe likek ez etorri.
Gure oilar eder gorri
begira eguzki horri.

6)

Txerri koxkor bat badugu
kurrinkalari zorrotza
ezin digu jakin zer den
urrixa ala ordotza.
Urrixa ala ordotza
kurrinkalari zorrotza
plano berdinean dauzka
buztana eta okotza.

Neguan hiltzea lege
bizirik uztea hobe
lukainka on bat ez dauka
osorik sartuta ere.
Bizirik uztea hobe
osorik sartuta ere.

7)

Mando handi bat badugu
gure jaiotzen testigu
ez du pausorik aldatzen
ez libre ta ez katibu.
Ez libre ta ez katibu
gure jaiotzen testigu
umea egin du eta
orain zer den ez dakigu.

Mandoa dugu umegin
beirik ernaritu ezin
geuk edo San Antoniok
zerbaitetan du hutsegin.
Mandoa dugu umegin
zerbaitetan du hutsegin.

8)

Gure katu beltzak ezin
egunez lotatik aupa
gauean etxe guztia
zoratzten digu miauka.
Zoratzen digu miauka
egunez lotatik aupa
arima kentzen diote
edo sorginen bat dauka.

Gure auzoko Mikela
iluna eta zimela
diote katu beltzaren
arimakin dabilela.
Iluna eta zimela
arimakin dabilela.

9)

Aker handi bat badugu
metro t'erdiko adarrez
eguna ematen dizu
sokan itzulka negarrez.
Sokan itzulka negarrez
metro t'erdiko adarrez
itxusia izan arren
laztan batzuren beharrez.

Gure aker bihozbera
etzan hadi ahoz bera
banatorkik bizkarreko
ile minduak moztera.
Etzan hadi ahoz bera
gure aker bihozbera.

10)

Zezen tentel bat badugu
geuk uste baino gaizkio
urteen urtez adar ta
hankak luzatu zaizkio.
Hankak luzatu zaizkio
geuk uste baino gaizkio
bei bat emanda ez daki
ez nora ta ez noiz io.

Zutik jartzeko bi ordu
egoteko balio du
berez hil arte bizitzen
utzi beharko diogu.
Zutik jartzeko bi ordu
utzi beharko diogu.

ARIN - ARIN

1)
Bihar hiltzen direnak
etzi ehortzi
etzidamu azturik
zazpitik zortzi.
Ehortzi
zazpitik zortzi.
Sekula sekulorum
hortzak igurtzi.

2)
Marinel emaztea
goizean senardun
arratsaldean haurdun
gauean alargun.
Senardun
gauean alargun.
Itxasoko haitzari
eman behar mun.

3)
Oinezkoari egin
dion hik muzin
zaldizkorik ordea
hatzeman ezin.
Hik muzin
hatzeman ezin.
Bakarrik beharko dun
pozoina bezin.

4)
Deabruak ekarri
berak eraman
etsaiekin ez ibil
hartu ta eman.
Eraman
hartu ta eman.
Hobe duk zor handiak
egin tabernan.

5)
Goizean gure jauna
hartzen ahoan
deabrua gorderik
gero golkoan.
Ahoan
gero golkoan.
Holakoen ondora
ez hadi joan.

6)
Habia egin deneko
txoria hila
nora joango naiz orain
beste baten bila.
Ai hila
beste baten bila.
Jainkorik baldin bada
piztu dadila.

7)
Ona eta merkea
daude urruti
akerrak buztanpean
aterpe gutti.
Urruti
aterpe gutti.
Hilda gero zertako
putzik eduki.

8)
Asko daki xaguak
geiago katuak
zakurrak zaintzen ditu
bien tratuak.
Katuak
bien tratuak.
Gure etxeko pizti
bedeinkatuak.

9)
Astoa saldu eta
erosi mandoa
hola aurreratzea
nai al duk mundua.
Mandoa
nai al duk mundua.
Hirekin badiagu
kotsolamendua.

10)
Akerra izan arren
arras okerra
auntzarentzat bera da
mutil ederra.
Okerra
mutil ederra.
Ez baldin bada beintzat
galai alferra.

11)
Oiloekin etzanda
txoriekin jaiki
gaua nolakoa den
ere ez daki.
Noiz jaiki
ere ez daki.
Ez agindu izarrik
holako bati.

12)
Kanpoan uso eta
etxean otso
eskerrak lurperatu
zutela atzo.
Ai otso
zutela atzo.
Oraintxe egongo da
isil eta mantso.

GLU GLU GLU

1)
Edan ezkerro
jartzen naiz ero
edan ezik eroago
orain naiz gero
hiru-lau trago
jotzeko moduan nago.

2)
Ez naiz ni bonbon
eta hor konpon
baina ardoa dut maite
ezin dut egon
botila bete
zazpi bider hustu arte.

3)
Lenago beti
andreareki
haserre eta zarata
orain ederki
elkar besarka
biok mozkortzen gara-ta.

4)
Edan baino len
bart banengoen
triste eta ondo ezik
edan ondoren
nenbilen pozik
biluzik eta ortosik.

5)
Pentsatuta ere
lanak badaude
zer demonio den hori
baraurik bate
ezin dut korri
edanda berriz erori.

6)
Zer erru dut nik
ez bada egunik
gogo argirik dudarik?
Ez dut ilunik
aspaldidanik
ardoa glu glu edanik.

TANTUM ERGO

1)
*Tantum ergo sacramentum
veneremur cernui*
Atzo tuntun egun tuntun
bihar ere zer guri
*Et antiquum documentum
novo cedat ritui*
Ai zer txukun jan genitun
teilatuan katu bi.

2)
*Genitori genitoque
laus et jubilatio*
Deabruék egin naute
infernuko sozio
*Procedenti ab utroque
compar sit laudatio*
Inork ez du zeru truke
lumatzerik desio.

3)
*Pange lingua gloriosi
corporis misterium*
Nai dut mando bat erosi
saltzen badute inun
*Sanguinisque pretiosi
quem in mundi pretium*
ea galdaran egosi
eta piztutzen zaigun.

4)
*Nobis natus nobis datus
ex intacta virgini*
Goitik bera begiratz
buru hainbat tximini
*Sui moras immolatus
miro clausit ordini*
Arnasarik ezin hartuz
ito behar naute ni.

5)
*Nobis patri et filio
seculum secularem*
Galdu dira Zizilio
eta Mari Madalen
*Sicut erat principio
eta nunc et semper amen*
Jaio eta hil artio
bizi behar da hemen.

6)
*Tantum ergo
Cuánto cerdo*
dabilen inguruan
*Prestet fides
no te fies*
Lapurren liburuan
Genitori
Jende hori
jotzen baduk buruan
*Procedenti
derrepenti*
Sartuko haiz zeruan.

JUBILATIO: Ahozkatzean *iubilazio*. Agertzen diren beste *tio* eta *tiu* guz-
tiak ere berdin. Esan beharrik ez dago *ce* eta *ci* ere *ze* eta *zi* ahozkatu
behar direla.

BASAURITIK ZALDIBIRA

Errege-erreginak Gernikako Juntetxera etorri zirenean, **Herri Batasunako** hautatu talde haundi batek, hura hizketan hasi zenean, zutitu eta *Eusko Gudariak* kantatu genion behin eta berriz, indarrez eta joka kanpora atera gintuzten arte. Ekintza harengatik auzia sartu ziguten. Urtebete ingururen buruan, berrogeita hamar mila pezetako fidantza jarri ziguten. Ez ordaintzea erabaki genuen. Orduan hautatuak espetxeratzen hasi ziren.

Honetan, inork espero ez zuen ustekabea eman zigun **Euskadiko Ezkerrak**. Preso zeudenen fidantzak berak ordaindu zituen, **Herri Batasunakoei** ezer galdetu ez jakin erazi gabe. Preso zeudena hala irtetea, prentsaurreko bat egin genuen. Esan beharrik ez dago **Herri Batasunakook** txinpartak botatzen ari ginela hain alukeria zital hartaz. Nik orduan honelako deklarapenak egin nituen, erdaraz une hartan. Hura «operación chorizo» izan zela. Dirurik behar izan bagenu, horrenbeste geure amonak ere bazuela, komunikabideetan agertzea hain maite badute, «la manguera al hombro» bota eta zakurrak kortejatzen hastea zeukatela, lehen gutxi baziren «ahora no les va a parir ni la parienta» eta alkahueteria harengatik **Madri**dik hartzen zuten saria **Toledon** klienteak bilatzen gasta zezatela.

Gordintasun hura jakinez gainerakoa zen, ez bainuen saldukeria hari zegokion beste hizkerarik aurkitzen.

Barruan zeudena irten ziren, baina oraindik hiru falta ziren sartu gabe. Hauetariko bat ni nintzen. Gure fidantzarik ezin ordaindu, oraindik detentzeko baikeunden. Zer egingo ote zuen gobernuak? Astebeteren buruan bi sartu gintuzten eta gerotxoago falta zen azkena. **Euskadiko Ezkerrekoek** gure fidantzarik ez ordaintzea erabaki zuten. **Basaurin** preso geundela, **Rufino Iraolaren** bertso sorta bat agertu zen PUNTO Y HORA aldizkarian nire aurka. Gorago aipaturiko deklarapen horien aurka eta **Euskadiko Ezkerraren** alde. Ondorengo bertso sorta hau ordainak dira, preso nengoela eginak.

1) **Zalbiditik** tiratu
didate mingaina
aproban jarri nairik
nire tamaina.
Laurogeita bigarren
urteko ekaina
bertsotan iritxi zait
danbolin bikaina.
Dirudi arraina
saltatzen ur gaina
hona nik azaina
horrentzat ordaina
hainbesterik ez zuen
merezi baina.

2) **Euskadiko Ezkerra**
kofradi berria
egin zigun pagantza
txiflagarria.
Agertu nuelako
neure errabia
Rufino egin dute
denen zintzarria.
Bota dit harria
bertsotan jarria
hau nire irria
gartzelan zorria
arkakusoak hartu
behar neurria.

3) Esan nian txorizo
edota lukainka
badela zuen goiko
mailan hamaika.
Alkahuete lan hori
ez nezakek maita
lotsatu beharrean
ttunttunka harraika.
Jotzen didak gaita
jartzen nauk ja-jaika
ez nauk hire aita
ixilazi naita
ez diat aginduko
alperrik baita.

4) Hara zuen **Lertxundi**
eta **Markiegi**
Judasen poltsarekin
saltzen igeri.
Gero arrazoitzako
zenbat pellokeri!
Kontuak eskatzera
nola hator neri?
Euri naiz ateri
kusoak ageri
memoritik eri
zauden hoieri
zeuen hitzez esanda
hau duk geiegi.

5) Azaina hori aizak
pikuko oilarra
kukurruku jotzeko
ez duk edarra.
Atzetik eman eta
hau duk hau adarra
norberak barkamena
eskatu beharra.
Falta zen bakarra
martxa militarra
nork ez egin parra?
Nai al duk pitarra?
Beste leku batean
jo zak gitarra.

6) Teatro bitxi hura
ez al duk gomutan?
Txorizokeri baten
antza zedukan.
Ez zekiat bertsorik
nola jarri dukan
ni gutxinez linboan
gordeko nindukan.*
Amets haxe ukan
diat zazpi gautan
loaren kulunkan
ikusi hindutan:
Txori bat berriketan
arbola puntan.

7) Sinesten badik lana
fedegabe batek
hain barregarri nola
joka zitekek?
Zeuen lagunak ere
lotsaturik zeudek
borratzeko agindu
behar anitz jendek.
Hire bertso hoiek
entzunda zenbatak
beste hainbat karnet
jango ote ditek
hain propaganda txarra
egin baitiek.

8) Denontzat ez duk heldu
zuen dote pixka
zer kahalana eta
bera erdizka.
Isildu beharrean
hator hizka-mizka
baina barkatzen diat
berritsua haiz-ta.
Ez berriro pista
hortatik irrista
atera duk txispa
juxtu duen zizpa
horrekin nola ito
gure tximista?

9) Bost mila militante
ba ote zaudeten
Armintzan bazekitek
zenbat zaretan.
Goizean animoso
etxetikan erten
ganbaran ere hainbat
kabituz ziteken.
Zientu pare baten
zifrak hor nonbaiten
geiegi bada ken
zeuen partez neroni
lotsa ematen.

10) Muturra sartzen bada
ipurdian berdin
gero zikindu gabe
atera ezin.
Kolpe horrek ez zidak
eman hainbeste min
ni ez nauk haseratzten
txorroskiloekin.
Gernikan zer egin
ongi bagenekin
Errege-erregin
ta beste arlekin
ezkerra zein den hemen
haiei galdegin.

11) Hamaikagarrenean
agurtzen dut plaza
honela bukatzen da
gaurko jolasa.
Urlia batek jo dit
tobera demasa
beharbada nai zuen
historira pasa.
Ez da hain erraza
baina badu traza
baldin bada gauza
egon bedi lasa
betiko bildu baitu
fama eskasa.

GARTZELAN ZORRIA: Nire sozioak bertso batean esaten zuen «gartzelaren ditxa zorria ta sitsa» dela.

ARKAKUSOAK: Hain zuzen zaldibitarren izengoitia.

HARRAIKA: Jarraitzen duk. *Jarraiki* aditza jokaturik.

LERTXUNDI ETA MARKIEGI: Horiak izan ziren fidantza ordainketan burua agertu zutenak, Euskadiko Ezkerraren izenean.

HAU DUK GEIEGI: Euskadiko Ezkerraren slogan bat izan zen: «Hau gehiegi da».

BOST MILA MILITANTE: Bertso batean «bost mila militante ez gaituk kusoak» esaten zuen Rufinok.

ARMINTZAN BAZEKITEK: Hain zuzen 1982ko ekainak 6an, Rufinoren bertsoek argia ikusi zuten aldi berean, Euskadiko Ezkerrak Lemoizen aurkako egun bat antolatu zuen Armintzan. Hainbeste propagandaz eta baita guztiekin ere, berrehundik hirurehunera lagun bildu zuten Euskal Herri guztitik. Hirurehundik behera noski.

ARLEKIN: Pertsonaia komikoa.

LIBURUON DATOZEN HERRI IZENAK

Abadiño	Aretxabaleta	Bergara
Abaltzizketa	Argiñeta	Berlin
Abando	Artadi	Bermio
Abaroa	Artxanda	Berriatu
Adarra	Arraba	Berrio
Aduna	Arrasate	Berriozabaleta
Agarre	Arratia	Berriz
Aginaga	Arriandi	Berrobi
Aixerrota	Arriaran	Besaide
Aizkoate	Arretxinaga	Bidani
Aizkorri	Arrieta	Bidasoa
Akelarre	Arropain	Bidegoien
Albistur	Arrua	Bilbo
Aldaba	Asia	Billabona
Aldape	Astigarraga	Bizkaia
Alegi	Ataun	Bizkaigane
Alicante	Atxondo	Bizkargi
Alkitza	Atxuri	Bolibar
Altamira	Aulesti	Buruntza
Altza	Axpe	Busturia
Altzagarate	Azkorte	Cádiz
Altzo	Baiona	Córdoba
Amara Berri	Bakio	Ceuta
Amasa	Baliarrain	Deba
Ameriketa	Barandike	Derio
Ametza	Barazar	Deustu
Amezketza	Barinaga	Donostia
Amorebieta	Basurto	Durango
Amoroto	Baztan	Durangaldea
Anboto	Beasain	Elduain
Anoeta	Bedaio	Elgeta
Añorga	Bedia	Elgoibar
Apata	Bedoña	Elizondo
Aralar	Bedua	Elorrio
Arama	Begoña	Erauzkin
Aramaio	Beizama	Ereñozar
Arbazegi	Belauntza	Etxebarri
Arbildu	Benidorm	Fika
Arenala	Berastegi	Gaintza

Galarreta
Gamiz
Gardata
Garai
Garin
Gasteiz
Gazeta
Gaztelu
Gaztelumendi
Gerediaga
Gernika
Getaria
Gijón
Gipuzkoa
Gizaburu
Gizalana
Goiatz
Goiherri
Goiko Elexea
Gorbea
Goiuri
Hendaia
Hernani
Hernanialdea
Hondarribia
Ibaizabal
Ibarra
Iberre
Idiazabal
Igeldo
Igoria
Ikaztegieta
Indamendi
Intxorta
Iorreta
Ipiñaburu
Irati
Iruñea
Irura
Iruzubieta
Ispaster
Isturitz
Isuntza
Itsasondo
Itziar
Izarra

Izaskun
Izurtza
Jata
Kalamua
Kanpazar
Kantauri
Karraspio
Kontxa
Kurlutxu
Kurtzetxiki
Laine
Lainemendi
Lanbreabe
Landatxueta
Larrabetzu
Larrakotse
Larraul
Larrauri
Larruskain
Lasarte
Lauro Nagusia
Laurota
Lauro Txikerra
Lea Ibarra
Leaburu
Legorreta
Lekanda
Lekeitio
Lemoiz
Lezama
Loinatz
Lierni
Lizartza
Loiu
Loiola
Londres
Lumentxa
Madril
Magatxena
Mañaria
Markina
Markinaldea
Markoide
Maria
Matiena
Matxinbenta

Mendexa
Mendraka
Meñaka
Meñakabarrena
Mesterika
Miota
Momotxo
Monterrone
Mugarra
Munabe
Mungia
Munibe
Munitibar
Muntsaratz
Muñozguren
Murelaga
Muru
Muruetza
Murumendi
Musakola
Mutiloa
Nabarniz
Nafarroa
Nerbioi
Ñañarri
Oikia
Oiz
Okabio
Olaberri
Oleta
Ondarroa
Oñati
Ordizia
Orendain
Orexa
Oria
Orio
Ormaiztegi
Otoio
Pagasarri
Paris
Parisi
Sabigain
Salamanka
Sana
San Agustin

San Andres
San Bartolome
San Frantzisko
San Kristobal
Santa Ageda
Santa Barbara
Santa Eufemia
Santa Katalina
Santa Klara
Santamaña
Santimamiñe
Santo Domingo
Santurtzi
Segura
Sollube
Sopela
Soraluze
Sukarrieta
Tabira
Tánger
Tetuán
Tolosa

Tolosaldea
Trebiño
Tribis
Txindoki
Txirrokalde
Txoriherri
Udala
Udalaitz
Unbemendi
Undurraga
Untzillaitz
Urberuaga
Urgul
Uribarri
Urkiola
Urkulupe
Urnieta
Urola
Urumea
Urretxu
Urrexola
Usurbe

Usurbil
Uzturre
Valencia
Venezuela
Vitoria
Xemein
Zaldibar
Zaldibi
Zamora
Zarautz
Zeanuri
Zegama
Zenita
Zerain
Zestoa
Zikuñaga
Ziortza
Zizurkil
Zornotza
Zumaia
Zumarraga

HIZTEGITXOA

- Akulu:** akuilu.
Altara: aldare.
Arin: azkar, agudo.
Arrastia: arratsaldea.
Arrena: zintzarria, joarea.
Atzen: azken.
Badaukie: badaukate.
Badauskuez: badizkigute.
Badauste: badidate.
Bajatzue: bazaizue.
Bako: gabeko.
Balebez: balituzte.
Baleusku: baligu.
Baltzitu: beztu.
Bapere: batere.
Barik: gabe.
Bazagoze: bazaudete.
Be: ere.
Bedar: belar.
Berba: hitz.
Berbaldun: hiltun.
Bertzea: bestea.
Beste: hainbat, aina.
Bitsetan: aparretan.
Burdi: gurdi.
Buztanagaz: buztanarekin.
Buztarri: uztarri.
Dabe: dute.
Dabela: dutela.
Dabenak: dutenak.
Dabiz: dabilta.
Daiala: dezala.
Daigun: dezagun.
Daistan: dezaidan.
Daiten: dadin.
Daroe: daramate.
Dauke: daukate.
Daukezan: dauzkaten.
Dausku: digu.
Dauskue: digute.
Dauskuen: diguten.
Dauskuez: dizkigute.
Dauskun: digun.
Dauskuz: dizkigu.
Daustana: didana.
Daustena: didatena.
Daustenez: didatenez.
Dautsen: dien.
Dautso: dio.
Dautsogu: diogu.
Dautsoguz: dizkiogu.
Dautsue: dizute.
Dautset: diet.
Eban: zuen.
Eben: zuten.
Edozelakoa: nolanahikoa.
Edurra: elurra.
Ei: omen.
Emoia: jarioa.
Enparauak: gainerakoak.
Ercan: eraman.
Eskuma: eskuin.
Etxoat: ez diat.
Etxok: ez dik.
Eustan: zidan.
Eutsien: zien.
Ezebe: ezer ere.
Ezebez: ezer ere ez.
Gabiz: gabilta.
Gagoz: gaude.
Gaitue: gaituzte.
Galazo: debekatu.
Gatx: sail.
Geriza: itzal.
Gerizpe: itzalpe.
Geunke: genuke.
Gogaitu: aspertu.
Gorpu: hilotz.

Gurago: nahiago.
Ha: hura.
Hatsa: kiratsa.
Hegal: hego.
Hegaz: hegan.
Hoba: hobe.
Holantxe: honelaxe.
Huruna: hiruna.
Iretargi: ilargi.
Iruntsi: irentsi.
Itxi: utzi.
Ixotu: sutu, piztu.
Jagon: zaindu.
Jake: zaie.
Jakenean: zaienean.
Jakie: zaie.
Jako: zaio.
Jakon: zitzaion.
Jakozan: zitzaizkion.
Jaku: zaigu.
Jakun: zitzaigun.
Jakuz: zaizkigu.
Jatak: zaidak.
Jatan: zitzaidan.
Jataz: zaizkit.
Jatzuz: zaizkizu.
Jausten: erortzen.
Kerixa: gerezi.
Koiu: hartu.
Laba: labe.
Lapikoa: eltzea.
Larrosa: arrosa.
Legez: bezala.
Lei: lezake, liteke.
Leike: lezake, liteke.
Leukezala: lituzkela.

Leukie: lukete.
Lez: bezala.
Maniatu: prestatu.
Mizkea: mizkina, gozozalea
Nainon: edonon, nonahi.
Nazala: naizela.
Neskakaz: neskekin.
Oinaztua: tximista.
Ointxe: oraintxe.
Olgeta: joko, jolasa.
Olgetan: txantxetan, jolasean.
Orainelak: pizontziak.
Oratu: heldu, eutsi.
Ortua: baratzea.
Osatu: sendatu.
Ostea: atzea.
Ostera: ordea.
Sama: lepo.
Sarri: askotan, maiz.
Satsez: simaurrez.
Siketan: lehortzen.
Silbota: tripa.
Surrak: sudurrak.
Topetan: topatzen.
Txarto: gaizki.
Txikerra: txikia.
Tutua: ipurdia.
Untegi: perratokia.
Untzea: iltzea.
zaitue: zaituzte.
Zaizala: zaitzala.
Zebizela: zebiltzala.
Zeintekez: zintezke.
Zelan: nola.
Zoli: argia, ernea, bizkorra.

DOINUAK

1

2

3

4

Handwritten musical score for exercise 4, consisting of five staves of music in 3/8 time. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.

5

Handwritten musical score for exercise 5, consisting of three staves of music in 5/8 time. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.

6

Handwritten musical score for exercise 6, consisting of four staves of music in 3/4 time with a key signature of one sharp. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.

7

Handwritten musical score for exercise 7, consisting of three staves of music in 2/4 time with a key signature of one sharp. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.

8

Handwritten musical score for exercise 8, consisting of two staves of music in 3/4 time. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.

9

Handwritten musical score for exercise 9, consisting of three staves of music in 3/8 time with a key signature of one sharp. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.

10

Handwritten musical score for exercise 10, consisting of three staves of music in 3/8 time with a key signature of one sharp. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and a final double bar line.

11

Handwritten musical score for exercise 11, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The piece consists of four staves of music with various rhythmic patterns and melodic lines.

12

Handwritten musical score for exercise 12, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The piece consists of three staves of music.

13

Handwritten musical score for exercise 13, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The piece consists of four staves of music.

14

Handwritten musical score for exercise 14, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The piece consists of three staves of music.

15

Handwritten musical score for exercise 15, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The piece consists of four staves of music.

16

Handwritten musical score for exercise 16, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The piece consists of four staves of music.

17

Handwritten musical score for exercise 17, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The piece consists of three staves of music.

18

Handwritten musical notation for exercise 18, consisting of three staves of music in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic patterns and rests.

19

Handwritten musical notation for exercise 19, consisting of three staves of music in treble clef with a key signature of two sharps (F#, C#) and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic patterns and rests.

20

Handwritten musical notation for exercise 20, consisting of three staves of music in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic patterns and rests.

21

Handwritten musical notation for exercise 21, consisting of three staves of music in treble clef with a key signature of two sharps (F#, C#) and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic patterns and rests.

22

Handwritten musical notation for exercise 22, consisting of three staves of music in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic patterns and rests.

23

Handwritten musical notation for exercise 23, consisting of three staves of music in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic patterns and rests.

24

Handwritten musical notation for system 24, measures 1-4. It consists of four staves of music in treble clef with a 3/8 time signature. The notation includes various note values, rests, and a double bar line at the end of the fourth measure.

27

Handwritten musical notation for system 27, measures 1-4. It consists of four staves of music in treble clef with a 3/8 time signature. The notation includes various note values, rests, and a double bar line at the end of the fourth measure.

25

Handwritten musical notation for system 25, measures 1-4. It consists of four staves of music in treble clef with a 3/8 time signature. The notation includes various note values, rests, and a double bar line at the end of the fourth measure.

26

Handwritten musical notation for system 26, measures 1-4. It consists of three staves of music in treble clef with a 3/8 time signature. The notation includes various note values, rests, and a double bar line at the end of the fourth measure.

AURKIBIDEA

HERRIAK	DOINUA	ORRIALDEA
Hitzaurrea.....		9
ABADIÑO.....	1	13
LEA IBARRA.....	2	19
Zazpi herriak.....	3	21
HERNANIKO GALARRETAN.....	2	25
Hernanialdea.....	4	28
Lasarte.....	5	32
ZUMAIA.....	2	35
Zumaiaiko berri.....	6	38
Dirua sobra.....	3	42
Komedi barregarriak.....	4	44
Kostitutuzioa.....	7	47
ELORRIO.....	2	49
Aberatsak ederto.....	6	52
Auzorik auzo.....	3	54
Azken barriak.....	4	58
LEKEITIO.....	2	61
Berriak.....	6	66
Berriagoak.....	4	70
Arrantzale bat.....	19	74
GOIHERRI.....	2	79
LAZKAOKO JAIALDIA.....	2	81
Goiherri herriak.....	6	82
Bertso berrien gurdian.....	4	89
Jaitokiak.....	3	92
Goiherriko arnasa.....	19	94
BUSTURIA.....		97
Hautsak astintzen.....	6	99
Biziak eta hilak.....	3	102
Busturiko auzoak.....	6	105
DURANGO.....	20	109
Ibaizabalen ezker-eskuma.....	2	112
Durangaldea.....	6	114
Herri barruan.....	10	118
Iorreta.....	19	122
Gure atsoa Balendrin.....	7	124

BILBO - DEUSTU	8	129
Bilbo gurea	5	132
Huri itugarria	4	136
Ai Bilbo	19	140
Deustu	7	144
GERNIKAKO BONBAKETA	8	149
Bonbaketa	6	152
Zergatik eta nork	9	19
Gernika berria	19	161
Urteurrenak	7	163
BEASAIN		165
Herrian zehar		166
URNIETA		171
Herriko berriak	4	173
Buruntzatik Adarrara	7	176
ARRASATE	8	179
Herriko berriak	4	182
Auzoak eta gizonak	3	186
BOLIBAR	3	191
Zer eta nor	6	193
Markinaldea	3	197
Bideak	4	200
DONOSTIA	20	201
Kantari natorkizu	19	205
TOLOSA	20	209
Tolosaldeko jira	3	212
ZEANURI	20	221
Zeanuritar ospetsuak	23 eta 26-25	223
LARRAURI	20	219
Larraurialdea	3	231
Barri freskoak	23 eta 27-26	235
LAUROTA	20	239
Laurotako auzoak	3	241
Laurotarrak	23 eta 27-26	243
URRETXU - Iparragirren Mendeurrena	20	249
Iparragirre	23 eta 25-26	252
Gernikako Arbola	5	255
AMARA BERRI	23 eta 27	261
FIKA	11 eta 20	263
Fikako barri	23 eta 27-26	265
BEDIA	20	271
BERRIATU	20	273
AÑORGA	20	275
BERGARA - Maisu-maistrak	20	277
ARRIANDI	21	279
LARRABETZU	21	283
Udaletxea eta Patakon	23 eta 25-27	285

EZOZI	21	289
ELIZONDO		291
Nafarroa	23 eta 27-26	293
HONDARRIBIA	21	299
ZIZURKIL	21	301
IZURTA	21	303
GAIAK		305
Lemoiz	12	307
Tejero	3	313
Mila esker	13	315
Reala Nagusi	14	317
Joan ginen Madrila	3	319
Baserritarren bizitza	4	321
Nekazariak, langileak eta arrantzaleak	15	323
Mendian gora haritza	7	325
Nikola		327
Gizon bat hilda	2	328
Argala	2	329
Euskal Herrian Euskaraz	Oskorri	331
Nafarroa	Oskorri	332
Biribila	16	333
San Ferminak	24 eta 25-27	337
Arin-arin	22	348
Glu glu glu	17	350
Tantun ergo	18	352
Basauritik Zaldibira		355
Liburuon datozen herri izenak		359
Hiztegitxoa		363
Doinuak		365